

EUSKADIKO
GORROTO-GERTAKARIEI
BURUZKO 2017KO
TXOSTENA

Police
Human rights
Etzaintza
Identity
Hate speech
Violence
Hate
Crime
data
Incident
Bias
Racism
Disability
LGTBI Law
Minorities
Victimization
Reporting
Offender
Harassment
Disrupting
Hurt
Fear

EUSKADIKO GORROTO-GERTAKARIEI BURUZKO 2017KO TXOSTENA

***Giza Eskubideen eta Botere Publikoen Katedra
Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)***

Zuzendaritza eta koordinazioa

Jon-Mirena LANDA GOROSTIZA doktorea (zuz.)

Enara GARRO CARRERA doktorea (koor.)

Lantaldea:

Mikel ANDEREZ BELATEGI

Diego ARIAS DÍAZ-FAES

Bertha GAZTELUMENDI CABALLERO

Iñigo GORDON BENITO

Laura YANGUAS AGUIRRE

***Segurtasun Saila
Eusko Jaurlaritza***

***Vitoria-Gasteiz/Leioa,
2018ko apirila***



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

SEGURTASUN SAILA
DEPARTAMENTO DE SEGURIDAD

eman ta zabal zazu

Universidad
del País Vasco Euskal Herriko
Unibertsitatea

Giza Eskubideen
eta Botere Publikoen
Katedra
Cátedra
de Derechos Humanos
y Poderes Públicos

AURKIBIDEA

AURKIBIDEA	4
SARRERA	6
1. MUGAPEN TERMINOLOGIKO ETA METODOLOGIKOA	9
1.1. Sailkatzeko proposamenak	9
1.1.1. Babestutako kategoriak.....	9
1.1.2. Gorroto- eta diskriminazio-delituen erregulazioa araudian	11
1.2. Kategoriaren arabeko sailkapenari buruzko jarrera eta azalpena	13
1.2.1. Sailkapen terminologikoaren konparaziozko erreferenteak	13
1.2.2. Kategorien proposamena: azalpen orokorra.....	16
1.3. Gorroto- eta diskriminazio-delituen arauzko erregulazioari buruzko iritzia eta azalpena	36
1.4. Laburpen gisa.....	39
2. 2016KO GORROTO-GERTAKARIAK	43
2.1. Ezagutzen diren gertakarien banaketa.....	43
2.2. Arau-hauste administratiboak lurralde historikoaren arabera	45
2.3. Egozpenen banaketa.....	46
2.4. Atxiloketen banaketa.....	48
2.5. Biktimizazioen banaketa	48
2.6. Gorroto-gertakarien sailkapena, delituen tipologiaren arabera	50
3. 2017KO GORROTO-GERTAKARIAK	53
3.1. Ezagutzen diren gertakarien banaketa.....	53
3.2. Arau-hauste administratiboak lurralde historikoaren arabera	56
3.3. Egozpenen banaketa.....	56
3.4. Atxiloketen banaketa.....	58
3.5. Biktimizazioen banaketa	58
3.6. Gorroto-gertakarien sailkapena, delituen tipologiaren arabera	60
4. ONDORIOAK	62
4.1. EAEko gorroto-gertakarien mapa: alderdi nagusiak.....	62
4.2. Gomendioak	66
5. BIBLIOGRAFÍA	68
LABURDURAK	71
GERTAKARIEN KOKAGUNEAK	73
IRUDIEN AURKIBIDEA	74
I. ERANSKINA: PRENTSAN AGERTU DIREN KASU NABARMENAK (2016-2017)	75
I.1. Kasuen laburpena babestutako kategoriaren arabera	75

I.2. Arrazakeria/xenofobia.....	76
I.3. Ideologia/joera politikoa	79
I.4. Sinesmenak/erlijioa.....	84
I.5. Sexu-orientazioa/-identitatea.....	85
II. ERANSKINA: EAE-KO FISKALBURUAREN MEMORIEN LABURPENA (2016-2017).....	87
III. ERANSKINA: GORROTO- ETA DISKRIMINAZIO-KASUEN ZIGOR- ETA ADMINISTRAZIO-ARAU BIDEA.....	90
III.1. Gorroto-delituak.....	90
III.2. Bereizkeria-delituak.....	98
III.3. Gorroto eta bereizkeriako arau-hauste administratiboak	99

SARRERA

Hemen aurkezten dugun txosten hau Euskadin gorroto-gertakariei buruz egiten den mota honetako lehena da. Euskal Herriko Unibertsitateko (EHU) Giza Eskubideen eta Botere Publikoen Katedraren eta Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailaren baterako ekimen baten emaitza da. Ekimenaren iturburuan uste irmo bat dago: hain zuzen ere, beharrezkoa genuela honelako tresna bat, gure erkidegoari errealitate hori hobeto ezagutzea ahalbidetuko dion informazio garrantzitsua eman eta, hortik abiatuta, zorrotasun eta eraginkortasun handiagoz planifikatzeko gaitz horretan esku hartzeko eta hari aurrea hartzeko politikak.

Hau «gorroto-gertakariei» buruzko txosten bat da, ez soilik eta hertsiki «delituei» buruzkoa. Izan ere, instituzionalki, ez dagokio poliziaren instantziari behin betiko iragaztea, epai irmo bidez, zer jokabide hartuko diren delitutzat azkenean. Aitzitik, intolerantziako jokabideen berri jaso eta horiek hautematea du zeregin, baita, hala badagokio, laguntza ematea eta horiek beste instantzia batzuetara bideratzea ere. Poliziak jakitun izan behar du lehen instantziak sinesgarritzat hartu behar duela balizko biktima, eta informazioa, arreta, orientazioa eta babesia eman behar diola. Beraz, delitu-txosten bat baino gehiago da gorroto-gertakariei buruzko txosten bat, eta haren xedea eta funtzioa ez da kriminaltasun mota horri buruzko epai irmoei dagokienez delitu-mapa ofiziala zein den jasotzea.

Honelako txosten bat, bestalde, guztiz bat dator giza eskubideen nazioarteko zuzenbidetik eratorritako nazioarteko gomendio eta estandarrekin, bai eremu unibertsalari dagokionez, bai, bereziki, Europako eskualdeari dagokionez. ECRIk (Arrazakeriaren eta Intolerantziaren aurkako Europako Batzordea, Europako Kontseilua) duela gutxi Espainiari buruz argitaratutako 2017ko txostenak adierazi bezala, honako hau gomendatzen zaie legea betearazteko ardura duten agintariei:

«(...) jarraitu eta areagotu ditzatela euren jarduerak, batetik, gertakari arrazista, homofobiko eta transfobikoak erregistratu eta zaintzeko sistema ezarri eta ongi funtzionatzen duela begiratzeko, eta bestetik, zehazteko zer mailarekin aurkezten diren gertakari horiek auzitegietan, eta zer mailarekin sailkatzen eta hartzen diren delitu arrazista, homofobiko eta transfobikotzat (...)»¹.

Informaziorik ezean, errealitate horiek ezkutuan jarraitzen dute eta ezin dira baliatu haiei ekiteko politika publikoak egiteko. Edozein demokraziak uztartu behar ditu legegintzako ekintza

¹ Arrazakeriaren eta Intolerantziaren aurkako Europako Batzordea (ECRI), *ECRIk Espainiari buruz emandako txostena (bosgarren ikuskaritza-zikloa)*, 2017ko abenduaren 5ean onartua, 2018ko otsailaren 27an argitaratua, CRI (2018) 2, 45. or.

eta haren aplikazio eraginkor eta proportziozkoa. Baina, ondoren, aldi behin ebaluatu eta erkatu behar da, abian jarritako neurriak zenbateraino diren eraginkorrak identifikatzeko. Hortaz, txosten honek beste harri bat jartzen du errealitate horri buruzko oinarri enpirikoa zabaltzeko bidean, ebaluazio kritikoa errazteko; hala, aldi berean, iritzi publiko demokratikoa eta gizarte zibil antolatua ahaldundu eta tresna hobek sortu nahi dira, bai komunitatean esku hartzeko bai erakundeek jarduteko.

Txosten hau hiru ataletan eta ondorio eta gomendio sorta batean dago banatuta.

Lehenik eta behin, hasierako atal luzearen bidez, giza talde babestuak identifikatzearekin zerikusia duen terminologia-egitura finkatu nahi izan da. Ez dago ezer guztiz mugatzeko asmorik, ezinezkoa baita, kontuan hartzen badugu zein gorabeheratsua den auzia komunitate zientifikoan. Baina jarduteko proposamen bat formulatu nahi izan da, azken eztabaidak egokitzeko eta puntu ilun eta konpongaitzenak zein diren jasotzeko. Aldi berean, auzi horiei buruz finkatu diren aukera pragmatiko eta estrategikoekin uztartu nahi izan da proposamena, erreferentziako erkidegoaren (EAE) eta txostenaren profilarren (akademikoa eta poliziala) ikuspuntutik. Atal horrek, gainera, erreferentziako corpus bat finkatu nahi du. Etorkizunean ez da errepikatuko txostenaren ondorengo edizioetan, hemen jasotakoari ñabardurak gehitu edo zuzenketak egitea komeni denean izan ezik. Azkenik, sarrerako atal honetan, argi eta garbi ezartzen da erreferentziako arau-esparrua, batez ere, juridiko-penala.

Bigarrenik eta hirugarrenik, bildutako gertakarien datuak azaltzean argi eta garbi bereizten dira, batetik, delitu izan litezkeen gertakariak eta, bestetik, arau-hauste administratibotzat hartu beharrekoak. Gertakariei buruzko datuek 2016. eta 2017. urteak hartzen dituzte barne eta, horrez gain, mundu osoko datuak berrikusten dituzte, babestutako giza taldeen arabera, kokaleku geografikoaren arabera, eta subjektu aktiboaren (egozpenak, atxiloketak) nahiz pasiboaren (biktimizazioak) profilarren datuen arabera. Azkenik, datuak ematean kontuan hartzen da gertakaria erreferentziako delitu-tipologian sar daitekeen.

Ondoren, ondorio eta gomendioak labur azalduz ematen zaio amaiera txostenari, eta baliagarriak izan daitezkeen hiru eranskin gehitu zaizkio: batean gertakari nabarmenei buruzko hemerrotekako kazetaritza-informazioa bildu da, beste batean memoria judizialestatik eta Fiskaltzatik ateratako datu batzuk jaso dira, eta azkenik, arlo horretako legezko manuak bildu dira. Adierazi behar da txosten honetarako lagungarriak izan direla bi mintegi, EHUren Giza Eskubideen eta Botere Publikoen Katedrak antolatutakoak, Ekonomia eta Lehiakortasun Ministerioak finantzatutako «Factores postdelictivos y peligrosidad postdelictual. Incidencia en

delitos de odio y de terrorismo» (ikertzaile nagusia Jon-M. Landa) Ikerketa Proiektuaren esparruan (DER 2015-64599 MINECO/EGEF EB).

Lehenengo mintegia Bilbon egin zen, 2016ko abenduaren 2an, «Gorroto-delituak Euskadin: errealitate horren diagnostiko baterantz» izenburupean, eta EAeko poliziak, fiskaltzak eta epaileek arlo horretan izaten duten interakzioa izan zuen ardatz. Mintegira Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko fiskalak eta epaileak eta Ertzaintzako ordezkari ugari (Segurtasun Saila) etorri ziren, baita Eusko Jaurlaritzako Justizia Saileko beste ordezkari batzuk, Arartekoa, abokatua, GKE-etako ordezkariak eta beste hainbat ere. Horrez gain, 2017ko irailaren 21 eta 22an «Gorroto-delituak: ikergaiaren egoera ikuspegi konparatzailetik» Nazioarteko Sinposiuma egin zen Bilbon, aurrekoaren jarraipen eta hedapen gisa, eta bertan, beste jurisdikzio batzuei buruzko ikuspegi konparatzailetik heldu zitzaion gaiari, arreta berezia jarriz zitzaion Erresuma Batuan datuak jorratu eta biltzeko ikuspegiari.

Azkenik, amaierako mintegi bat egin zen txosten honen zirriborro oso aurreratua aztertzeko asmoz. Txostena prestatzen zuzenean esku hartzen ari diren Ertzaintzako Idazkaritza Nagusiko Herritarren Eskubideen Ataleko kideak (Segurtasun Saila) eta Giza Eskubideak eta Botere Publikoak Katedrako (EHU) kideak soilik izan ziren bertan. Gaian adituak diren Erresuma Batuko hiru partaide gonbidatu ziren mintegira; izan ere, herrialde horrek jasotzen ditu hobekien gorroto-gertakariei buruzko gertakariak gure kultur-eremuan. Mintegiaren helburua txostenaren zirriborroa erkatzea zen, bertan jasotako alderdi teknikoak hobetu, zuzendu edo baieztatzeko. Ertzaintzaren ertzain-etxean egin zen (Erandio-Goikoa, Bizkaia), 2018ko urtarrilaren 26an, eta aditu hauek parte hartu zuten, nork bere izenean, beren erakundeak ordezkatu gabe: Paul Giannasi jauna, superintendente burua (Chief Superintendent), Erresuma Batuko Justizia Ministerioko Gorroto Delituetarako Gobernuarteko Programaren arduraduna (Cross-Government Hate Crime Programme Lead); Mark Warrender jauna, superintendente burua (Chief Superintendent), Garapeneko Zerbitzuaren burua (Service Development); eta Chara Bakalis doktorea (Zuzenbide Penaleko irakaslea Oxford Brookes Universityn (Ingalaterra). Doakiela gure esker ona, bai haiei, bai gure mintegietako entzule eta hizlariei, egin zizkiguten ekarpen baliotsuengatik eta, edonola ere, txosten honetan akatsik, hutsik edo mugarik badago, ezin zaie inola ere haiei egotzi; izan ere, sinatzen dugunon erantzukizun dira soilik eta osorik.

1. MUGAPEN TERMINOLOGIKO ETA METODOLOGIKOA

Jarraian, lehenik eta behin grafiko batean eta ondoren argumentu-egituran azaltzen da zer kategoria babestu dauden halako gertakarietan; aldi berean, horien harira aplikatu beharreko legezko manuen berri ematen da labur-labur. Aurkezpen honen asmoa, nagusiki, terminologiako esparrua finkatzea da, azterlanari homogeneousuna, zehaztasuna eta argitasuna emateko. Era berean, labur azaldu nahi da zer oinarri metodologiko erabili diren txostena aurrera eramateko.

1.1. Sailkatzeko proposamenak

1.1.1. Babestutako kategoriak



I. BLOKEA
KOLEKTIBO ETKNIKOA / KOLEKTIBO ARRAZISTA ETA XENOFOBOA
I. TALDEA ARRAZA / ETNIA EDO «IZAERA ETNIKOA» (JATORRIA, IDENTITATEA EDO TALDE ETNIKOA) / NAZIONALITATEA
<i>Arabiarra</i>
<i>Asiarra</i>
<i>Beltza</i>
<i>Zuria</i>
<i>Latinoa</i>
<i>Beste arraza / jatorri etniko bat</i>
<i>Ijitoa</i>
<i>Nazioa edo jatorri nazionala</i>
II. TALDEA IDEOLOGIA ETA JOERA POLITIKOA
III. TALDEA ERLIJIOA ETA SINESMENAK
<i>Islamiarra (musulmana)</i>
<i>Kristaia</i>
<i>Beste erlijio batzuk</i>
<i>Ateoa edo agnostikoa</i>
<i>Antisemitismoa</i>
II. BLOKEA
KOLEKTIBO SEXUALA
IV. TALDEA SEXU-ORIENTAZIOA
<i>Gaya</i>
<i>Lesbiana</i>
<i>Heterosexuala</i>
<i>Transexuala</i>
<i>Intersexuala</i>
<i>LGTBI taldea (talde mistoa)</i>
V. TALDEA SEXU-IDENTITATEA
VI. TALDEA GENEROA
<i>Gizonezkoa</i>
<i>Emakumezkoa</i>
VII. TALDEA GENERO-IDENTITATEA

III. BLOKEA
BESTE KOLEKTIBO BATZUK
VIII. TALDEA GAIXOTASUNA ETA DESGAITASUNA / ANIZTASUN FUNTZIONALA DUTEN PERTSONAK
IX. TALDEA ADINA
X. TALDEA APOROFOBIA EDO EGOERA SOZIOEKONOMIKOA
XI. TALDEA FAMILIA-EGOERA

1.1.2. Gorroto- eta diskriminazio-delituaren erregulazioa araudian

<p>GORROTO-DELITUAK</p> <p><i>I. Stricto sensu manuak</i></p> <ul style="list-style-type: none"> • ZKren 22.4 art. • ZKren 170.1 art. • ZKren 174. art. • ZKren 510. eta 510 bis art. • ZKren 515.4 art. <p><i>II. Manu osagarriak edo funtzionalak</i></p> <ul style="list-style-type: none"> • ZKren 160.3 art. • ZKren 173.1 art. • ZKren 197.5 art. • ZKren 522-526. art. • ZKren 607. art. • ZKren 607 bis art. • ZKren 611.6 art. 	<p>DISKRIMINAZIO-DELITUAK</p> <ul style="list-style-type: none"> • ZKren 314. art. • ZKren 511. art. • ZKren 512. art.
--	--

GORROTO- ETA DISKRIMINAZIO-DELITUEN ARAUDI PENALA

I. GORROTO-DELITUAK

1.1. Stricto sensu manuak

- **ZKren 22.4 art.** [astungarria oro har bereizkeria dela-eta egiten bada]
- **ZKren 170.1 art.** [kolektibo bat beldurtzeko asmoa duen mehatxu delitua]
- **ZKren 174 art.** [bereizkeria dela-eta torturatzea]
- **ZKren 510. art.** [gorrotoa, bereizkeria edo indarkeria eragiteagatiko delitua] eta **ZKren 510.bis art.** [pertsona juridikoen erantzukizun penala]
- **ZKren 515.4 art.** [zilegi ez diren bilerak egitea, horrez gainera diskriminazioa, gorrotoa edo indarkeria eragiten edo sustatzen bada]

1.2. Manu osagarriak edo funtzionalak

- **ZKren 160.3 art.** [ugaltzeko gizakiak klonatzea eta arrazaren hautespena]
- **ZKren 173.1 art.** [tratu apalesgarria]
- **ZKren 197.5 art.** [datu pertsonal bereziki kontuzkoei eragiten dieten sekretuak azaleratu eta jakitera ematea]
- **ZKren 522-526 art.** [kontzientzia askatasunaren, erlijio-askatasunaren eta hildakoekiko errespetuaren aurkako delituak:
 - a) erlijio- edo gurtza-askatasuna baliatzearekin lotutako jokabideak (ZKren 522 eta 523 artikulua).
 - b) erlijiozko sentimenduak ofenditzen dituzten donauste-egintzak gauzatzea (ZKren 524. art.).
 - c) erlijio- edo gurtza-askatasunarekin lotutako eskarnio-jokabideak (ZKren 525. art.).
 - d) hobiak nahiz hilobiak bortxatzea eta gorpuak donaustea (ZKren 526. art.)
- **ZKren 607. art.** [genozidio-delituak]
- **ZKren 607.bis art.** [gizateriaren aurkako delituak]
- **ZKren 611.6 art.** [gatazka armatua dagoenean, babespeko pertsonen duintasuna laidozten dituzten jokaera anker eta apalesgarriak egitea]

II. DISKRIMINAZIO-DELITUAK

- **ZKren 314. art.** [laneko diskriminazio-delitua]
- **ZKren 511. art.** [prestazio publikoa diskriminazioz ukatzeagatiko delitua]
- **ZKren 512. art.** [laneko edo enpresako prestazioa diskriminazioz ukatzeagatiko delitua]

GORROTO- ETA DISKRIMINAZIO-DELITUEN ADMINISTRAZIO-ARAUDIA

19/2007 Legea, uztailaren 11koa, kirol-ikuskizunetan egon daitekeen indarkeria, arrazakeria, xenofobia eta intolerantziaren aurkakoa [2007ko uztailaren 12ko BOE, 166. zk, 29946-29964. or.].

10/2015 Legea, abenduaren 23koa, Jendaurreko Ikuskizunen eta Jolas Jarduerena [2016ko urtarrilaren 7ko EHAA, 3. zk.].

1.2. Kategoriaren arabera sailkapenari buruzko jarrera eta azalpena

1.2.1. Sailkapen terminologikoaren konparaziozko erreferenteak

Jarraian datorren atalak gorroto-gertakarietan babestutako kategoriei buruzko terminologia mugatzen du, Ertzaintzak emandako datu-baseetan jasotako estatistika-informaziotik abiatuta.

Hala ere, beharrezkoa izan den heinean, informazio gehigarria atera da hiru kontzeptu-esparru edo erreferentzia-puntutatik. Lehenik eta behin, AEBko 1990eko *Hate Crime Statistics Act* (HCSA) legetik, baita haren gida edo azalpenerako eskuliburu berrietik ere; hau da, *Hate Crime Data Collection Guidelines and Training Manual (2015)*² izenekotik. Estatu Batuetan kriminalitate mota horri buruzko informazioa bildu eta argitaratzeko eskatu zuen lehen lege federaltzat hartu ohi da HCSA. Bigarrenik, estatuko zigor-araudiari erreparatuko zaio, zehazki, Zigor Kodearen 22.4 eta 510. artikuluei. Ikuspegia bi artikuluko zehazketara mugatzeak, terminologia-garapenari dagokionez, zerikusia du esku hartzeko bi ardatz handiren inguruan mamitzen den erantzun politiko-kriminalarekin: batetik, gorrotoa dela-eta zigorra astuntzea eta, bestetik, gorroto-diskurtsoa zigortzea. Legegintzako bi joera horiek bat egiten dute gure Zigor Kodean eta, beraz, joera horien erakusgarri handienak dira ZKren 22.4 eta 510. artikulukoak³. Baina artikuluko horiek intolerantziaren aurkako zigor-araudiaren ardatz nagusiak izateak ez du agortzen helburu horretarako xedatu diren artikuluko guztien multzoa. Are gehiago, Zigor Kodearen artikuluko guztien artetik, artikuluko horien idazketan ikus daitezke babestutako taldeen kategoriaren arabera zerrenda zabal eta osoenak; beraz, babestutako kategorien uniformetasun-falta tarteko, zentzua du atal honetan manu horiei buruzko azterketa egitea.

Arestian adierazitako guztia gorabehera, hala dagokionean aipamen osagarriak egingo zaizkio Espainiako Gorroto Delituekin lotutako Gertakarien Bilakaeraren gaineko Txostenari; Barne Arazoetako Ministerioak egina, txostena 2017ko ekainaren 8an atera zen argitara⁴. Jarraian agertzen den grafikoak ikuspegi panoramiko batean jaso ditu aipatu diren iturrietako terminologian dauden diferentzia nagusiak.

² LAW ENFORCEMENT SUPPORT SECTION (LESS); CRIME STATISTICS MANAGEMENT UNIT (CSMU), «Hate crime data collection», 68. or.

³ LANDA GOROSTIZA, *Los delitos de odio, passim*.

⁴ BARNE ARAZOETAKO MINISTERIOA, «Informe sobre la evaluación», 13. or.

HATE CRIME STATISTICS	ERTZAINZA	ZIGOR KODEA (1995)
SINGLE-BIAS INCIDENTS		
RACE / ETHNICITY / ANCESTRY	ARRAZAKERIA ETA XENOFOBIA	ARRAZOI ARRAZISTAK: ETNIA, ARRAZA, NAZIOA, JATORRI NAZIONALA
Anti-White	Zuria	
Anti-Black or African American	Beltza	
Anti-American Indian or Alaska Native		
Anti-Asian	Asiarra	
Anti-Native Hawaiian or Other Pacific Islander		
Anti-Multiple Races, Group		
Anti-Arab	Arabiarra	
Anti-Hispanic or Latino		
Anti-Other Race/Ethnicity/Ancstry	Arraza/Etnia (zehaztu gabe)	
	Ijitoa	

RELIGION	ERLIJIOA	ERLIJIOA EDO SINESMENAK
Anti-Jewish		
Anti-Catholic		
Anti-Protestant		
Anti-Islamic (Muslim)	Islamofobia	
Anti-Other Religion	Beste erlijio batzuk	
Anti-Multiple Religions, Group		
Anti-Mormon		
Anti-Jehovah's Witness		
Anti-Eastern Orthodox (Russian, Greek, Other)		
Anti-Other Christian	Kristauen aurkakoa	
Anti-Buddhist		
Anti-Hindu		
Anti-Sikh		
Anti-Atheism/Agnosticism/etc.		

SEXUAL ORIENTATION	SEXU-ORIENTAZIOA / -IDENTITATEA	SEXU-ORIENTAZIOA EDO -IDENTITATEA
Anti-Gay (Male)		
Anti-Lesbian		
Anti-Lesbian, Gay, Bisexual or Transgender (Mixed Group)		
Anti-Heterosexual		
Anti-Bisexual		

DISABILITY	DESGAITASUNA ETA GAIXOTASUNA	GAIXOTASUNA EDO DESGAITASUNA
Anti-Physical		
Anti-Mental		

GENDER IDENTITY		GENERO-ARRAZOIAK
Anti-Transgender		
Anti-Gender Non-Conforming		

	SEXUA <i>*Gaur egun jasotzen ez den markatzailea</i>	SEXUA

	ANTISEMITISMOA	ARRAZOI ANTISEMITAK

	JOERA POLITIKOA, IDEOLOGIA	IDEOLOGIA

	POBREZIA ETA APOROFOBIA	

	ADINA <i>*Oraindik ez da operatiboa.</i>	

		FAMILIA-EGOERA
MULTIPLE-BIAS INCIDENTS		

Azkenik, jaso diren gorroto-gertakariak zenbatzeko garaian, garrantzitsua da zehaztea Ertzaintzak kasu zehatz batean gehienez ere aldi berean bi markatzaile gertatzeko aukera baliatzen duela soilik (adibidez, homosexuala eta desgaitasun edo aniztasun funtzionala duen norbait). FBIk, aldiz, ez du jartzen muga kuantitatiborik, baina kualitatiboak jartzen ditu; izan ere, ez du zehazten zer motibazio zehatz gertatzen diren aurreiritzi anizkunagatiko gertakarien kasuetan. Etorkizunean bi estandarrak gainditzeko asmoa du txostenak. Biktima batek babestutako ezaugarri bat baino gehiago agertzen baditu, hura biktimizatzeke probabilitatea ere handitzen da; izan ere, areagotu egiten da aurreiritzi baten baino gehiagoren aurrean duen ikusgaitasuna eta esposizio publikoa. Hau da, biktimarentzat zailagoa da gizartean nahastea, eta horrek kalteberago bihurtzen du. Zalantzarik gabe, asko dago hobetzeko interseksionalitatearen auzian eta uneotan ezin zaio bere hedadura osoan heldu, txostenak berez dituen mugak direla eta.

Halaber, ongi dakigu ezen, poliziaren ikuspegitik, zenbat eta handiagoa izan babestutako kategorien kopurua, orduan eta zailagoa dela horiek behar bezala identifikatzea. Kolektiboak hedatzeak biktimen konfiantza eta haiekiko lankidetzaren mailak beheratu ditzake; izan ere, batzuei iruditu dakieke ez dela behar bezala kontuan hartzen haiei eragiten dien gertakaria. Hala ere, gorroto-gertakarietan, biktimaren aldeko eta ukitutako kolektiboen babeseko ikuspegitik egingo dugu hurbilketa; beraz, poliziaren instantziak hauteman eta monitorizatu egin behar du komunitate jakin batzuetan agertzen den gorroto edo etsaikeria. Ezinbestekoa da biktimarekin elkarlanean jardutea eta, horretarako, giza eskubideak erabili eta baliatzea lehenetsiko eta maximizatuko duen diseinu operatiboak egon behar du arreta-foku nagusiaren ardatz-gunean. Hortaz, ikus daiteke kasu honetan ez dela babestutako kategorien zerrenda itxi-zurruna nagusitu; aitzitik, EAEn hautemandako talde kaltebera guztien babesaren barne hartzea da bokazioa. Era berean, aurreiritzi-eredu historikoetan ere adierazten da kalteberatasun hori, eta, egunerokoan eskala txikian gauzatzen badira ere (adibidez, mikro-matxismoak), guztiak metaturik eta mendetako menderaldiaren testuinguruan hartzen badira aintzat, eragin nabarmena dute biktimaren eta komunitatearen beraren gainean.

1.2.2. Kategorien proposamena: azalpen orokorra

I. BLOKEA
KOLEKTIBO ETKNIKOA / KOLEKTIBO ARRAZISTA ETA XENOFOBOA
I. TALDEA ARRAZA / ETNIA EDO «IZAERA ETNIKOA» (JATORRIA, IDENTITATEA EDO TALDE ETNIKOA) / NAZIONALITATEA
<i>Arabiarra</i>
<i>Asiarra</i>
<i>Beltza</i>
<i>Zuria</i>
<i>Latinoa</i>
<i>Beste arraza / jatorri etniko bat</i>
<i>Ijitoa</i>
<i>Nazioa edo jatorri nazionala</i>

Txosten honetarako, *Hate Crime Statistics Act* (HCSA) legean erabilitako «*ethnicity*» terminoa «etnia» gisa edo «etnizitate» gisa itzuliko da aurreratzean; nolahi ere, elementu hauetako batekin identifikatuko da: «jatorri etnikoa», «identitate» edo «talde etnikoa»⁵. Dena dela, FBIk *Hate Crime Data Collection Guidelines and Training Manual* (2015) eskuliburua jarri du ulermena errazteko, eta bertan definizio operatiboak jaso dira gorrotoan oinarritutako gertakariak biltzeko.

Arrazazko aurreiritziari dagokionez, honela definitzen da: «giza talde baten aurkako iritzia edo jarrera izatea aldez aurretik, ondorengotzaz edo herentziaz jasotako ezaugarri fisiko komunak izateagatik –adibidez, azalaren, begien eta/edo ilearen kolorea, aurpegiera, eta abar–, ezaugarriok talde hori gizatasunaren atal desberdintzat bereizten dituelakoan: adibidez, asiarrak, beltzak edo afroamerikarrak, zuriak»⁶. Aurreiritzi etnikoari dagokionez, honako hau dela ulertzen da: «herentzia beraren bitartez elkarrekin identifikatzen den giza talde baten aurkako iritzi edo jarrera izatea aldez aurretik. Askotan, hizkuntza bera, kultura bera (batzuetan erlijio bera ere) eta/edo jatorri bera azpimarratzen duen ideologia bat izateak osatzen du herentzia hori. Lotura hertsia izan arren, desberdinak dira etnia eta arraza kontzeptuak; izan ere, azken hori irizpide biologikoetan

⁵ Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioarekin batera argitaratutako lan batean, definizio honekin lotzen dira lotzen dira «*ethnicity*» eta «izaera etniko» terminoak: «(...) norbaiten identitate kultural eta historikoaren zentzu berezia, jaiotzaz (eta batzuetan, ezkontzaz) talde etniko jakin bateko kide izatea oinarri». DADZIE, *Herramientas contra el racismo en las aulas*, 109. or.

⁶ “**Racial Bias**—A preformed negative opinion or attitude toward a group of persons who possess common physical characteristics, e.g., color of skin, eyes, and/or hair, facial features, etc., genetically transmitted by descent and heredity which distinguish them as a distinct division of humankind, e.g., Asians, Blacks or African Americans, whites” [testuko itzulpena geuk egin dugu]. LAW ENFORCEMENT SUPPORT SECTION (LESS); CRIME STATISTICS MANAGEMENT UNIT (CSMU), «Hate crime data collection», 11. or.

oinarritutako taldeei buruzkoa da; aldiz, “etniak” kulturaren arloko faktore gehigarri batzuk ere hartzen ditu barne»⁷. Azkenik, jatorriarekin lotutako aurreiritzia «etnikoaren azpikategoria bat» da; hau da, «giza talde baten aurkako iritzia edo jarrera izatea, aurrez, haien leinua edo etorkia harturik oinarri»⁸. «Arraza» terminoari dagokionez, badakigu ez duela oinarri zientifikorik, baina hori erabiltzen da herritarren artean hedatuena delako. Era berean, nolana ere eraikuntza sozial bat da aipamen hori, eta beraz, praktikoa da datuak biltzeko garaian⁹.

Bestalde, *Hate Crime Data Collection Guidelines and Training Manual* (2015) eskuliburuan gehiago garatu dira arestian definitutako aurreiritzi arrazial eta etnikoen ondorioz babestuta dauden giza talde bereziak. Alderdi horretan, azpikategoria hauek zehazten dira:

⁷ “**Ethnicity Bias**—A preformed negative opinion or attitude toward a group of people whose members identify with each other, through a common heritage, often consisting of a common language, common culture (often including a shared religion) and/or ideology that stresses common ancestry. The concept of ethnicity differs from the closely related term *race* in that “race” refers to grouping based mostly upon biological criteria, while “ethnicity” also encompasses additional cultural factors” [testuko itzulpena geuk egin dugu]. LAW ENFORCEMENT SUPPORT SECTION (LESS); CRIME STATISTICS MANAGEMENT UNIT (CSMU), «Hate crime data collection», 11. or.

⁸ “**Ancestry Bias**—A preformed negative opinion or attitude toward a group of people based on their common lineage or descent” [testuko itzulpena geuk egin dugu]. LAW ENFORCEMENT SUPPORT SECTION (LESS); CRIME STATISTICS MANAGEMENT UNIT (CSMU), «Hate crime data collection», 11. or.

⁹ Gainera, praktikotasunetik harago doaz txosten honetan, «arrazakeria» edo «xenofobia» ordez, kategoria zehatz gisa «arraza» erabiltzeko arrazoiak. Arrazakeria eta xenofobia elkarrekin lotuta daude, baina horien azpian arraza datza. Arraza hitzarekin herentziatzeko ezaugarri fisiko komunak dituen giza talde naturalari egiten badiogu erreferentzia, orduan, arrazakeria ez da gainjartze logiko baten bidez soilik eraten, faktore fenotipiko horiek soilik kontuan hartuz. Mutazioen bat izan da, eta ondorioz, arrazakeria berriari edo arrazakeria sotilari buruz hitz egin behar dugu. Beraz, arrazakerian ez dira arraza taldeak (arrazakeria, adiera hertsienean) soilik sartzen: barne hartzen ditu etnia eta kulturak ere. Irekitasunaren aldeko ildo horretan, interesgarriak diren beste batzuekin batera, nabarmengarria da ECRIn 2002ko abenduaren 13ko Politika Orokorrean jasotako 7. gomendioa. Honela definitzen du arrazakeria «(...) *arraza, sexua, kolorea, hizkuntza, erlijioa, nazionalitatea edo jatorri nazional nahiz etnikoa direla-eta norbaiten edo norbaitzueganako mespretxua justifikatu daitekeelako ustea*». Beraz, ondoriozta daiteke arrazakeriak hertsiki arrazazkoa –hau da, fenotipikoa– dena gainditzen duela, eta, ezinbestean ez bada ere, hurbileko beste errealitate batzuetan ere bermatzen dela orobat. Eta, arrazakeriaren zeharkakotasuna alde batera utzita ere, gauza jakina da taldearteko nagusitasunarekin edo gutxiegitasunarekin lotzen dela; hau da, beste talde bat mendean hartzeko eskubidearen ustekizuna dakar. Alderdi horretan, egiturazko tasunarekin lotuta dago arrazakeria kontzeptua. Aldiz, esan dezakegu arraza terminoak ez duela horrenbesteko kutsua eta ez dakarrela ez nagusitasun ez gutxiegitasun ideiarik gogora; aitzitik, sailkatzera mugatzen da eta horrenbestez, esku artean dugun txostenerako datuak kudeatzeko beharrezko den eraginkortasuna ematen digu. Laburbilduz, AGUILAR GARCÍA-k ondorioztatu bezala, «arrazakeria, nahiz banakoarena, nahiz instituzionala, sinesmen eta jarrera diskriminatzaileak izatea da, talde bat berez besteak baino gehiago delako ustearen ondorioz». Gehiago sakondu nahi izanez gero, ikus AGUILAR GARCÍA, «Manual práctico para la investigación», 44-48. or.

Aldi berean, ezin dira xenofobia eta arrazakeria nahastu; izan ere, bata arbuiozko sentimendu bat da, nagusitasun ideologia bat baino gehiago. Are gehiago, xenofobia arrotz denaren aurka bideratzen da, dela erreal, dela hautemandakoa (ez ordea arrazakeria). Ezezagun denaren aurkako beldurra, nazka, gorrotoa, etsaitasuna edo arbuioa da –eskuarki, funtsik gabea eta eraikuntza sozial baten ondoriozkoa–. Hau da, atzerriko eragileak dakarren kultur ondarearen kontrakoa (kultura, tradizioak, balioak, eta abar). AGUILAR GARCÍA, «Manual práctico para la investigación», 48. or.

- **Arabiarra** da «jatorriz eta/edo etorkiz, herrialde hauetako arabierako hiztunen ondorengo den norbait: Libano, Siria, Palestina, Jordania, Irak, Saudi Arabia, Yemen, Oman, Arabiar Emirerri Batuak, Qatar, Bahrein, Kuwait, Egipto, Libia, Tunisia, Komoreak, Aljeria, Maroko, Sudan, Djibuti, Mauritania eta Somalia»¹⁰.
- **Asiarra** da «jatorriz Ekialde Urrunetik, Hego-ekialdeko Asiatik edo Indiako azpikontinentetik –besteak beste, Kanbodia, Txina, India, Japonia, Korea, Malaysia, Pakistan, Filipinak, Thailandia eta Vietnam– datorren norbaiten ondorengo»¹¹.
- **Beltza** da «jatorria Afrikako arraza talde beltzetako edozeinetan duen norbait»¹².
- **Zuria** da «Europako, Ekialde Hurbileko edo Iparraldeko Afrikako jatorrizko jendeetatik datorren edonor»¹³.
- **Latinoa** da «jatorri edo kultura kubatarra, mexikarra, puertorricarra, hegoamerikarra nahiz erdialdeko amerikarra duen edonor, edo beste jatorri edo kultura espainiarra duena, edozein arrazakoa izanik ere (...)»¹⁴. Badakigu FBIrengandik jasotako definizio partzial horrek kutsu amerikar nabarmena duela; nolana ere, badirudi argi dagoela euskal herritarren iruditeria kolektiboan Latinoamerikarekin zerikusia duen edozerekin lotzen dela kategoria hau.

¹⁰ “**Arab**—A person having origins, and/or ancestry, in any of the Arabic speaking peoples of Lebanon, Syria, Palestine, Jordan, Iraq, Saudi Arabia, Yemen, Oman, United Arab Emirates, Qatar, Bahrain, Kuwait, Egypt, Libya, Tunisia, Comoros, Algeria, Morocco, Sudan, Djibouti, Mauritania, and Somalia” [testuko itzulpena geuk egin dugu]. LAW ENFORCEMENT SUPPORT SECTION (LESS); CRIME STATISTICS MANAGEMENT UNIT (CSMU), «Hate crime data collection», 12. or.

¹¹ “**Asian**—A person having origins in any of the original peoples of the Far East, Southeast Asia, or the Indian subcontinent including, for example, Cambodia, China, India, Japan, Korea, Malaysia, Pakistan, the Philippine Islands, Thailand, and Vietnam” [testuko itzulpena geuk egin dugu]. LAW ENFORCEMENT SUPPORT SECTION (LESS); CRIME STATISTICS MANAGEMENT UNIT (CSMU), «Hate crime data collection», 12. or.

¹² “**Black (...)**—A person having origins in any of the Black racial groups of Africa” [testuko itzulpena geuk egin dugu]. LAW ENFORCEMENT SUPPORT SECTION (LESS); CRIME STATISTICS MANAGEMENT UNIT (CSMU), «Hate crime data collection», 12. or.

¹³ “**White**—A person having origins in any of the original peoples of Europe, the Middle East, or North Africa” [testuko itzulpena geuk egin dugu]. LAW ENFORCEMENT SUPPORT SECTION (LESS); CRIME STATISTICS MANAGEMENT UNIT (CSMU), «Hate crime data collection», 13. or.

¹⁴ “**Hispanic or Latino**—A person of Cuban, Mexican, Puerto Rican, South or Central American, or other Spanish culture or origin, regardless of race. Includes people from Hispanic or Latino groups (...)” [testuko itzulpena geuk egin dugu]. LAW ENFORCEMENT SUPPORT SECTION (LESS); CRIME STATISTICS MANAGEMENT UNIT (CSMU), «Hate crime data collection», 12. or.

- *Beste arraza / jatorri etniko batekoa* da «bestelako arraza/etnia duen edonor, bat egindako kategoria honetan sartzen dena»¹⁵.

Gainera, HCSAn arraza, etnia eta etorki terminoetatik adarkatzen diren kategoria eta azpikategoria zehatzak bat datoz, erabat, Estatu Batuetako Errolda Bulegoak (*US Census Bureau*, Estatu Batuetako Merkataritza Sailaren barruan) kudeatzen eta argitaratzen dituen agirietan erabiltzen den terminologiarekin. Hain zuzen ere, GARNERek, Estatu Batuetako estatistika-erroldari erreferentzia eginez, adierazten du gobernuko agentzia horrek jasotako kategoria orokorren definizioak geografikoak direla batez ere, direla eremuka, direla herrialde zehatzen arabera. Eta jatorriko herrialdeari buruzko erreferentzia, pertsona batzuen genealogietan, hainbat belaunaldiz egingo du atzera. Hala, bada, arrazatik abiatuta eraikitzen da izaera etnikoa, aurrez arrazializatutako talde barruan zenbait aldagai (erlijioa, hizkuntza-bereizkuntzak, eta abar) uztartuz ateratzen den emaitzan. Horiek horrela, aurreiritzi etnikoak berekin dakar kulturaren osagaiaren eta hartatik bereizten diren aldagai guztien balioa gutxitzea. Laburbilduz, arrazarekin batera bizi den eraikuntza bat da etnia, eta aldi berean jarduten du, azpiko plano batean¹⁶. Azken baieztapen horretan badago zer zehaztu; izan ere, AGUILAR GARCÍAak adierazitakoaren arabera, talde batzuk besteengandik desberdintzen dituzten ageriko ezaugarri fisikoak talde etniko jakin baten osagai izan daitezke edo ez¹⁷.

Laburbilduz, HCSAk erabiltzen duen metodologiaren oinarrian, gorroto-gertakariaren egileak adierazle nagusi gisa erabiltzen dituen ezaugarri fenotipikoak hartu, eta jatorri geografiko zehatz erreal edo ustezko batekin lotzen da biktima bera, edo biktima bere arbasoetako batekin erlazioan. Kulturaren osagaiak, ondoren, antzemateko moduan zatikatzen du biktimaren jatorria (hainbat aldagairi balioa emanez: besteak beste, erlijioa, hizkuntza, ideologia, janzkera, usadioak, bizimoduak, eta abar). Hala gertatzen bada, jatorri etnikoaren arabera aurreiritzi batez ari gara. FBIk ongi jaso bezala, erredundantea eta baztergarria da arraza eta etniarekin batera «etorki» hitza erabiltzea.

Gainera, ezin da alde batera utzi Zigor Kodeak bai 22.4 artikuluko zioen zerrendan bai 510. artikulukoan jasotzen duela «*nazio*» markatzailea. Orobat, Kode Penalaren 510. artikuluko aipamena egiten dio «*jatorri nazional*» terminoari ere. Dena dela, ondoriozta liteke bi terminoek

¹⁵ “**Other Race/Ethnicity/Ancestry**—A person of a different race/ethnicity/ancestry than is otherwise included in this combined category” [testuko itzulpena geuk egin dugu]. LAW ENFORCEMENT SUPPORT SECTION (LESS); CRIME STATISTICS MANAGEMENT UNIT (CSMU), «Hate crime data collection», 12. or.

¹⁶ GARNER, *Racisms*, 44, 53 eta 63. or.

¹⁷ AGUILAR GARCÍA, «Manual práctico para la investigación», 48 eta 49. or.

biktimaren nazionalitateari egiten diotela erreferentzia¹⁸. Ikusmolde horri jarraikiz, ROIG TORRESEK honako hau nabarmentzen du: «jatorri nazional terminoa sartuta, bai uneko nazionalitatearen bai jaiotzakoaren ondoriozko diskriminazioa har daiteke barne»¹⁹. Hala ere, badakigu puntu horretan ez datozela bat zenbait doktrina; izan ere, egile batzuek –besteak beste, DIAZ ETA GARCÍA CONLLEDOk– adierazitakoaren arabera: «jatorri nazionala eta nazionalitatea ez dira gauza bera eta, hortaz, subjektu batek, nazionalitatea aldatuta ere, diskriminazioa jasan dezake bere jatorri nazionalarengatik (lotzen zaion nazionalitatea galdu badu ere)»²⁰.

Hala ere, DÍAZ LÓPEZi jarraikiz, interpretazioarekin lotuta dago puntu horretan eztabaida sortzen duen auzia: «(...) zentzu normatiboagoan ulertu behar da hori? (adibidez, gobernu berak zuzendutako estatu batekoa dela, esaterako, “Andorrako naziokoa”) edo kulturalagoan (jatorri berekoa dela, hizkuntza bera eta tradizio komuna duela, “Kataluniako naziokoa”)[?]. Egilearen ustez, lehenbiziko hipotesia onartzea litzateke zuzena, nazio kulturalari erreferentzia egitea erredundantea izango litzatekeelako eta edukiz hutsa geratuko litzatekeelako, aurrez etnia kontuan hartu delako. Bestalde, Espainiako Konstituzioaren 2. artikulua²¹ maila berean jasotzen ditu «nazionalitateak eta eskualdeak» eta, beraz, diskriminazio bidegabe eta arrazoirik gabea izango litzateke lehenengoei nolabaiteko nagusitasuna ematea, bigarrenen gainean. Dena dela, ideia hau da tesiaren ondorioa: «(...) ideologiaren edo etniaren bidetik, Espainiako Konstituzioaren 22.4 artikulua aplika daiteke autonomiako nazionalitateekin lotutako gorroto-kasuetan»²². Korrante horretan kokatzen da AGUILAR GARCIA ere; izan ere, ziurtatzen du «(...) hemen [nazioa edo jatorri nazionala kategoria gisa aipatzen ditugunean] nazio bakarrak axola du: nazioa zentzu juridiko-konstituzionalean, Konstituzio Auzitegiak 2010eko ekainaren 28ko 31/2010 epaian adierazi bezala»²³.

«Ijitoen» etniari dagokionez, Ertzaintzak orain arte eman dion presentzia autonomoari eutsiko zaio halaber; izan ere, komenigarria da hori euskal gizartearen errealitatea kontuan hartuta.

¹⁸ AGUILAR GARCÍA, «Manual práctico para la investigación»«, 56. or.

¹⁹ ROIG TORRES, «Los delitos de racismo y discriminación», 1264. or.

²⁰ DÍAZ Y GARCÍA CONLLEDO, *Protección y expulsión*, 323-324. or.

²¹ EK, 2. art.: «Konstituzioa Espainiako nazioaren batasun zatiezinean oinarritzen da, hura baita espainiar guztien aberri komun eta banaezina; Konstituzioak aitortu eta bermatu egiten du Espainia osatzen duten nazionalitate eta herrialdeen autonomia-eskubidea, bai eta horien guztien arteko elkartasuna ere».

²² DÍAZ LÓPEZ, *El odio discriminatorio*, 295-298. or.

²³ AGUILAR GARCÍA, «Manual práctico para la investigación», 56. or.

Horregatik, nahikoa izango da norbaitek ijitoen komunitatearen ezaugarri kultural berezko eta markatuekin loturaren bat izatea, gorroto-gertakari gisa sailkatzea azter dadin. GARNERen arabera, talde nomaden historia (eta horien artean sartzen dira, besteak beste, ijitoak), jatorriak, kultura-berezitasunak eta ezaugarri komunak bereziki garrantzitsuak dira talde horientzat; izan ere, erakunde boteretsuago batzuek –adibidez, estatuak eta komunikabideek– haiei buruz eraikitako irudien aurka borrokatu behar dute²⁴. Beste definiziorik ezean, ECRik bere Politika Orokorreko 13. gomendioan (2011ko ekainaren 24koa) antigitanismoaren eta erromanien/ijitoen aurkako diskriminazioen kontrako borrokatari buruz adierazitakoa jaso dugu jarraian: «(...) arrazakeria mota espezifikoa bat, arrazaren nagusitasunean oinarritutako ideologia bat, diskriminazio historikoak bultzatutako gizagabetze eta arrazakeria instituzional mota bat, besteak beste honako adierazpen hauek dituenak: indarkeria, beldurraren diskurtsoa, eta esplotazio eta diskriminaziorik agerikoenak».

I. BLOKEA
KOLEKTIBO ETKNIKOA / KOLEKTIBO ARRAZISTA ETA XENOFOBOA
II. TALDEA IDEOLOGIA ETA JOERA POLITIKOA

Joera politikoa bereizketa politikotzat uler daiteke eta, zenbait herrialdetan, testuinguru historikoak haren babesa justifikatzen du. Hein batean gure egingo dugu Espainiako Gorroto Delituekin lotutako Gertakarien Bilakaeraren gaineko Txostenak erabilitako definizioa; hau da, ideologiarekin lotutako gorroto-gertakari bat da pertsona edo kolektibo batzuen aurka egitea, gizarteko sektore batek politikari, zientziari, ekonomiari, kulturari eta moralari buruz dituen oinarritzko ideiak direla eta²⁵. Nolanahi ere den, logikoa eta gomendagarria dirudi ideologiaren adiera mugatzea, gorroto politikoa soilik egin diezaion erreferentzia; hala, jainkotasunari buruzko dogma edo doktrinei buruz hitz egiteko gordeko dugu «erlijio eta sinesmen»ei buruzko etiketa (III. taldea). Ildo horretan doa DÍAZ LÓPEZ, zera iruditzen baitzaio: «(...) “motibazio ideologikoan” (...) sartzen dira, ulertzen denaren arabera, egileak Espainiako estatuaren antolamendu politiko jakin baten aldekoa denez biktimak alderdi horretan bestelako ustea duelako egiten dituen delituak»²⁶.

²⁴ GARNER, *Racisms*, 57. or.

²⁵ BARNE ARAZOETAKO MINISTERIOA, «Informe sobre la evaluación», 64. or.

²⁶ DÍAZ LÓPEZ, *El odio discriminatorio*, 289. or.

Baina, interesatzen zaigun honetan, aurreko hori harturik oinarri, egile horrek azalpen bat ematen du ideologia politikoaren eta izaera etnikoaren nahasbide izan daitezkeen kasuen orientazioari buruz. Hortaz, adibidez, gorroto-deliturik egiten bada euskal herritar baten aurka, hain zuzen ere, euskalduna izateagatik, orduan, bi tratamendu juridiko ditugu aukeran:

1. Balizko kasua «ideologia eta joera politikoa»ren multzoan sartuko da (II. taldea), baldin eta delitu-egintzaren oinarrian «(...) *polisaren* antolamenduarekin lotutako usteak badaude: esaterako, Espainiako gaur egungo Estatu monarkia parlamentario gisa mantentzea, edo Estatu totalitario batean eraldatzea, Errepublika federal bihurtzea, desegin eta beste Estatu independente batzuk sortzea, edo antolamendu politikoko beste edozein modu». Laburbilduz, egilearen aurreiritziaren baitan eta jatorrian dagoen emozioa «(...) “nazionalismo independentista” / “nazionalismo espainolista” dikotomiaren ondorioz» sortu denean²⁷.
2. Aldiz, balizko kasua «Beste arraza / jatorri etniko bat» multzoan sartuko da (I. taldean sartutako markatzailea), adibidez, biktimarenganako gorroto-emozioaren jatorria bada, esate baterako, «euskaraz hitz egiten ari zela (eta horrek euskal herritar gisa identifikatzen du)»²⁸. Hala, alderdi batzuek etniarekin lotutako oldar diskriminatzaileei bide ematen diete: adibidez, hizkuntza bera izateak, edo gutxiengo nazional bati bere identitate eta kidetza sentimendu partekatua, *ad intra* nahiz *ad extra*, finkatzeko modua ematen dion beste edozein ezaugarri kultural komun izateak.

Errezelo handiagoak daude Estatuari edo Gobernuari babes emateko, hau da, babes instituzionala (adib., poliziarri), gorroto-gertakarien bidez. Aukera tentagarria da, eta gizarteko inguru batzuetan bultzatu egiten da, baina ez dator bat giza eskubideen estandarren azpian datzan babes esparru orokorrarekin. Hau da, talde batzuen giza eskubideak babestea da kontua, ez estatua. Hala ere, horrek ez du esan nahi auzitan jartzen direnik indarrean dauden babes bitarteko indartu eta instituzionalak; besteak beste, agintaritzaren aurkako atentatuaren kasua. Laburbilduz, edozein polizia-agente izan daiteke gorroto-delituen biktima (adib., arraza edo sexu-orientazioa direla eta), beste edonor bezalaxe, baina argi dago ez dela beharrezkoa izango babes hori zigor bidetik indartzea, kategoria autonomo bat eratuz, edo zehatzago, hizpide dugun kategoria ideologikoaren

²⁷ DÍAZ LÓPEZ, *El odio discriminatorio*, 289-290. or.

²⁸ DÍAZ LÓPEZ, *El odio discriminatorio*, 290. or.

interpretazioaren bidetik, segurtasun-indar eta -kidegoetako erakunde-ordezkarari izateagatik eraso egiten badiote²⁹.

I. BLOKEA
KOLEKTIBO ETKNIKOA / KOLEKTIBO ARRAZISTA ETA XENOFOBOA
III. TALDEA ERLIJIOA ETA SINESMENAK
<i>Islamiarra (musulmana)</i>
<i>Kristaua</i>
<i>Beste erlijio batzuk</i>
<i>Ateoa edo agnostikoa</i>
<i>Antisemitismoa</i>

Hate Crime Data Collection Guidelines and Training Manual (2015) eskuliburuak honela definitzen du erlijiozko aurreiritzia: «Unibertsoaren jatorriari eta xedeari, eta izaki goren bat existitzeari edo ez existitzeari buruzko erlijio-sinesmen berak dituen giza talde baten aurkako iritzi edo jarrera izatea aldeaz aurretik: adibidez, katolikoan, judutarren, protestanteen edo atoen aurka»³⁰. Hala ere, kontuan hartuta Euskadiko erlijio-aniztasuna, ez da gomendatzen FBIk ondoren ematen dituen markatzaileak erabiltzea. Dena dela, markatzaile batzuetan FBIrekin bat dator Ertzaintza, baina beste batzuk *ex novo* jaso litezke edo, besterik gabe, idazketa egokitu liteke.

- Ertzaintzak jasotako islamofobia neologismoaren kasuan, zehazki, mugitzen garen alorrean oso eztabaidatua izan da horren erabilera; izan ere, terminoa gutxiago edo gehiago murrizten duten iritzi akademikoak daude. Hain zuzen, arrazakeria berri edo arrazakeria kultural delakoaren baliokidetzat har liteke; horrela, erlijio islamiko edo musulman soilaren aurkako intolerantzia ez ezik, aditzera ematen dugu dimentsio hori baino handiagoak diren alderdi kultural eta gaindiezinen aurkako intolerantzia ere³¹. Halakoek etnizitatearen

²⁹ LANDA GOROSTIZA, *Los delitos de odio*, 100. or. eta hurrengoak.

³⁰ “**Religious Bias**—A preformed negative opinion or attitude toward a group of persons who share the same religious beliefs regarding the origin and purpose of the universe and the existence or nonexistence of a supreme being, e.g., Catholics, Jews, Protestants, atheists”. [testuko itzulpena geuk egin dugu]. LAW ENFORCEMENT SUPPORT SECTION (LESS); CRIME STATISTICS MANAGEMENT UNIT (CSMU), «Hate crime data collection», 13. or.

³¹ GARNER, *Racisms*, 246. or.

Izan ere, AGUILAR GARCÍA-k jasotako Intolerantziaren aurkako Mugimenduaren aipuaren arabera, «(...) [islamofobia] kontzeptua desegoki erabiltzen da islamari egin dakioken kritika zilegizkoa –batez ere, askatasun zibilei eta giza eskubideei dagokienez– belztu eta isilarazteko. Zibilizazioen arteko talkaren “hipotesi” arriskutsu eta ezagunaren muina islamofobiak elikatzen du». Hain zuzen ere, islamofobia terminoak sortzen duen deserosotasuna dela eta, nazioarteko eta gobernuarteko erakunde batzuek, adibidez, ESLEk, «musulmanen aurkako intolerantzia eta diskriminazioa» erabiltzen dute, zehazkiago. Hala ere, honako hau azpimarratzen da ESLEk, Europako Kontseiluak eta Unescok elkarrekin egindako lan batean: «(...) gogoan hartu behar da musulmanen aurkako intolerantziak eta

multzoan sartzen dute islamofobiaren markatzailea eta, beraz, ez datoz bat bildutako beste markatzaile batzuekin.

FBiren erabilera terminologikoan, erlijioarekin lotutako motibaziotik hurbilago dagoela ematen da ulertzer. Hala, «islamiarra (musulmana) da musulmanen erlijio monoteistari jarraitzen dion pertsona; hau da, besteak beste, jainko bakarra Ala eta haren profeta Mahoma dela sinesten duena. Fede islamikoaren praktikatzaileek Koranaren irakaskuntzei jarraitzen diete eta islamaren bost oinarriak betetzen dituzte: otoitza, ramadan garaiko baraua, limosna, erromesaldia eta fede-aitormena»³².

Dena dela, etorkizunean musulmanen aurkako gorroto-delitua sartzeko aukera azter daiteke, baina ez orain hizpide ditugun erlijiozko markatzaileen artean, beste talde egokiago batean baizik. Izan ere, badirudi, islamaren aurkako gorrotoa edo beldurra baino gehiago, segurtasunerako mehatxu diren usteak eragiten dituela musulmanen aurkako eraso asko³³.

- Ertzaintzaren datu-basean jasotako «antikristau» markatzailearen ordez, FBIk bereiz sailkatzen ditu kristau-fedearen hiru adar nagusiak: katolikoa, protestantea eta ortodoxoa. Gainera, «beste kristauen aurkako» izeneko beste kategoria bat ere zehazten du, saski-naski gisa.

EAEn, Ertzaintzak apenas jaso duen kristau izate hutsagatik gorroto-gertakarien xede izan den kristauren kasurik; beraz, gomendagarria da arestiko markatzaile horiek «kristau» formula bateratuan biltzea. Horrela, Jesukristoren bizitzan eta irakaskuntzetan oinarritutako erlijioei jarraitzen dien edonori egiten zaio erreferentzia. Beraz, halako gorroto-gertakari batek barne hartzen du kristauen, kristau-erlijioaren nahiz kristautasunaren praktikaren aurkako guztia (kristauen eta haien sinesmenaren adierazten duten irudien aurkako atentatu oro)³⁴.

diskriminazioak lotura hertsia duela beste diskriminazio mota batzuekin eta aldi berean egon daitezkeela immigrazioaren arbuiozko, xenofobia- eta arrazakeria-sentimenduak, edo generoan oinarritutako aurreiritziak ere. Zenbaiten jasaten dituen diskriminazio-moduak ugaritu ditzake horrek guztiak». AGUILAR GARCÍA, «Manual práctico para la investigación», 54-55. or.

³² **“Islamic (Muslim)**—A person who follows the monotheistic religion of Muslims, which includes belief in Allah as the sole deity and in Muhammad as his prophet. Practitioners of the Islamic faith follow the teachings of the Koran and practice the Five Pillars of Islam: praying, fasting during Ramadan, almsgiving, pilgrimage, and declaration of faith” [testuko itzulpena geuk egin dugu]. LAW ENFORCEMENT SUPPORT SECTION (LESS); CRIME STATISTICS MANAGEMENT UNIT (CSMU), «Hate crime data collection», 14. or.

³³ GITHENS-MAZER; LAMBERT MBE, «Islamophobia and anti-muslim», 17. or.

³⁴ ANDREU ARNALTE, «Conceptos generales», 13. or.

- Gainera, bai FBIk bai Ertzaintzak jasotako «beste erlijio batzuk» kategorian, une jakin batean ager litezken beste aukera batzuk sar daitezke, hala behar izanez gero. Hau da, aurrez jaso gabeko beste erlijio batzuei jarraitzen dien norbaiti buruz hitz egiteko.
- FBIk jasotako beste kategorია bat antiatео edo antiagnostikoa da. Lehenengoak «jainkoaren existentzian sinesten ez duen norbait» deskribatzen du³⁵; bigarrenak, aldiz, «azken errealitate baten, adibidez, jainko baten, existentzia edo izaera ezezaguna eta, ziurrenik, inoiz ezagutu ezinekoa, dela uste duen norbait»³⁶. Bi markatzaile horiek sartzea justifikatuta dago; izan ere, «beste erlijio batzuk» erreferentzian sartu ezineko balizko fenomenologia osoa barne har daiteke horrela. Beraz, markatzaile bakarrean bildu dira «ateoak eta agnostikoak».

Azkenik, gaur egun judu izendapenarekin identifikatzen direnen artean sartzen dira, bai judaismoaren fededunak, bai munduko edonongo judu taldeetan arbasoak dituztenak. FBIk erlijioari buruzko markatzaileen artean sartzen du HCSAko *jewish* kategoria; aldiz, *Hate Crime Data Collection Guidelines and Training Manual* (2015) eskuliburuak *jewish (judaism)* aipatzen du. Azken dokumentu horretan, zehazten da judu dela «bere burua antzinako hebrearren leinuko erlijio eta/edo etnia taldeko kideztat hartzen duen edonor. Abraham, Moises eta hebrear profeten aurrean agertu zen Jainko transzendente batenganako fedea da talde horren bereizgarria. Juduen erlijio-praktika hebrear Biblian (Tora) oinarritzen da, baita errabinoen lege eta usadioetan ere»³⁷. Ertzaintzak zuzenean kategoria bereiz gisa jasotzen du antisemitsimoa, eta egokia dirudi hala jokatzea, konplexua baita kolektibo horren sailkapena argi eta eztaba daezina egitea. Bereizkuntza hori azaltzen du, halaber, Europako esperientzia nazionalsozialistaren eta haren izaera nabariki antisemitaren marka ezabaezinak.

³⁵ “**Atheist**—A person who does not believe in the existence of a deity” [testuko itzulpena geuk egin dugu]. LAW ENFORCEMENT SUPPORT SECTION (LESS); CRIME STATISTICS MANAGEMENT UNIT (CSMU), «Hate crime data collection», 13. or.

³⁶ **Agnostic**—A person who believes that the existence or nature of an ultimate reality, such as a deity, is unknown, and probably unknowable [testuko itzulpena geuk egin dugu]. LAW ENFORCEMENT SUPPORT SECTION (LESS); CRIME STATISTICS MANAGEMENT UNIT (CSMU), «Hate crime data collection», 13. or.

³⁷ “**Jewish (Judaism)**—A person who identifies himself or herself as a member of the religious and/or ethnic group that descended from the ancient Hebrews and is characterized by belief in one transcendent God who revealed Himself to Abraham, Moses, and the Hebrew prophets. Jewish religious practice is based on the Hebrew Scriptures (the “Torah”) and rabbinic laws and customs” [testuko itzulpena geuk egin dugu]. LAW ENFORCEMENT SUPPORT SECTION (LESS); CRIME STATISTICS MANAGEMENT UNIT (CSMU), «Hate crime data collection», 14. or.

Ikuspegi antropologiko batetik, Ekialde Hurbiletik datozen hizkuntza semitikoaren hiztunekin lotzen da semita terminoa; gaur egun, hor ez lirateke hebrearrak soilik sartu beharko, inguruan dugun diskriminazio-esparruan unibertsalki hala onartzen bada ere. Gainerakoan, beste ulertzeko modu batean juduen erlijioan sinesten duen edonor hartzen da judutzat. Hala ere, lotura oso hertsia eta barne-kohesio handia duten taldeak eratzen dira erlijio horren fededunen artean. Hortik abiatuta, adiera «etnikoa» ere hartu zuen judu izateak, arbaso juduak dituen edonori erreferentzia egiteko. Azken mendeotan, judu kopuru handiak utzi dio fededun izateari. Batzuk beste erlijio batzuetara konbertitu ziren, eta beste batzuk ateo bihurtu ziren, baina euren burua «judu»tzat hartzen jarraitu zuten, haien leinuagatik edo kulturkidetzagatik. Bada beste zailtasun bat ere: etnia bati buruz hitz egin arren, ez dute identitate bera izatearen kontzientziarik; izan ere, erromatarren aurreko garaitik Europa, Afrika eta Asiako hainbat herrialdetan eratu dira juduen komunitateak, eta finkatutako leku bakoitzean hizkuntza, tradizio eta eguneroko ohitura oso desberdinak garatu dituzte. Oro har, antisemitismoaren fenomenoak forma bat baino gehiago agertzen du, eta motibo etniko, erlijiozko, kultural, ekonomiko eta politikoen ezohiko konbinazioa hartzen du barne³⁸.

Hori guztia jakinik, *Hate Crime Data Collection Guidelines and Training Manual* (2015) eskuliburuan judu noziorako emandako definizioa gureganatu dugu hein batean; «antisemitismo» hitzan bidez, bere burua antzinako hebrearren leinuko erlijio eta edo etnia taldeko kideatzat hartzen duen edonorenganako arbuio intolerantea edo aurreiritzia adieraziko dugu. Hori guztia, esan dugun bezala, ongi jakinik nolabaiteko zehaztasuna falta zaiola lanerako definizio horri.

II. BLOKEA
KOLEKTIBO SEXUALA
IV. TALDEA SEXU-ORIENTAZIOA
<i>Gaya</i>
<i>Lesbiana</i>
<i>Heterosexuala</i>
<i>Transexuala</i>
<i>Intersexuala</i>
<i>LGTBI taldea (talde mistoa)</i>
II. BLOKEA
KOLEKTIBO SEXUALA
V. TALDEA SEXU-IDENTITATEA

³⁸ AGUILAR GARCÍA, «Manual práctico para la investigación», 54. or.

Kolektibo sexualari dagokionez, lehenbiziko egitura aurkezten da hemen, etorkizunean kolektibo horri buruzko datu xeheagoak biltzea errazteko.

Ertzaintzak ez du bereizketarik egiten kolektibo horren barruan; beraz, FBIk *Hate Crime Data Collection Guidelines and Training Manual* (2015) eskuliburuko kontzeptu-definizioen bidez bildutako kategoriak jaso dira lehenik eta behin. Dokumentu horretan honela definitzen da sexu-orientazioan oinarritutako aurreiritzia: «norbaiten edo norbaitzuen aurkako iritzia edo jarrera izatea aldez aurretik, benetan duen edo antzematen zaion sexu-orientazioan oinarrituta». Aldiz, «sexu-orientazioa» da «(...) norbaitek sexu berekoenganako edo kontrako sexuoen erakarpen fisiko, erromantiko eta/edo emozionala izatea, lesbiana, gay, bisexual eta heterosexualenganakoa barne»³⁹. Azpimarratu behar da argi eta garbi bereizi behar dela norberaren sexu-orientazioaren eta sexu-hobespenaren artean; izan ere, azken horrek sexu-aukera nolabait borondatezkoa dela ematen du aditzera⁴⁰. Nolanahi ere *Hate Crime Data Collection Guidelines and Training Manual* (2015) eskuliburuan ez da jaso «sexu-identitatea» zer den; laburbilduz, uler daiteke nork bere gorputza sailkatzeko (gizona/emakumea) ebazten duen iritzia dela; hau da, norberaren ezaugarri fisiko edo biologikoak (genitalak, gorputzaren irudia, eta abar), sexu-orientazioa zehazteko bide ematen dutenak. Are gehiago, AGUILAR GARCÍAri jarraikiz, Zigor Kodetik ondorioztatu bezala, sexu-identitatea da «(...) berez besteengandik desberdintzen gaituen sexu-ezaugarrien multzoa: gure sexu-hobespenak, gure sentimenduak eta sexuari buruz ditugun jarrerak. Hitz lauetan, esan daiteke pertsona horrek bere bizitza osoan izango duen maskulinitasun edo feminitasun sentimendua dela (behar beste ñabardurarekin), eta ez datorrela beti bat haren sexu biologikoarekin edo organo genitalekin»⁴¹.

Gainerakoan, hauek dira FBIk egiten dituen azpikategoriak:

- Bisexuala. Hala gizon nola emakumeenganako erakarpen fisiko, erromantiko eta/edo emozionala sentitzen duten pertsonak⁴². Hala ere, bisexualtasuna bera baino gehiago,

³⁹ “**Sexual-Orientation Bias**–(noun) A preformed negative opinion or attitude toward a person or group of persons based on their actual or perceived sexual orientation.

Sexual Orientation–(noun) The term for a person’s physical, romantic, and/or emotional attraction to members of the same and/or opposite sex, including lesbian, gay, bisexual, and heterosexual (straight) individuals” [testuko itzulpena geuk egin dugu]. LAW ENFORCEMENT SUPPORT SECTION (LESS); CRIME STATISTICS MANAGEMENT UNIT (CSMU), «Hate crime data collection», 15. or.

⁴⁰ AGUILAR GARCÍA, «Manual práctico para la investigación», 59. or.

⁴¹ AGUILAR GARCÍA, «Manual práctico para la investigación», 60. or.

⁴² “**Bisexual**–(adjective) Of or relating to people who are physically, romantically, and/or emotionally attracted to both men and women” [testuko itzulpena geuk egin dugu]. LAW ENFORCEMENT SUPPORT SECTION (LESS); CRIME STATISTICS MANAGEMENT UNIT (CSMU), «Hate crime data collection», 16. or.

kasu gehienetan homosexualitatea izango da egilearen jokabidearen benetako arrazoia. Beraz, txosten honetarako, talde hau ez da oraingoz bereizita jasoko.

- **Gaya.** Sexu bereko pertsonenganako erakarpen fisiko, erromantiko eta/edo emozionala sentitzen duten pertsonak⁴³. Jarraian, FBIk ohartarazten du haien jardunbidean biktimak gizonezkoa izan behar duela antigay gorroto-delitua salatzeke.
- **Lesbiana.** Beste emakume batzueganako erakarpen fisiko, erromantiko eta/edo emozionala sentitzen duten emakumeak⁴⁴. Alderdi honetan, FBI jakitun da hainbat emakumek nahiago dutela haiekin emakume gay izendapena erabil dadila; nolana ere, lanerako ez da kontuan hartzen erabilera hori.
- **Heterosexuala.** Aurrakako sexuko pertsonenganako erakarpen fisiko, erromantiko eta/edo emozionala sentitzen duten pertsonak⁴⁵.
- **LGBT taldea (talde mistoa).** FBIk markatzaile hau ere jasotzen du, baina «(...) lesbianeiei, gayei, bisexualei, transexualei eta haien aliatuei zerbitzu ematen dieten erakunde komunitarioak eta ekitaldiak aipatzeko» darabil⁴⁶. Adibidez: «gauaren azken orduan, talde bat indarrez sartu zen bertako lesbiana, gay, bisexual eta transexualen (LGBT) zentro batean. Taldeak LGBTen aurkako irain ezagunak margotu zituen hormetan, eta zentroko ate nagusiaren gainean zegoen bandera lapurtu zuen».⁴⁷

⁴³ “**Gay**–(adjective) Of or relating to people who are physically, romantically, and/or emotionally attracted to people of the same sex” [testuko itzulpena geuk egin dugu]. LAW ENFORCEMENT SUPPORT SECTION (LESS); CRIME STATISTICS MANAGEMENT UNIT (CSMU), «Hate crime data collection», 16. or.

⁴⁴ “**Lesbian**–(adjective) Of or relating to women who are physically, romantically, and/or emotionally attracted to other women” [testuko itzulpena geuk egin dugu]. LAW ENFORCEMENT SUPPORT SECTION (LESS); CRIME STATISTICS MANAGEMENT UNIT (CSMU), «Hate crime data collection», 16. or.

⁴⁵ “**Heterosexual**–(adjective) Of or relating to people who are physically, romantically, and/or emotionally attracted to people of the opposite sex” [testuko itzulpena geuk egin dugu]. LAW ENFORCEMENT SUPPORT SECTION (LESS); CRIME STATISTICS MANAGEMENT UNIT (CSMU), «Hate crime data collection», 16. or.

⁴⁶ “**LGBT**–(noun) Common initialism for “lesbian, gay, bisexual, and transgender,” used here to refer to community organizations or events that serve lesbian, gay, bisexual, transgender, and allied people” [testuko itzulpena geuk egin dugu]. LAW ENFORCEMENT SUPPORT SECTION (LESS); CRIME STATISTICS MANAGEMENT UNIT (CSMU), «Hate crime data collection», 16. or.

⁴⁷ “Late in the night, a group of individuals broke in to a local Lesbian, Gay, Bisexual, and Transgender (LGBT) Center. The group painted well-known and recognized LGBT epithets on the walls and stole the gay pride rainbow flag that was flown above the front door of the center” [testuko itzulpena geuk egin dugu]. LAW ENFORCEMENT SUPPORT SECTION (LESS); CRIME STATISTICS MANAGEMENT UNIT (CSMU), «Hate crime data collection», 18. or.

Hori guztia kontuan hartuta, kategoria independente berri gisa jaso daitezke transexual eta intersexual kategoriak. «Transexual» bidez, bere sexu biologikoa ez, baizik eta kontrakoa duela uste eta sentitzen duen pertsonari egiten zaio erreferentzia. «Intersexual» bidez, jaiotzazko sexu-anatomia, ugalketa-organoak eta/edo patroikromosomikoak direla-eta gizon edo emakumeei buruzko ohiko definizioarekin halaberrez bat ez datorren norbaiti egiten zaio erreferentzia.

II. BLOKEA
KOLEKTIBO SEXUALA
VI. TALDEA GENEROA
<i>Gizonezkoa</i>
<i>Emakumezkoa</i>

II. BLOKEA
KOLEKTIBO SEXUALA
VII. TALDEA GENERO-IDENTITATEA

Hate Crime Data Collection Guidelines and Training Manual (2015) eskuliburuaren arabera, generoan oinarritutako aurreiritzia da «norbaiten edo norbaitzuen aurkako iritzia edo jarrera izatea alde aurretik, benetan duen edo hautematen zaion generoan oinarrituta; adibidez, gizona edo emakumea izateagatik»⁴⁸. Aldiz, sexu hitzaren sinonimo gisa definitzen du «genero»; hortaz, zentzu biologikoa ematen die barne hartzen dituen markatzaileei (gizona eta emakumea)⁴⁹. Halaber, Espainiako Gorroto Delituekin lotutako Gertakarien Bilakaeraren gaineko Txostenean⁵⁰ bereizketarik egin gabe aipatzen dira generoarekin eta sexuarekin zerikusia duten arrazoiak. Egia

⁴⁸ **Gender Bias**—(noun) A preformed negative opinion or attitude toward a person or group of persons based on their actual or perceived gender, i.e., male or female” [testuko itzulpena geuk egin dugu]. LAW ENFORCEMENT SUPPORT SECTION (LESS); CRIME STATISTICS MANAGEMENT UNIT (CSMU), «Hate crime data collection», 10. or.

⁴⁹ **Gender**—(noun) This term is used synonymously with sex to denote whether a newborn is male or female at birth, e.g., “it’s a boy” or “it’s a girl.”

Male – An individual that produces small usually motile gametes (as spermatozoa or spermatozooids) which fertilize the egg of a female.

Female – An individual of the sex that bears young or produces eggs”.

LAW ENFORCEMENT SUPPORT SECTION (LESS); CRIME STATISTICS MANAGEMENT UNIT (CSMU), «Hate crime data collection», 10. or.

⁵⁰ BARNE ARAZOETAKO MINISTERIOA, «Informe sobre la evaluación», 13. or.

esan, nolabaiteko ahultasun-seinale izan daiteke halaber; izan ere, argi eta garbi doa 1/2015 LOak jasotakoaren aurka: Zioen Azalpenean, honela azaltzen du Zigor Kodearen 22.4 artikuluko diskriminazio-arrazoien artean genero hitza sartu izana: «(...) **generoa**, *Europako Kontseiluaren 210. zenbakiko Hitzarmenean ezarritakoaren arabera ulertuta, **sexuari egindako erreferentziak biltzen dituen bezelako bereizkeriazko ekintzen funts izan daiteke**. Zehazki, honela definitzen da generoa *Europako Kontseiluko Ministroen Komiteak 2011ko apirilaren 7an Istanbulen onartutako Hitzarmenean*: “gizarte batean eraikitako eginkizun, jokabide edo jarduerak eta atribuzioak emakumeei ala gizonei esleitzea, berez emakumeei ala gizonezkoiei dagozkienak direlakoan”» (1/2015 LO, XXII. atala, Zioen azalpena).*

Txosten honetan sexu eta generoa batera erabiltzeko, *ex ante* zehaztu beharko genuke zer logikari jarraikiz erabiltzen diren biak trukagarri izango balira bezala, eta bi dira aukerak: 1) FBIk erabilitako zentzu biologiko soila, hau da, ernaltzean erabakitakoa [XX eta XY sexu-kromosomak daude, eta Y kromosomak sexua erabakitzen du]; edo 2) gizarteko kategorizazioa, delitugintzari bide ematen diona, «(...) norbaiten jokabidea [gizon batena edo emakume batena] ez badator bat biztanleriak pertsonen beren sexuaren arabera [zentzu biologikoan] (...) izan beharreko jokabideari buruz dituen uste orokortuekin»⁵¹.

Hate Crime Data Collection Guidelines and Training Manual (2015) eskuliburuaren arabera, generoan oinarritutako aurreiritzia da «norbaiten edo norbaitzuen aurkako iritzia edo jarrera izatea aldeztu aurretik, benetan duen edo hautematen zaion genero-identitatean oinarrituta»⁵². «Genero-identitatea»ri dagokionez, honela definitzen da: norbait bere baitan gizon, emakume nahiz bien arteko konbinazio sentitzea; (...)»⁵³. Beraz, nor bere burua gizon nahiz emakumetzat sailkatzea, kulturaren arabera historian zehar gizona eta emakumea zer diren itxuratu duten alderdietan oinarrituta (balioak, jokabideak eta rolak). FBIk azaltzen duen moduan, transgenero

⁵¹ ENPLEGU ETA GIZARTE SEGURANTZA MINISTERIOA, «La persecución penal», 45. or.

ODIHR-ESLEren gidaliburu praktiko baten itzulpena da, Kanpo Arazoetako eta Lankidetzako Ministerioaren, Estatuko Fiskaltza Nagusiaren eta Enplegu eta Gizarte Segurantzako Ministerioaren Immigrazio eta Emigrazio Idazkaritza Nagusiaren arteko lankidetzaren emaitza. Jatorrizko bertsoa: ODIHR/ESLE, «Prosecuting hate crimes», 99. or.

⁵² “**Gender Identity Bias**—A preformed negative opinion or attitude toward a person or group of persons based on their actual or perceived gender identity, e.g., bias against transgender or gender nonconforming individuals” [testuko itzulpena geuk egin dugu]. LAW ENFORCEMENT SUPPORT SECTION (LESS); CRIME STATISTICS MANAGEMENT UNIT (CSMU), «Hate crime data collection», 10. or.

⁵³ “**Gender Identity**—(noun) A person’s internal sense of being male, female, or a combination of both; (...)” [testuko itzulpena geuk egin dugu]. LAW ENFORCEMENT SUPPORT SECTION (LESS); CRIME STATISTICS MANAGEMENT UNIT (CSMU), «Hate crime data collection», 10. or.

batek zenbait ezaugarriren bitartez adieraz dezake bere identitatea: kasurako, arropa, ilea, ahotsa, manierak edo hainbat jokabide, gizarteak generoan oinarrituta dituen itxaropen jakin batzuekin bat ez datozenak.

Halaber, FBIren arabera, «transgenero» markatzaileak zera esan nahi du: «jaiotzean erabakitako generoaz bestelako genero batekin identifikatzen den norbait»⁵⁴. Gainera, garrantzitsua da kontuan hartzea transgenero batek denbora guztian, denbora batez edo inoiz ez azaleratu dezakeela bere genero-identitatea. Eta «generoarekin bat ez datorren» markatzailearen bidez, «gizartearen genero-itxaropenetara egokitzen ez den norbait» identifikatzen du FBIk: «adibidez, tradizioz gizonena izan den arropa daraman emakume bat, edo makillajea erabiltzen duen gizon bat»⁵⁵. Baina, nola jakin daiteke transgenero batek bere genero-identitatea adierazteko erabilitako bideetako bat izan den gorroto-gertakariaren kausa? Edo generoarekin bat ez datorren norbait gizarte-itxaropenetara bat ez etortzea? Intersekzio bat baino gehiago dago eta, teoriarik zentzuzkoa bada ere horien artean bereiztea, egiatan, kontu eztabaidagarria da. Hasiera batean, «genero-identitate» mantentzearen alde egiten dugu; hobe ez badira talde horren ondotik datozen beste markatzaile batzuk erabiltzen, elkarri ez gainjartzeko.

III. BLOKEA
BESTE KOLEKTIBO BATZUK
VIII. TALDEA
GAIXOTASUNA ETA DESGAITASUNA / ANIZTASUN FUNTZIONALA DUTEN PERTSONAK

HCSAn esparru-kategoria bereizia osatzen du desgaitasunak; Ertzaintzak, aldiz, gaixotasun kategoriarekin batera jaso du. HCSAk, gainera, bi azpikategoria ematen ditu: *anti-physical* (desgaitasun fisikoa) eta *anti-mental* (desgaitasun fisiko edo mentala). Ildo horretan, *Hate Crime Data Collection Guidelines and Training Manual* (2015) eskuliburuak honela definitzen du desgaitasunean oinarritutako aurreiritzia: «giza talde baten aurkako iritzi edo jarrera izatea alde aurretik, haien disfuntzio fisiko edo mentaletan oinarrituta, aldi baterako desgaitasuna nahiz iraunkorra izan, jaiotzetikoa nahiz herentzia, istripu, lesio, adin aurreratu edo gaixotasun bidez

⁵⁴ “**Transgender**–(adjective) Of or relating to a person who identifies as a different gender from their gender as determined at birth” [testuko itzulpena geuk egin dugu]. LAW ENFORCEMENT SUPPORT SECTION (LESS); CRIME STATISTICS MANAGEMENT UNIT (CSMU), «Hate crime data collection», 11. or.

⁵⁵ “**Gender Nonconforming**–(adjective) Describes a person who does not conform to the gender-based expectations of society, e.g., a woman dressed in traditionally male clothing or a man wearing makeup” [testuko itzulpena geuk egin dugu]. LAW ENFORCEMENT SUPPORT SECTION (LESS); CRIME STATISTICS MANAGEMENT UNIT (CSMU), «Hate crime data collection», 10. or.

hartua»⁵⁶. Desgaitasun mentalari dagokionez, bat dator «edonolako disfuntzio mental edo nahasmendu psikologikorekin: besteak beste, garuneko sindrome organikoa, gaixotasun emozional edo mentala eta ikaskuntzako desgaitasun bereziak»⁵⁷. Azkenik, desgaitasun fisikoa da «edonolako disfuntzio fisiko, edonolako nahasmendu edo kondizio fisiologiko, desitxuratze kosmetiko edo galera anatomiko, gorputzeko sistema hauetako batean edo gehiagoan: neurologikoan, muskulu-eskeletikoan, zentzumenen organo berezietan, arnasketa-sisteman (mintzamenaren organoak barne), kardiobaskularrean, ugalketakoan, digestiokoan, genitourinarioan, hematikoan eta linfatikoan, azalean eta endokrinoan»⁵⁸.

Gehiago sakontzeko, *Hate Crime Data Collection Guidelines and Training Manual* (2015) eskuliburuan berariaz jaso ez bada ere, *Americans with Disability Act* (ADA) arauak ere «desgaitasuna duen pertsona»ri buruz ematen duen definiziora jo da⁵⁹. Estatu Batuetako lege horren arabera, «desgaitasuna duen pertsona» da:

- desgaitasun fisiko edo mentala duen norbait, eta ondorioz «bizitzako funtsezko jardueraren bat» nabarmen mugatuta duena; edo
- halako desgaitasun baten historia duena; edo
- halako desgaitasuna izango balu bezala ikusia dena.

Zigor Kodeko 25. artikulua (duela gutxi 1/2015 LOak erreformatu zuen) definizio hau ematen du desgaitasunerako: «*Kode honen ondoreetarako, desgaitasuntzat hartzen da urritasun fisiko, mental, intelektual edo sentsorial iraunkorrak dituen pertsonak duen egoera, zenbait oztopo izatean, mugatu edo eragotzi egiten zaionean gizartean gainerakoen baldintza berberetan guztiz eta eraginkortasunez parte hartzea*».

⁵⁶ “**Disability Bias**– A preformed negative opinion or attitude toward a group of persons based on their physical or mental impairments, whether such disability is temporary or permanent, congenital or acquired by heredity, accident, injury, advanced age, or illness” [testuko itzulpena geuk egin dugu]. LAW ENFORCEMENT SUPPORT SECTION (LESS); CRIME STATISTICS MANAGEMENT UNIT (CSMU), «Hate crime data collection», 9. or.

⁵⁷ “**Mental Disability**–Any mental impairment or psychological disorder such as: organic brain syndrome, emotional or mental illness, and specific learning disabilities” [testuko itzulpena geuk egin dugu]. LAW ENFORCEMENT SUPPORT SECTION (LESS); CRIME STATISTICS MANAGEMENT UNIT (CSMU), «Hate crime data collection», 10. or.

⁵⁸ “**Physical Disability**–Any physical impairment; any physiological disorder or condition, cosmetic disfigurement, or anatomical loss affecting one or more of the following body systems: neurological, musculoskeletal, special sense organs, respiratory (including speech organs), cardiovascular, reproductive, digestive, genitourinary, hemic and lymphatic, skin, and endocrine” [testuko itzulpena geuk egin dugu]. LAW ENFORCEMENT SUPPORT SECTION (LESS); CRIME STATISTICS MANAGEMENT UNIT (CSMU), «Hate crime data collection», 10. or.

⁵⁹ ALTSCHILLER, *Hate crimes*, 354. or.

Desgaitasuna duen pertsonari dagokionez, honela aipatzen du Zigor Kodearen 25. artikulua: «Kode honen ondoretarako, halaber, babes berezia behar duen desgaitutzat hartzen da, urritasun intelektual edo mental iraunkorrak izateagatik, gaitasun juridikoa egikaritzeko eta berari eta bere eskubide edo interesei buruzko erabakiak hartzeko laguntza edo babesa behar duen desgaitua, jarduteko gaitasuna judizialki aldatuta izan zein ez».

Nolanahi ere, argitu behar da ezen, kasu batzuetan, gaixotasun edo sindrome zehatz baten seinaleztat hartzen dela desgaitasuna (adibidez, buruko nahasmendu jakin batzuen diagnostikoa egiteko, ezinbestean muga funtzionalak agertu behar dira), edo gaixotasun baten edo sindrome zehatz baten ondorioztat⁶⁰. Desgaitasuna, hortaz, «(...) termino orokor bat da, gaixotasun, lesio edo jaiotzetiko anomalia batek giza funtzionamenduan, maila guztietan, izan ditzakeen era askotako ondorioak islatzen dituen»⁶¹. Ildo horretan, aldi baterakoa nahiz iraunkorra izan daiteke desgaitasuna, eta jaiotzetikoa nahiz hartutakoa, herentzia, istripua, lesioa, adin aurreratua edo gaixotasuna dela eta⁶². Ikus daitekeen moduan, komeni da azpimarratzea espezifikotasunak daudela desgaitasun terminoaren tratamenduan, gaixotasunarekin alderatuz gero, eta, hortaz, justifikatuta dagoela bata eta bestea bereiztea. Laburbilduz, baliteke gaixotasun bat izatea desgaitasunaren kausa, baina ez du zertan hala gertatu. Beste xehetasun bat ere hartu behar da kontuan: hain zuzen, Osasunaren Mundu Erakundearen arabera gaitz edo gaixotasun puntual baten presentziak definitzen badu ere gaixotasuna, egiaz, «(...) Zigor Kodean gaixotasun iraunkorra duten pertsonen aurkako egintzak aipatzen dira diskriminatzeko ziotzat (adibidez, GIB-eramaileak, hiesa duten gaixoak, C hepatitisak dutenak, eta abar)⁶³. Kasu horretan, hiesa gaixotasun edo are desgaitasun definizioan sartuta ere, gure kasuan ez du izango garrantzirik gorroto- edo diskriminazio-gertakariak biltzeko garaian, biak ala biak erreferentzia talde berean (VIII. taldea) jaso baitira gure kategoria-indizean.

⁶⁰ Hemen jasota: OME, «OMEren baliabideen eskuliburua», 25. or.

⁶¹ GONZÁLEZ VIEJO; COHÍ RIAMBAU; SALINAS CASTRO, *Amputación de extremidad inferior y discapacidad*, 2005, 4. or.

⁶² ALTSCHILLER, *Hate crimes*, 354. or.

⁶³ ANDREU ARNALTE, «Conceptos generales», 13. or.

Desgaitasun mental nozioari dagokionez, oso eztabaidatua izan da gizartean onartuta dagoen, eta desgaitasun mental edo psikiatrikoa medikuntzako alorrarekin lotzen dela defendatu izan da⁶⁴. Horregatik, bereziki apropos eta trukagarritzat hartzen da desgaitasun psikosozial terminoa ere. Gorroto-gertakarien esparruan zentzuzkoa izan daiteke hori; izan ere, gizarte-ikuspegia ekartzen zaio diferentziazio psikikoari eta, horrenbestez, hobeto bildu dezake desgaitasunik izan ez arren arrazoi hori dela-eta diskriminazioa jasaten duten pertsonen babesa⁶⁵.

III. BLOKEA
BESTE KOLEKTIBO BATZUK
IX. TALDEA
ADINA

Adinaren markatzailea, Ertzaintzaren datu-basean ez ezik, ODIHR/ESLeren⁶⁶ laneko definizioan ere jaso da. Legez loteslea izan gabe ere, eragin handiko definizioa da eta Espainiako Gorroto Delituekin lotutako Gertakarien Bilakaeraren gaineko Txostenean transkribatuta dator halaber⁶⁷. Beraz, gorroto-delitutzat hartzen da edozein arau-hauste penal, gizakien nahiz jabetzen aurkako arau-hausteak barne, baldin eta arau-haustearen biktima, tokia edo objektua aukeratzeko arrazoia izan bada talde batekiko lotura, harremana, kidetza, babesa edo partaidetza benetako nahiz ustezkoa, arrazan, jatorri nazional nahiz etnikoan, hizkuntzan, kolorean, erlijioan, adinean, desgaitasun fisiko nahiz mentalean, sexu-orientazioan edo beste antzeko faktore erreal zein ustezko batzuetan oinarrituta⁶⁸.

⁶⁴ OME, «OMEren baliabideen eskuliburua», 26. or.

⁶⁵ PALACIOS, *El modelo social de discapacidad*, 348-349. or.

⁶⁶ Erakunde Demokratiko eta Giza Eskubideen Bulegoak (ODIHR) –Europako Segurtasun eta Lankidetzarako Erakundearen (ESLE) mendeko instituzioa– ahalegin nabarmena egin du hainbat kontinentetako estatu batzuk (gaur egun 57) tresna eraginkor eta eragingarritzat hornitzeko. ESLE segurtasun-gaiei buruzko eskualde-mailako erakunde handiena da munduan; izan ere, Europan eta haren inguruan gatazkak prebenitzeko asmoz sortu da. Beraz, oinarrian duen ardurarekin bat, gorroto-delituei buruzko ulermen-estandar handia izateko ere lagundu du.

⁶⁷ BARNE ARAZOETAKO MINISTERIOA, «Informe sobre la evaluación», 62. or.

⁶⁸ “**A hate crime can be defined as:**

- (A) Any criminal offence, including offences against persons or property, where the victim, premises, or target of the offence are selected because of their real or perceived connection, attachment, affiliation, support, or membership of a group as defined in Part B.
- (B) A group may be based upon a characteristic common to its members, such as real or perceived race, national or ethnic origin, language, colour, religion, sex, age, mental or physical disability, sexual orientation, or other similar factor” [testuko itzulpena geuk egin dugu]. ODIHR/ESLE, *Combating hate crimes*, 12. or.

Are gehiago, ESLEk 2009. urtean argitaratutako *Hate Crime Laws. A Practical Guide* gidan, gorroto-delituei buruzko legerietan «*maiz babestutako ezaugarrien*» artean agertzen da adina, generoaren, desgaitasun fisiko nahiz mentalaren eta sexu-orientazioaren maila berean. Hain zuzen, gorroto-delituei buruzko legerietan «*eskuarki babes handiena jasotzen duten ezaugarriak*» besterik ez daude gainerik; hau da, arraza, jatorri nazionala eta etnia⁶⁹. Zenbait egilek, adibidez, HERRINGek, adierazi dute adinean oinarritutako delituak ere gorrotozkotzat hartu behar direla⁷⁰. Hala ere, CHACKRABORTIrengana jo dugu markatzaile horri buruzko definizio onargarri baten bila, eta hark honela definitu du «*ageism*» terminoa: «adinekoen aurkako aurreiritzizko jarrerak edo diskriminaziozko jokabideak»⁷¹.

III. BLOKEA
BESTE KOLEKTIBO BATZUK
X. TALDEA
APOROFOBIA EDO EGOERA SOZIOEKONOMIKOA

Espainiako Gorroto Delituekin lotutako Gertakarien Bilakaeraren gaineko Txostenaren arabera, aporofobia⁷² terminoan jasotzen dira «pobre, baliabiderik gabe eta babesgabeen aurkako gorroto, nazka edo etsaitasun»eko intolerantzia-adierazpen eta -jokabideak⁷³. Aldi berean, haren osagarria da «egoera sozioekonomikoa»ri buruzko aipamena, non barne hartzen baita prekarietatea, eskean ibiltzearen edo etxerik ez izatearen (*homelessness* edo etxegabetasuna) ondorioz diskriminazioaren xede izan daitekeen egoera ekonomiko gisa.

AGUILAR GARCÍAren arabera, aporofobia kontzeptu sortu berria denez eta Zigor Kodeak ez duenez jasotzen diskriminatzeke zioen artean, aztertu behar da arrazoi horretan oinarritutako egintzak zigor bidetik bideratu daitezkeen, gehienetan ekintza apalesgarri eta isekagarri gisa (Zigor Kodeko 173.1 art.)⁷⁴.

⁶⁹ ODIHR/ESLE, «Hate crime laws», 40 eta 43. or.

⁷⁰ HERRING, «Elder abuse», 190 eta 191. or.

⁷¹ CHACKRABORTI; GARLAND, *Hate crime*, 161. or. [testuko itzulpena geuk egin dugu].

⁷² Terminoaren sorrerari buruzko azalpen labur bat jasotzeko, ikus CORTINA ORTS, *Aporofobia, el rechazo al pobre*, 17-27. or.

⁷³ BARNE ARAZOETAKO MINISTERIOA, «Informe sobre la evaluación», 63. or.

⁷⁴ AGUILAR GARCÍA, «Manual práctico para la investigación», 64. or.

III. BLOKEA
BESTE KOLEKTIBO BATZUK
XI. TALDEA FAMILIA-EGOERA

Zigor Kodearen 2015eko erreformak, 2008/913 EAn adierazitakoaz harago joan, eta babestutako beste kategoria batzuen artean sartzen du «familia-egoera» (Zigor Kodearen 510. art.). Doktrinan gutxitan aipatzen da alderdi hori; hala ere, DÍAZ Y GARCÍA CONLLEDOk, minimoen interpretazioa eginik, ziurtatzen du egoera hauei egiten zaiela erreferentzia: «(...) ezkongabea, ezkondua, banandua, dibortziatua, alarguna, edo izatezko egoeretan ezkontzaren antzeko familia-bizikidetzaren dutenak». Badirudi, gainera, «(...) filiazio-formak» ere sar daitezkeela hor⁷⁵.

1.3. Gorroto- eta diskriminazio-delituen arauzko erregulazioari buruzko iritzia eta azalpena

ESLEk gorroto-delituei buruz emandako lanerako definizioa behin eta berriz agertzen da. Hala, Espainiako Gobernuaren Barne Arazoetako Ministerioak ere jaso zuen Espainiako Gorroto Delituekin lotutako Gertakarien Bilakaeraren gaineko 2016ko Txostenean⁷⁶.

ESLEk gorroto-delitutzat hartzen du «*edozein arau-hauste penal (...)»*⁷⁷. Nolanahi ere den, guztiz bestelako kontua da txosten honen oinarriko kategoria zabalagoa izatea eta barne hartzea gorroto-gertakari («*hate incidents*») guztiak, arau-hauste penal izan nahiz ez. Kasu honetan bai, gorroto-delituaren izendapenaren pean sartuko litzateke ekintza oro, arau-hauste penala egin den alde batera utzita. Gorroto-delitu (egiaz, gorroto-gertakari) dirudien guztiaren *prima facie* test bat egitea besterik ez da asmoa.

Gainera, garrantzitsua da hau zehaztea, estatistikako kontaketa egiteko garaian kontuan hartuko dira harremanezko edo hutsegitezko gorroto-gertakariak (edo diskriminaziozkoak) ere. Lehenengo kasuan, norbaitzuekin harremana edo kontaktua izateagatik bideratzen da ekintza pertsona batengana; egiaz, beste horiek dira jokabide nagusiaren xede, ZKn zerrendatutako zioetako bat dela-eta betiere. Bigarrenean, norbait oker hauteman eta ezaugarri jakin batzuekin lotzeagatik gertatzen da.

⁷⁵ DÍAZ Y GARCÍA CONLLEDO, *Protección y expulsión*, 323. or.

⁷⁶ BARNE ARAZOETAKO MINISTERIOA, «Informe sobre la evaluación», 62. or.

⁷⁷ ODIHR/ESLE, «Combating hate crimes», 12. or. [testuko itzulpena geuk egin dugu].

Bestalde, txosten honetan erabilitako sailkapenean, tipo penalek esanbidez (edo isilbidez) adierazitakoaren arabera multzokatzen dira gorroto-delituak eta -gertakariak. Horiek horrela, funtsezko edo *stricto sensu* delituak eta delitu osagarriak edo funtzionalak hartzen dira⁷⁸. Horrez gain, Ertzaintzak gorroto-delituen ildotik sailkatu ditu orain arte diskriminazio-delituak; aldiz, txosten honetan formalki bereizi dira bi kategoria horiek. Espainiako Zigor Kodean ez dira berariaz aipatzen, ez diskriminazio-delituak, ez eta gorroto-delituak ere, eta horrek azaltzen du doktrina-lerro desberdinak egotea kategoría horien peko artikulua sistematizatzeko. Hala ere, badirudi doktrina nagusiak horien artean bereiztera jotzen duela, diskriminazio-delituek gorroto-delituen aldean zer berezitasun duten argitzeko azalpen nabarmen desberdinak ematen badira ere. Adibide ugari daude horretarako:

- OSUNA CEREZOn arabera, «halakotzat [diskriminazio-delitutzat] hartzen dira, baldin eta tratu-berdintasunaren ondasun juridikoari eraso egin bazaio, dela zuzenean, dela zeharka»⁷⁹. Are gehiago, GÜERRI FERRÁNDEZek honako hau argudiatzen du: «ez da nahikoa delituak berdintasun-printzipioari eraso egitea (diskriminazio-delitua: adibidez, langileen eskubideen aurkako delitua); gorroto-delituek pertsonaren duintasunari ere egiten diote eraso (adibidez, homosexual baten aurkako eraso bortitza, haren sexu-orientazioa dela eta)»⁸⁰.
- BERNAL DEL CASTILLOk honela azaltzen du bere jarrera: «(...) diskriminazio-delituen tipifikazioan, jokabide kaltegarria subjektu jakin baten aurka doa, hura identifikatzen den taldeen aurka baino gehiago, eta halakoetan, legean berariazko preskripziorik ezean, bigarren mailan geratzen da taldearen edo kolektiboaren legitimazioa delitu horren subjektu pasibo sentitzeko. Zehazki, Espainiako Zigor Kodean doktrinak zuzenean diskriminaziozkozat sailkatzen dituen delituei buruz ari naiz: kasurako, prestazioak edo zerbitzuak diskriminazioz ukatzea, edo laneko diskriminazioa»⁸¹.
- Aldiz, DÍAZ LÓPEZek zera aipatzen du: «(...) kontzeptu-mailan, gure ordenamenduak desberdindu izan ditu gorroto-delituak (“diskriminazioa dela-eta” egindakoak) eta diskriminazio-delituak. Azken horietan, delituaren ondoretarako, diskriminatutako subjektuan aurki daiteke diskriminazioa, ez egilearen motibazioetan». Horiek horrela, eta gorroto-delituen iturburuan dagoen motibazioaren aldean, diskriminazio-delituen bidez

⁷⁸ LANDA GOROSTIZA, *Los delitos de odio*, 45. or. eta hurrengoak.

⁷⁹ OSUNA CERESO, «Los delitos de odio», 65. or.

⁸⁰ GÜERRI FERRÁNDEZ, «La especialización de la fiscalía», 5. or.

⁸¹ BERNAL DEL CASTILLO, «Política criminal en España», 382. or.

zigortu nahi diren jokabideak, objektiboki diskriminatzaileak izan arren, «(...) ez dira “diskriminazioa dela-eta” eginak; izan ere, aurreiritzi bat egoteak bihurtzen du, hain zuzen ere, motibazioa motibazio»⁸².

Kontrako jarrerak ere jaso izan dira, hein handi batean, konta ezin ahala doktrina- eztabaidaren ardatz izan delako gorroto-delituetan aipatutako gorroto-emozioa. Hala, ahots kritikoen artean, TAPIA BALLESTEROSek honako hau adierazten du «(...) ezinbestean bat etorri behar dute gorroto-delitu delakoak eta 1995eko Zigor Kodean jasotako delitu antidiskriminatzaileak, eta desegokia da “gorroto-delitu” esamolde nahasgarri eta zehaztugabea, delitu antidiskriminatzaile terminoarekin alderatuz gero: azken horrek argi eta garbi deskribatzen du zer jokabide auzipetzen den, eta alde batera uzten du sentimenduaren eta delituzko jokabidearen arteko erlazioa»⁸³. Are gehiago, egile horrek jasotakoaren arabera, Barne Arazoetako Ministerioak ontzat ematen du «(...) gorroto-delituak, argi eta garbi, 1995eko Zigor Kodea onartu zenetik Espainiako ordenamendu juridiko penalean jasotako delitu antidiskriminatzaileak direla»⁸⁴. Hain zuzen, Espainiako Gorroto Delituekin lotutako Gertakarien Bilakaeraren gaineko 2016ko Txostenaren sarreran, honako hau azaltzen da lehenengo paragrafoan: «“gorroto-delituak” terminologiaren bidez, faktore izendatzaile eta komuna agertzen duen jokabide-kategoria bat definitzen da: guztietan motibazio-elementu bat dago, gorrotoa eta diskriminazioa»⁸⁵.

Ondorioz, Espainiako doktrinan ez du hainbesteko eztabaida sortzen gorroto-delituen eta diskriminazio-delituen arteko sailkapen bereziak, jasotako azken ekarpenak aditzera eman bezala; argi eta garbi, salbuespen izatetik hurbilago dago. Proposatutako bereizketa akademikoan desberdintasunak ageri dira justifikazioan; hala ere, alderdi horrek ez du nahikoa garrantzi, ezaugarri hauetako txosten batean hori ebatzi behar izateko adina.

Azken batean, gorroto- eta diskriminazio-delituekin lotutako Zigor Kodearen artikuluen artetik, bakarra gehitu zaie Ertzaintzak lehendik ere jasotzen zituenei. Zigor Kodearen 174. artikulua da, diskriminazio mota bat dela-eta egindako torturari buruzkoa. Ildo horretan, TAMARIT SUMALLAk adierazten du «2003ko azaroaren 25eko erreformak (15/2003 LO) tortura kasu berri bat sartu zuela eta, hain zuzen, egitatearen alderdi subjektiboan, “diskriminazio motaren batean oinarritutako edozein zio”ri egiten dio erreferentzia. Zigor Zuzenbidea

⁸² DÍAZ LÓPEZ, *El odio discriminatorio*, 97 eta 102-103. or.

⁸³ TAPIA BALLESTEROS, «Identificación de las víctimas», 360. or.

⁸⁴ TAPIA BALLESTEROS, «Identificación de las víctimas», 358. or.

⁸⁵ BARNE ARAZOETAKO MINISTERIOA, «Informe sobre la evaluación», 3. or.

diskriminazioaren aurkako politikaren tresna gisa erabiltzeko 1995ean hasitako joeraren barruan sartzen da hori. **Manuak ez du zehazten zein den zioa edo zer oinarritan funtsatu daitekeen diskriminazioa; horiek horrela, Zigor Kodearen 22.4, 510., 511. eta 512. artikuluetan jasotako zerrendak balio du irizpide gisa»⁸⁶ (azpimarra gehitu da). Laburbilduz, Zigor Kodearen 174. artikulua adiera hertsiko (edo *stricto sensu*) gorroto-delituen manuen kategorian sartu da txosten honetan.**

1.4. Laburpen gisa

Txosten hau Ertzaintzak gorroto-gertakariei buruz bildu eta emandako estatistika-iturrietatik elikatu da –eta horiek aztertu ditu–. Lehen emanaldi honetan, hala 2016. urtean nola 2017. urtean jazotako gertakariak bildu dira (urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra arte); hartara, konparazioko ebaluazio-ikuspegia erakuts daiteke, eta lagungarria izango da etorkizuneko txostenetan halako jokabideek zer joera duten errazago azaltzeko.

Txostenaren oinarrian, Euskadiko gorroto-gertakarien mapa aurkezteko funtsezkoak izan diren hiru gako daude.

1. **DELITUA versus GERTAKARIA.** Lehenik eta behin, informazioa biltzeko orduan «gertakari» kontzeptuan oinarritzearen alde egin da, ez soilik eta hertsiki «delitu» kontzeptuan. Oraindik azken hori da oinarritzko erreferentzia-puntua, baina poliziak proaktiboki eta biktimaren alde jardun behar duenez zifra beltzean murgildutako kriminaltasun-zerrendak dituen gizarte demokratiko batean, egokia da gertakari kontzeptu zabalagoa erabiltzea. Eta halaxe da, hari esker eraginkortasunez bete daitezkeelako dagozkion zereginak: berehalako arreta, laguntza, informazioa, prebentzioa, delituaren jazarpena eta biktimekiko eta komunitatearekiko konfiantza eratzea. Gainera, oinarri gisa balio du, beste instantzia batzuek (fiskaltza, epailetza) zehaztu dezaten behin betiko zer tipifikazio dagokien jokabide horiei, berme guztiak dituen prozesu batean horiek frogatutzat emanez, eta kasu honetan –ez doktrinak ez jurisprudentzia-praxi sortuberriak ez dutenez erabat zehaztu zer profil dituzten honelako jokabide kriminalek– arian-arian segurtasun juridiko handiagoa eman diezaieten fenomeno honen ezaugarriei.

2. **BABESTUTAKO KOLEKTIBOAK.** Bigarrenik, hiru sektore nagusitan oinarrituta multzokatu dira xede kolektiboak eta/edo babestutakoak. Etnikoa, sexuala eta beste talde batzuek osatutako hirugarren sektore bat. Lehenengo biek, bai soziologiaren arloan, bai mundu juridikoan eta diskriminazioaren aurkako politika publikoen alorrean, ezagut daitezkeen eta ezagunak diren logika historikoei erantzuten diete. Hirugarrenak gizartean ikusteko zailagoak diren sektoreak

⁸⁶ TAMARIT SUMALLA, «Artículo 174», 1221. or.

biltzen ditu; legegintzan, beranduago zehaztu dira gorroto-gertakariengatik erasoen xede izandako subjektu gisa. Jarraian azalduko diren datuetan, gainera, agerian geratzen da gertakari horiei buruz bildutako datuetan oldarkortasun-zifra txikiak islatzen direla; hala ere, ez da horren ondorioz atera behar haien aurkako gorroto-delitugintza ez denik hain larria edo garrantzitsua, baizik eta ezkutuagoa dela, bestelako eraso-logika batzuei erantzuten diela, eta etorkizunean horiek ikustera emateko estrategia bereziak beharko direla.

Hiru makro-taldean zirriborro lauso horrek antolamendurako abiapuntu bat ematen du, baina, era askotako azpikategoriak identifikatuz, horiek banakatuta aurkezteko bidea ematen dio txostenari eta, beraz, *ad hoc* informazio-tresna gisa balio dezake kolektibo zehatzagoentzat eta polibiktimizazio eta interseksionalitate-kasuetarako.

Laburpen gisa, txosten honetan erabiliko den terminologia proposamena, «1.2. *Kategoriaren arabera sailkapenari buruzko jarrera eta azalpena*» atalean xeheki garatua.

Txostena **bloke edo kolektibo** izeneko hiru gai multzo orohartzaitan ardatzuta da. Hizpidera ekarriko den lehen kolektiboa etnikoa da (Arrazakeriaren eta xenofobiaren xede den multzoa, adiera zabalenean), eta ondoren kolektibo sexuala. Azkenik, beste kolektibo batzuk formula generikoa erabiliko da, horren izendapenak gainerako bien aldean garrantzi gutxiago duela esan nahi gabe; izan ere, sailkapen ireki bat da, hasierako multzoetan sartu ezineko talde heterogeneoetako edozeinetarako.

Esparru orokor horien ondoren, bloke edo kolektibo bakoitzak barne hartzen ditu **erreferentzia talde** zehatzagoak, berdin-berdin bidera daitezkeenak, nolabait lotura komun bat dutelako, etnikora, sexualera edo aurreko biek in erlaziorik ez duten beste motibazio batzuetara. Hala, bada, hiru talde aipatzen dira kolektibo etnikoan: (i) arraza, etnia eta nazionalitatea; (ii) ideologia eta joera politikoa; (iii) erlijioa eta sinesmenak. Kolektibo sexuarean, lau dira erreferentziako taldeak: (iv) sexu-orientazioa; (v) sexu-identitatea; (vi) generoa; (vii) genero-identitatea. Eta beste kolektibo batzuk multzoan honako hauek bildu dira: (viii) gaixotasuna eta desgaitasuna / aniztasun funtzionala duten pertsonak; (ix) adina; (x) aporofobia edo egoera sozioekonomikoa; (xi) familia-egoera. Laburbilduz, guztira, 11 talde identifikagarri eta hautemangarri aurkeztu dira txosten honetarako.

Azkenik, eta guztietara predikatu ezin bada ere, erreferentziako taldeak ere zenbait **kategoria edo markatzaile**tan banakatu dira, eta horrela aukera sorta zabaldu da. Kategoria horiei esker, biribilago zehaztu daiteke zer jokabide gertatzen diren gorroto-gertakarietan, lehendik zeuden aurreiritzien arabera betiere; aldi berean, lotura izango dute horiek barne hartzen dituen

talde nagusiarekin ere. Hala, kolektibo etnikoaren barruan, lehen eta hirugarren erreferentzia taldeetarako markatzaileak prestatu dira. Kolektibo sexualaren barruan, laugarren eta seigarren erreferentzia taldeetarako soilik jaso dira markatzaileak. Azken kolektiborako eta, beraz, hura osatzen duten erreferentzia taldeetarako, ez da jaso markatzaile gehigarririk. Lehen taldeari, arraza, etnia eta nazionalitateari buruzkoari, dagokionez, markatzaile hauek aipatu dira: *arabiarra, asiarra, beltza, zuria, latino, beste arraza edo jatorri etnikoa, ijitoa eta nazioa edo jatorri nazionala*. Hirugarren taldean, erlijio eta sinesmenei buruzkoan, markatzaile hauek daude: *islamiarra (musulmana), kristaua, beste erlijio batzuk, ateo edo agnostikoa eta antisemitismoa*. Laugarren taldean, sexu-orientazioari dagokionez, markatzaile hauek azaleratu dira: *gaya, lesbiana, heterosexuala, transexuala, intersexuala eta LGTBI taldea edo talde mistoa*. Azkenik, seigarren taldean, generoari buruzkoan, *gizon eta emakume* markatzaileak aipatu dira.

3. **DELITU MOTAK.** Hirugarren eta azken gakoa da kriminalitate eta arau-hauste administratibo mota bat baino gehiago jasotzea aukeratu dugula txosten honetan. Datu orokorretan ez da bereizketarik egiten, baina adierazitako diferentziazioari esker profil kriminologikoak antolatu daitezke, gorroto-gertakaria hura eragin edo bultzatzen duen etiologiaren arabera zehazteko: propaganda-delituak (ZKren 510. art., mehatxuak), delitu astunduak (ZKren 22.4 art.), diskriminazio-delituak (ZKren 511., 512., 314. art.) eta abar. Gertakariak behin-behinean lege-aurreikuspen jakin batean txertagarritzat sailkatzea baliagarria da azken zifra orokor –bateratua– lortzeko, eta halaxe ere, zifra hori banakatzeko analisi-prozesuak ere lagungarriak izan daitezke era askotako mapa deskribatzaileak moldatzeko (delituak adiera hertsian vs adiera zabalean; hainbat kolektiboren aurkako gertakari eta delituak; eta beste), logika kriminologiko bereiziei dagozkienak barne. Diferentzia horiek informazioa findu eta zehazten lagundu behar dute; ez dira inoiz interpretatu edo erabili behar jokabide batzuek besteen aldean –edo talde batzuek besteen aldean– duten garrantzia gutxitu edo hutsaltzeko.




2016KO GORROTO-
GERTAKARIAK

2. 2016KO GORROTO-GERTAKARIAK

2.1. Ezagutzen diren gertakarien banaketa

2016an 146 gorroto-gertakari erregistratu ziren Euskadin: horietatik 124 delituak izan ziren, eta 22 arau-hauste administratiboak. Gorroto-delituen esparruari dagokionez, 1. irudian ikus daitekeen bezala erdiak baino gehiago arrazistak edo xenofoboak dira, eta nabarmengarriak dira sexu-orientazioarekin eta -joerarekin lotutakoak ere, guztizkoaren laurdena hartzen baitute; ideologiari eta/edo joera politikoari buruzkoak, berriz, % 14 dira. Bestalde, 22 arau-hauste administratiboak ez dira sartu 1. irudian, alderdi kualitatiboan bestelakotzat jo direlako. Bada, horiek guztiak ideologiaren eta/edo joera politikoaren eremuan gertatu dira.


1. irudia. Delituen banaketa kolektiboaren arabera (2016)




	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	GUZTIRA
APOROFOBIA	-	2	-	2
GAIXO./DESGAI. / ANIZ. FUNTZIONALA	-	3	-	3
IDEOLOGIA / JOERA POLITIKOA	-	17	-	17
SEXU-ORIENTAZIOA / -IDENTITATEA	5	22	4	31
ARRAZAKERIA / XENOFOBIA	6	51	11	68
ERLIJIOA ETA SINESMENAK	1	2	-	3
GUZTIRA	12	97	15	124

Bestalde, 2. irudiak gertalekuaren arabera banatuta erakusten ditu legez kanpoko egintzak, eta ohikoaren artean nabarmenak dira bide publikoa, etxebizitzak eta aisialdiko edo ostalaritzako lokalak. Azpian, 3. eta 4. irudietan, hilaren eta asteko egunaren arabera banaketa jaso da.


2. irudia. Delituen banaketa gertalekuaren arabera (2016)



3. irudia. Delituen banaketa hilaren arabera (2016)




4. irudia. Delituen banaketa asteko egunaren arabera (2016)



Ondoren, 5. irudian, arrazakeriako/xenofobiako 68 delituen lurralde-banaketa jaso da, aurreiritziaren azpian datzan biktimaren etniaren/arrazaren arabera. Laburbilduz, hona hemen jasotako datuak: zehaztu gabe⁸⁷ ($n = 7$; % 10,29), beltza ($n = 18$; % 26,47), ijitoa ($n = 8$; % 11,76), zuria ($n = 2$; % 2,94), arabiarra ($n = 23$; % 33,82); latinoak ($n = 9$; % 13,23), eta asiarrak ($n = 0$; % 0). Arabiarren kolektiboa da biktima nagusia, ia-ia kasu guztien % 35; beltzena ere nabarmentzen da, % 25 baino gehiago baitira. Gainera, kasuen % 10ean ez da identifikatu biktima zein kolektibokoa den. Era beran, Bizkaiak 51 kasu biltzen ditu, hau da, % 76,11; Gipuzkoan 11 kasu metatu dira, edo % 16,42; eta Araban 5 gertatu dira, hau da, % 7,46 soilik.


⁸⁷ Kontu operatiboak direla eta, biktima zein kolektibokoa den behar bezain egoki zehaztu ezin izan den kasuak dira.

5. irudia. Arrazakeria- / xenofobia-delituen banaketa, gertatu diren lurralde-historikoaren arabera (2016)



Biktimaren sexu-orientazioan eta/edo -identitatean oinarritutako delituei dagokienez, berriz ere Bizkaian jakinarazi dira kasu gehien (6. irudia): guztira 31.

6. irudia. Sexu-orientazioarekin/identitatearekin lotutako delituen banaketa, gertatu diren lurralde-historikoaren arabera (2016)




Halaber, ideologia edo joera politikoa dela-eta abiarazitako 17 kasuak Bizkaian gertatu dira guztiak, eta gauza bera gertatzen da gaixotasun eta desgaitasunean oinarritutako 3 kasuekin eta aporofobian oinarritutako 2 kasuekin; azkenik, erlijioarekin eta sinesmenekin lotutako 3 gorroto-delitu erregistratu dira, horietako 2 Bizkaian eta 1 Araban, baina ez dakigu zein izan den ukitutako kolektiboa.

2.2. Arau-hauste administratiboak lurralde historikoaren arabera

Bestalde, 22 arau-hauste administratiboak ideologiaren eta joera politikoaren eremuan gertatu dira, eta honela banatzen dira (7. eta 8. irudiak).


7. irudia. Arau-hauste administratiboak lurralde historikoaren arabera (2016) 8. irudia. Arau-hauste administratiboak udalerriaren arabera (2016)



2.3. Egozpenen banaketa

Egotzi⁸⁸ gehienak espainiarrak dira (9. irudia): guztira dauden 88 kasuetatik 60, eta horietatik 52 Euskadikoak dira. Era berean, batez besteko adina 36 urte da –14 urtetik 72ra bitarte dituzte– eta, sexuaren arabera banatuz gero, 24 emakumezkoak dira (% 27,2) eta 64 gizonezkoak (% 72,8).


9. irudia. Egotziak jatorriko eskualdearen arabera (2016)



Egotziak dira (88 kasuetatik) 2016ko Euzko Legeburuak onartutako arau-hauste administratiboak egiten diren pertsonak (eguzki-eguzki delitua egitea leporatu zaienez Ertzaintzaren polizia-eginbideen xede diren pertsonak).


Egozpenak lurralde historikoaren arabera banatuz gero (10. irudia), ikusi daiteke Bizkaian gertatu direla gehienak, bai zifra absolutuetan bai proportzioan. Izan ere, erregistratutako 52 egozpenetatik Bizkaian bildu dira 38, eta ehun mila biztanleko egozpen-tasari bagagozkio, 3,1eko balioa agertzen du: hau da, Arabak eta Gipuzkoak batera dutenaren bikoitza baino gehiago.

10. irudia. Egoztiak jatorriko lurralde historikoaren arabera (2016)



Bestalde, 11. irudiak udalerri-mailan banatuta erakusten ditu egozpenak, eta toki-mailan bereziki adierazgarriak dira Bizkaiko udalerri jendetsuenak.


11. irudia. Egoztiak Euskadiko jatorriko udalerriaren arabera (2016)




2.4. Atxiloketen banaketa

Atxiloketei dagokienez, 12. eta 13. irudietan 7 kasu erregistratu dira soilik (sei gizon eta emakumezko bat), atxilotuen batez besteko adina 41 urte da, eta 19 urtetik 59ra bitarte dituzte. Halaber, atxilotuetatik 5ek Euskal Autonomia Erkidegoan dute jatorria (4k Bizkaian eta batek Araban); gainerako bietatik, bat Madrilgoa da (Espainia) eta bestea Kolonbiakoa.

12. irudia. Atxilotuen profil demografikoa (2016)




13. irudia. Atxilotuak jatorriko eskualdearen edo tokiaren arabera (2016)



2.5. Biktimizazioen banaketa

14. irudian ikus daitekeen bezala, biktimen % 61,5 baino gehiago espainiarrak dira (109, 177 kasutatik). Gehienak Euskadikoak dira, eta bereziki Bizkaia nabarmentzen da, egozpenekin ikusitako joera berberari jarraikiz. Afrikako biktimak dira bigarren kolektibo biktimizatuena (% 23,8), eta latinoamerikarrak daude ondoren (% 7,9); oro har, atzerriko biktimen portzentajea guztizkoaren 1/3 da. Azkenik, batez besteko adina 36 urte da, eta 4 urtetik 67ra bitarte dituzte.

14. irudia. Biktimak jatorriko eskualdearen arabera (2016)




Nazionalitatea (n)	
Aljeria	2
Bolivia	2
Brasil	3
Cabo Verde	1
Kamerun	1
Kolonbia	4
Ekuador	1
Egipto	6
Espainia	109
Guatemala	1
Maroko	22
Mauritania	1
Z/G	7
Nikaragua	1
Nigeria	4
Pakistan	2
Paraguai	1
Kongoko Errep.	1
Errumania	1
Senegal	4
Turkia	2
Venezuela	1
Guztira	177

Adina \bar{X}
36

Sexoa (n)	
E	70 (39,5%)
G	107 (60,5%)


Biktimizazioak lurralde historikoaren arabera banatzen direnean (15. irudia), kasu gehienak Bizkaian metatzen dira berriz. Izan ere, 101 biktimizazioetatik Bizkaian gertatu ziren 87, eta era berean, Bizkaian ehun mila biztanleko dagoen biktimizazio-tasak (7,6) are gehiago nabarmendu du Araba eta Gipuzkoaren aldean kopuru handiagoa izateko joera hori.

15. irudia. Biktimak jatorriko lurralde historikoaren arabera (2016)




Bestalde, 16. irudiak udalerrri-mailan erakusten du egozpenen banaketa, eta beste behin ere, demografiaren ikuspegitik Bizkaiko bi udalerrri nagusietan jazo dira gehienak: hots, Bilbon eta Barakaldon. Azpimarratu daiteke, erregistro eskasak izanik ere, Barakaldok ratio handia duela biztanle kopuruarekin alderatuz gero (100.000 biztanle).

16. irudia. Biktimak Euskadiko jatorriko udalerrriaren arabera (2016)



Biktimen adinari dagokionez (17. irudia), ia 1/3 gazte helduak dira, 18 eta 30 urte arteko adin-tartean. Gainerako adin-tarteetan, haurrak (0-9), nerabeak (10-17) eta adinekoak (+65) batuz gero % 12 inguruko emaitza lortzen da; beste adin-tarteek, berriz, antzeko kasu kopurua agertzen dute, % 17-19 artean.

17. irudia. Biktimen adina (2016)




2.6. Gorroto-gertakarien sailkapena, delituen tipologiaren arabera

18. irudian, delituen tipologiaren arabera banatuta erakusten dira 146 gorroto-gertakariak, eta mehatxuak (28 kasu), derrigortzeak (14 kasu), kalteak (17 kasu) eta lesioak (23 kasu) nabarmentzen dira. Adierazi behar da, orobat, 2 delitu agintarien aurkako erresistentziaren edo atentatuaren esparrukoak direla, eta laneko diskriminazio-kasu bat dagoela halaber. Horrez gain, 22 arau-hauste administratibo gertatu dira, guztiak kiroleko indarkeriaren/arrazakeriaren eremuan.

- **Jazarpena:** ZKren 172 ter artikulua.
- **Mehatxuak:** ZKren 169., 170. eta 171. artikulua.
- **Derrigortzeak:** ZKren 172. eta 172 bis artikulua.
- **Kalteak:** ZKren 263. artikulua.
- **Laneko diskriminazioa:** ZKren 314. artikulua.
- **Gorroto-diskurtsoa:** ZKren 510. artikulua.

- **Irainak:** ZKren 208. eta 209. artikulua.
- **Lesioak:** ZKren 147. eta 148. artikulua.
- **Agintaritzaren aurkako erresistentzia/atentatua:** ZKren 550. eta 556. artikulua.
- **Indarkeriazko lapurreta:** ZKren 242. artikulua.
- **Tratu apalesgarria:** ZKren 173. artikulua.
- **Kiroleko indarkeria/arrazakeria:** 19/2007 Legea, uztailaren 11koa, kirol-ikuskizunetan egon daitekeen indarkeria, arrazakeria, xenofobia eta intolerantziaren aurkako.

18. irudia. Delituen tipologia






2017KO GORROTO-
GERTAKARIAK

3. 2017KO GORROTO-GERTAKARIAK

3.1. Ezagutzen diren gertakarien banaketa

2017an 143 gorroto-gertakari erregistratu ziren Euskadin: horietatik 129 delituak izan ziren, eta 14 arau-hauste administratiboak. Erregistratu diren 129 delituen artetik, % 55 arrazakeriakoak edo xenofobiakoak izan dira, 19. irudian ikus daitekeen bezala, eta nabarmengarriak dira sexu-orientazioarekin edo -identitatearekin lotura duten % 25 ere; hau da, 2016ko zifra ia berberak. Ildo horretan, jauzi kuantitatibo nabariena, proportzioan, erlijioaren eta sinesmenen eremuan gertatu da: 7 dira, aurreko urteko 3en aldean. 2016ko zatian bezala, hurrengo atalean emango da 2017ko 14 arau-hauste administratiboen berri.


19. irudia. Delituen banaketa kolektiboaren arabera (2017)




	ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	GUZTIRA	± (2016)	%
APOROFOBIA	-	1	-	1	-1	-50%
GAIXO./DESGAI. / ANIZ. FUNTZIONALA	1	1	-	2	-1	-33%
IDEOLOGIA / JOERA POLITIKOA	2	8	6	16	-1	-5,88%
SEXU-ORIENTAZIOA / -IDENTITATEA	1	27	4	32	1	3,22%
ARRAZAKERIA / XENOFOBIA	6	47	18	71	3	4,41%
ERLIJIOA ETA SINESMENAK	-	4	3	7	4	133,33%
GUZTIRA	10	88	31	129	5	4,03%

Bestalde, 20. irudian gertalekuaren arabera banatuta erakusten dira delituak, eta hiri-bide publikoetan biltzen dira 2017ko delituen ia erdiak; aldiz, ostalaritzako edo aisialdiko lokalak eta etxebizitzak % 15 inguruan geratzen dira. Aipagarria da nabarmen beheratu dela ibilgailu p artikularretan gertatutako delitu-egintzen kopurua: 2016an 8 kasu izan ziren, eta 2017an, aldiz, bat ere ez. Ondoren, 21. eta 22. irudietan, egunaren eta hilaren arabera banatuta jaso dira delituak.


20. irudia. Delituen banaketa gertalekuaren arabera (2017)



21. irudia. Delituen banaketa hilaren arabera (2017)




22. irudia. Delituen banaketa asteko egunaren arabera (2017)




Ondoren, 23. irudian, arrazakeriako/xenofobiako 71 delituen lurralde-banaketa jaso da, biktimaren etniaren/arrazaren arabera. Laburbilduz, hona hemen jasotako datuak: zehaztu gabe ($n = 17$; % 23,94), beltza ($n = 20$; % 28,17), ijitoa ($n = 7$; % 9,86), latinoak ($n = 1$; % 1,4), arabiarra ($n = 25$; % 32,21); asiarra ($n = 1$; % 1,4) eta zuria ($n = 0$). Joera nabarmena ikus daiteke kasuen erregistroari dagokionez; izan ere, 71 kasuetatik 17tan (% 23,94) ez da identifikatu zer kolektibotakoa den biktima. Berriz ere, 2017an Bizkaian izan dira kasu gehienak: erregistratutako 71etatik 47 (% 66,20). Gipuzkoan erregistroa goratu da, 17 kasurekin (% 23,94), eta Arabak berdintsu jarraitzen du, 8 kasurekin (% 11,27). Datu aipagarria da latinoen kolektiboan ez dela erregistratu deliturik, aurreko urteko 8ekin alderatuz gero.

23. irudia. Arrazakeria- / xenofobia-delituen banaketa, gertatu diren lurralde-historikoaren arabera (2017)



Biktimaren sexu-orientazioa eta/edo -identitatean oinarritutako aurreiritzia dela eta gertatu diren delituen kasuan (24. irudia), Bizkaian jakinarazi dira ia guztiak, ia % 85.

24. irudia. Sexu-orientazioarekin/identitatearekin lotutako delituen banaketa, gertatu diren lurralde-historikoaren arabera (2017)




Gainerako kolektiboek dagokienez, ideologia eta/edo joera politikoaren aurkako 16 kasuren berri jaso du Ertzaintzak: 2 Araban, 8 Bizkaian eta 6 Gipuzkoan. Halaber, erlijio-sinesmen/-praktikekin lotutako 7 kasu erregistratu ziren, honela banatuta: 0 Araban, 4 Bizkaian eta 3 Gipuzkoan. Azkenik, desgaitasuna / aniztasun funtzionala dutenen kolektiboarekin lotutako bi kasu gertatu dira (bana Bizkaian eta Araban), eta aporofobia kasu bakarra, Bizkaian.

3.2. Arau-hauste administratiboak eskualdearen arabera

Bestalde, 2017an erregistratutako 14 arau-hauste administratiboak xenofobiaren, ideologiaren eta/edo joera politikoaren esparrukoak izan dira, eta kirol-ekitaldiak direla-eta gertatu dira guztiak.


24. irudia. Arau-hauste administratiboak lurralde historikoaren arabera (2017) 25. irudia. Arau-hauste administratiboak udalerriaren arabera (2017)



3.3. Egozpenen banaketa


Egozien artean (26. irudia), gehienak espainiarrak dira: guztira dauden 96 kasuetatik 126, eta horietatik 72 Euskadikoak dira. Era berean, batez besteko adina 37 urte da -14 urtetik 76ra bitarte dituzte- eta, sexuaren arabera banatuz gero, 29 emakumezkoak dira (% 23) eta 97 gizonezkoak (% 77).

26. irudia. Egoziak jatorriko eskualdearen arabera (2017)




Lurralde historikoaren araberako egozpenetan, 27. irudia, berriz ere Bizkaiak hartzen ditu kasu gehienak, 52 egotzi baititu –Euskadin dauden 72etatik –, eta 4,5eko tasa ehun mila biztanleko. Hala ere, Araban gertatu da aldaketa nabariena. Izan ere, 2016an 4 delitu eta ehun mila biztanleko 1,23ko tasa izan zituen, eta 2017an, berriz, guztira 10 delitu eta ehun mila biztanleko 3,06ko tasa. Gipuzkoak aurreko urteko zifra berberei eutsi dio, ordea: 10 delitu, eta 1,39ko tasa.

27. irudia. Egotziak jatorriko lurralde historikoaren arabera (2017)



Egozpenak udalerrien arabera banatuta erakusten dira 28. irudian, eta aurreko urtean bezala, antzeko zifrak metatu dituzte Bilbok eta Barakaldok; dena dela, berriz ere aipamena egin behar zaie herri txiki batzuek dituzten zifrei: adibidez, Gernika-Lumok (17.000 biztanle).

28. irudia. Egotziak Euskadiko jatorriko udalerriaren arabera (2017)




3.4. Atxiloketen banaketa

2017an guztira 15 gizon atxilotu dira, eta emakumerik ez. Atxilotuen batez besteko adina 28 urte da, eta 17 urtetik 40 urtera bitarte dituzte. Zifra horiek 2016koak halako bi dira, eta atxilotuen jatorrian heterogeneotasun handiagoa ere ikus daiteke (31. irudia).

30. irudia. Atxilotuen profil demografikoa (2017)




31. irudia. Atxilotuak jatorriko eskualdearen edo tokiaren arabera (2017)



3.5. Biktimizazioen banaketa

2017ko biktimizazioetan (32. irudia), biktimen % 43,33 espainiarra da, eta horien artean ia % 80 Euskadikoa. Demografiari dagokionez, batez besteko adina 35 urte da, 7 urtetik 67 urtera bitarte dituzte, eta sexuaren arabera banatuz gero, 2/3 gizonak dira eta 1/3 emakumezkoak. Afrikako biktimak dira bigarren kolektibo biktimizatuena (% 30), eta latinoamerikarrak daude ondoren (% 16,67). Guztira, biktimen % 50 baino apur bat gehiago da atzerritarra. Gehikuntza nabarmena da aurreko urtearekin alderatuz gero.

32. irudia. Biktimak jatorriko eskualdearen arabera (2017)



Nazionalitatea (n)

Alemania	1
Aljeria	8
Bolivia	2
Brasil	1
Kamerun	2
Zipre	1
Kolonbia	12
Kuba	1
Ekuador	3
Espainia	71
Frantzia	1
Granada	11
Equate Guinea	1
Mali	4
Maroko	23
Nigeria	4
Pakistan	4
R. Dominikarra	2
Errumania	2
Senegal	3
Venezuela	1
Guztira	150

Adina \bar{X}


35

Sexoa (n)

E	51 (34%)
G	99 (66%)


Biktimizazioak lurralde historikoaren arabera banatzeari dagokionez (33. irudia), Bizkaian bildu dira 56 kasuetatik 44 (% 78,6), eta 3,83ko biktimizazio-tasa izan du ehun mila biztanleko. Bestalde, Arabak 0,3ko tasa agertzen du, eta Gipuzkoak 1,53koa. Zifra horiek 2016koekin alderatuz gero, askoz ere txikiagoak dira Araban eta Bizkaian, baina handiagoak Gipuzkoan.

33. irudia. Biktimak jatorriko lurralde historikoaren arabera (2017)




Egozpenak udalerrien arabera banatuta erakusten dira 34. irudian, eta aurreko urtean bezala, gainerakoak baino gehiago nabarmentzen dira Bilbo eta Barakaldo. Hala ere, aurreko urtearekin alderatuz gero, ratioak beherakada nabarmena izan du proportzioan, % 50 baino gehiagokoa: Bilbon 44 ziren, eta 16 dira orain, eta Barakaldon 22 ziren, eta 10 dira orain.

34. irudia. Biktimak Euskadiko jatorriko udalerriaren arabera (2017)



Biktimen adinari dagokionez (35. irudia), ia % 30 gazte helduak dira, 18 eta 30 urte arteko adin-tartean. Gainerako adin-tarteetan, haurrak (0-9), nerabeak (10-17) eta adinekoak (+65) batuz gero, emaitza ez da % 10era iristen; beste adin-tarteek, berriz, 31 urtetik 65era bitartean, beheranzko joera agertzen dute, % 26tik %12ra.




3.6. Gorroto-gertakarien sailkapena, delituen tipologiaren arabera

36. irudian, delituen tipologiaren arabera banatuta erakusten dira 143 gorroto-gertakariak, eta lesioak (39 kasu) eta mehatxuak (25 kasu) nabarmentzen dira. Bien batura gertakari guztien % 44 da. 2016an bezala, gorroto-diskurtso gisa sailkatutako kasuak tentuz hartu behar dira kontuan, auzibide eskasa izan ohi dute eta. Aipatu behar da, halaber, kontzientzia-askatasunaren eta erlijio-sentimenduen aurkako 2 delitu daudela, eta sekretuak ezagutarazi edo agerrarazi diren beste 2 kasu. Horrez gain, 14 arau-hauste administratibo gertatu dira, guztiak kiroleko indarkeriaren/arrazakeriaren eremuan.

- **Mehatxuak:** ZKren 169., 170. eta 171. artikulua.
- **Derrigortzeak:** ZKren 172. eta 172 bis artikulua.
- **Kalteak:** ZKren 263. artikulua.
- **Sekretuak ezagutarazi edo agerraraztea:** ZKren 197.5 artikulua.
- **Gorroto-diskurtsoa:** ZKren 510. artikulua.
- **Irainak:** ZKren 208. eta 209. artikulua.

- **Lesioak:** ZKren 147. eta 148. artikulua.
- **Kontzientzia-askatasuna:** ZKren 522. artikulutik 526.era.
- **Agintaritzaren aurkako erresistentzia/atentatua:** ZKren 550. eta 556. artikulua.
- **Indarkeriazko lapurreta:** ZKren 242. artikulua.
- **Tratu apalesgarria:** ZKren 173. artikulua.
- **Kiroleko indarkeria/arrazakeria:** 19/2007 Legea, uztailaren 11koa, kirol-ikuskizunetan egon daitekeen indarkeria, arrazakeria, xenofobia eta intolerantziaren aurkako.

36. irudia. Delituen tipologia (2017)



4. ONDORIOAK

Txostenaren azken atal honetan bi azpiatal bereiziko dira: lehenengoan (4.1), orain arte azaldutako datuen ondorioz ateratako alderdi aipagarrienak aztertzen dituen aurkezpen bat egingo da; bigarren azpiatalean (4.2), gomendio sorta bat emango da.

4.1. EAEko gorroto-gertakarien mapa: alderdi nagusiak

1. Gertakari kopurua, guztira

2016an 146 gorroto-gertakari erregistratu ziren Euskadin: horietatik 124 delituak izan ziren (% 85), eta 22 arau-hauste administratiboak (% 15). Oso antzekoak izan ziren 2017ko zifrak ere: Ertzaintzak 143 gorroto-gertakari jaso zituen, eta horietatik 129 delituak izan ziren (% 90,2) eta 14 arau-hauste administratiboak (% 9,8).

Estatu osoko datuei dagokienez, Barne Arazoetako Ministerioaren azken txostena, 2016. urteari buruzkoa, hartzen bada erreferentzia gisa, estatu osoan jakinarazitako gorroto-gertakari guztien (1.272) % 11,48 gertatu ziren Euskadin. Ildo horretan, datuak testuinguruan kokatzeko, 2016. urte amaieran, estatu osoko 46.557.008 biztanleetatik 2.189.534 zituen Euskadik -1,14M biztanle Bizkaiak, 0,71M biztanle Gipuzkoak eta 0,32M biztanle Arabak-: hau da, biztanle guztien % 4,7 biltzen zituen (EIN, 2017). Bestalde, Ministerioaren datuekin alderatuz gero, antzeko joerak ikus daitezke egotzien eta biktimen demografia-profilari dagokionez, eskuarki espainiar nazionalitatea baitute -% 60k baino gehiagok-, eta delitu-tipologia ohikoenei dagokionez ere -mehatxuak eta lesioak-.

Euskadin erregistratutako bi urteetako joerak (2016-2017) ez dute agerian utzi aurrerabide edo gorakada nabarmenik fenomenoaren antzemateko orduan; bestalde, joera bera errepikatu da Barne Arazoetako Ministerioak azken urteetan estatu osorako bildutako datuetan ere (2013-2016).

2. Banaketa geografikoa

Banaketa geografikoari dagokionez, Araba eta Gipuzkoa lurralde historikoen gainera agertzen da Bizkaia, bai zifra absolutuetan bai proportzioan, eta bereziki nabarmentzen dira Bilbo eta Barakaldo udalerriak. Hala, Bizkaian gertatu ziren 2016ko 124 gorroto-delituetatik 97 (% 78,2), eta 2017an erregistratutako 129 delituetatik 88 (% 68,25); Araban, berriz, 12 (% 9,8) eta 10 (% 7,75) erregistratu ziren 2016an eta 2017an, eta Gipuzkoan, 15 (% 12) eta 31 (% 24) denboraldi berean. Begi-bistako azalpen bat da beste bi lurralde historikoak baino biztanle gehiago dituela Bizkaiak, Arabaren biztanleak halako hiru eta Gipuzkoak baino % 60 gehiago dituenaz. Dena dela, datu hori guztiz azalekoa da ez baditugu kontuan hartzen Kriminologiak eta kideko

beste zientzia batzuek luze-zabal aztertutako hainbat faktore; izan ere, alor horietako literaturak ondorioztatzera eman du hiri-garapen handiagoa izateak eta horrek berekin dakarren guztiak kriminalitate-maila handiagoa erakartzen edo errazten dutela, baita aukerei dagokienez ere.

3. Babestutako kolektiboak

Bai 2016an bai 2017an, batez beste delituen % 90 baino gehiago gertatu zen hiru kategoria hauetakoren batean: arrazakeria/xenofobia (% 55), sexu-orientazioa eta -identitatea (% 25) eta ideologia eta joera politikoa (% 13%). Aldiz, urtean 10 kasu baino gutxiago gertatu dira desgaitasuna / aniztasun funtzionala, erlijio-sinesmenak eta praktikak eta aporofobia kategorietan, guztira.

Kolektibo etnikoa adiera zabalenean ulertu eta orokorrean hartzen bada kontuan (arrazakeria/xenofobia, sinesmenak/erlijioa, eta ideologia eta joera politikoa gehituta), orotara delituen % 70 bildu zituen multzo horrek 2016an (% 75, arau-hauste administratiboak gehitzen badira), eta ia-ia % 73 2017an (berriz ere % 75 arau-hauste administratiboak gehitzen badira). Beraz, erregistratutako gorroto-maparen ia-ia hiru laurdenak baina apur bat gutxiago hartzen du kolektibo etnikoaren zerrendak. Hori bat dator arrazakeriaren eta xenofobiaren aurkako legeria hasieratik bideratu duen espirituarekin: zeren, hain zuzen, fenomeno arrazista eta etnikoari erantzuten baitzion jatorrian, delituzko jokabideak bultzatzen dituen motibazio handiena zela ulerturik.

Kolektibo sexualean, bereziki, homosexualen kolektiboaren aurkako jokabideekin lotutakoak, kasu guztien 1/4 izan dira bi urteetan. Hori ere bat dator gure inguruko beste jurisdikzio batzuetan dauden joerekin, horietan ere haien aurka egindako delitu-jokabideen kuota nabarmena baitute kolektibo horiek.

Gainerako taldeek, hirugarren zerrendan, erregistro-maila hutsala dute. Gorrotoaren aurkako legeriaren alor konparatzailea berandu hasi da kolektibo horiek legearen babespean sartzen, eta literaturan orokortuta dago jokabide horiek, besteak baino hein handiagoan, zifra beltzean murgilduta jarraitzen dutelako ideia.

Arrazakeriarekin eta xenofobiarekin zerikusia duten delituen kasuan, arabiarren eta beltzen kolektibo babestuak dira kaltetu nagusiak. Hala 2016an nola 2017an joera bera mantendu da, eta gutxienez delituen % 50en izan dira bi kolektibo horiek biktima; batez beste, % 33 arabiarrek izan dira eta % 28 beltzak. Hirugarren talde nagusia ijitoen kolektiboa izan da (% 10). Nolanahi ere, adierazitako datu horiek tentu bereziz hartu behar dira kontuan; izan ere, kontu operatiboak direla-eta kasu-portzentaje jakin batean ezin izan da zehaztu zer kolektibokoa den biktima.

Adinaren batez bestekoa, 2016-2017 urteetan, 35 urte izan da, eta biktimen 2/3 gizonezkoak eta 1/3 emakumezkoak izan dira. Urtearen arabera banakatzen baditugu, 2016an biktimen % 33k 18 eta 30 urte artean zituzten, eta 0-17 arteko eta 65etik gorako adin-tartean batura, berriz, % 10 ingurukoa da. Bestalde, 2017an ere mantendu da joera hori, aurreikus daitekeenez: 18 eta 30 urte arteko adin-tartean % 30 dago, eta ondorengo tartean apurka beheratzen doa, 65 urtetik gorako adinean hondar batzuk soilik geratu arte.

4. Egozpenak

Egozpenei dagokienez, 2016-17 denboraldian egotzitakoen % 58 Euskadikoa da eta % 15 inguru estatuko gainerako eremuetakoa; latinoamerikarrak egotzian % 12 dira eta afrikarrak % 10 baino apur bat gutxiago. Bestalde, jasotako bi urteetan 21 atxiloketa egin dira: 2016an 7 –6 gizon eta 1 emakume, eta batez besteko adina 41 urte–, eta 2017an 15 –15 gizon, eta batez besteko adina 28 urte–.

Lagina eskasa denez, datu horiek ez dira estatistikoki esanguratsuak, eta lanerako ildo bat ematen dute soilik, etorkizunean justizia-administrazio sisteman egiten den ibilbidearen trazabilitate-aztarnari jarraitzeari begira.

5. Delituen tipologia

5.1. Gertakari guztiak –arau-hauste administratiboak salbu– delitu-mapa batean jasoz gero, lesioak azaleratzen dira lehenbiziko erreferentzia gisa, mehatxuekin eta adiera hertsian ulertutako gorroto-diskurtsoarekin (ZKren 510. artikulua) batera. Hiru multzo horietan erregistratu da gertakari kopuru erlatibo handiena kontuan hartutako bi urteetan. Horiek horrela, 2016an ordena hau izan zuten: mehatxuak (28 gertakari; % 22,5), gorroto-diskurtsoa (27 gertakari; % 21,7) eta lesioak (23 gertakari; % 18,5). Hiruen artean, % 62 baino zertxobait gehiago dira (% 62,7). 2017an, aldiz, lesioek hartu zuten lehenengo postua (39 gertakari; % 30,23), eta atzetik etorri ziren mehatxuak (25 gertakari; % 19,38) eta gorroto-diskurtsoa (19 gertakari; % 14,73). Hiruen artean, % 63.

5.2. Lesioak izan ziren jokabide multzo aipagarriena 2017an, eta delituen % 18 eta % 31 arteko tartea hartu zuten 2016an eta 2017an. Erregistratutako gertakari kopuru erlatibo handieneko multzoen artean hirugarrena izatetik (2016) lehenengoa izatera (2017) igaro da (2016an 23 gertakari izatetik, 2017an 39 izatera). Multzo hori astunduko luke Zigor Kodearen 22.4 artikulua azken batean, eta lesioen larritasunaren arabera, era askotako eraso fisiko bortitzak har ditzake barne. Larritasun handieneko eremuan, zuzenbide konparatzailearen estandarren arabera, jokabide

bortitzen nukleo gogorra dago (bizitzaren aurkako delituekin batera, baina gure erkidegoan oraindik ez da halakorik gertatu).

Ikuspuntu kriminologikoan, kolektiboen aurkako larderiako jokabideen multzoan daude lesioak, jabetzaren aurkako indarkeriako delituekin batera, eta multzo horren barruan «–ekintza bidezko– gorroto-delitu » (*hate crime*) dira, «hitz bidezko delitu –gorroto-diskurtso–» (*hate speech*) baino gehiago. 2016an 43 erregistratu ziren guztira (23, 17 eta 3, hurrenez hurren); hau da, delitu guztien % 34,6. Aldiz, 2017an 48 izan ziren (39, 8 eta 1, hurrenez hurren) eta, beraz, ia-ia % 37,21eraino igo ziren.

5.3. Mehatxuak (% 22,5 2016an; % 19,38 2017an) eta gorroto-diskurtsoa adiera hertsian (% 21,7 2016an; % 14,5 2017an) hitz bidezko delitu-jokabideen lerro berean irudikatzen dira. Guztira, gertakari kopurua % 44 eta % 33,5 artean dago. Araudi juridiko-penalaren sektore horretan egindako aldaketek (1/2015 LOak erreformatutako 510. artikulua) eta jurisprudentzian eman zaion interpretazio murrizgarriak aditzera emandakoaren arabera, oso aukera gutxi daude halakoak zigor arloko salako kondena batekin amaitzeko.

Oro har, gorroto-diskurtsoarekin lotutako delituek, adiera zabalenean, oso gorroto-mapa zabala marrazten dute. 2016an, ia gertakari guztien % 60 (74 gertakari) lortzen da mehatxuak (28), derrigortzeak (14), gorroto-diskurtsoa adiera hertsian (27), irainak (3) eta tratu apalesgarria (2) batzen badira. 2017an, berriz, ia gertakari guztien % 59 (77 gertakari) ateratzen da mehatxuak (25), derrigortzeak (7), gorroto-diskurtsoa adiera hertsian (19), irainak (13), kontzientzia-askatasunaren aurkako delituak (2) eta tratu apalesgarria (11) batzen badira.

5.4. Lesio, mehatxu eta gorroto-diskurtsoak delitu-mapa potentzialaren 2/3 hartzen dituzte ia-ia, baina gainerako herenak oso banaketa heterogeneoa duenez ezin da joerarik sumatu.

2016an derrigortzeetan besterik ez daude kopuru nolabait esanguratsuak (14 gertakari; guztizko delituen % 11,2), eta gainerako banaketan hondar-zifrak agertzen dira kasu guztietan: jazarpena (4 gertakari), irainak (3 gertakari), tratu apalesgarria (2) eta laneko diskriminazio kasu bakarra. Azken horrek (eta 2017an halakorik ez egoteak) aditzera ematen du diskriminazio-delituen multzoa (prestazioa ukatzea, ZKren 511. eta 512. artikulua, eta laneko diskriminazio larria, ZKren 314. artikulua), bereziki, ez dela iristen poliziaren instantziara eta zifra beltzean geratzen dela.

2017an irainen (13) eta tratu apalesgarrien (13) gertakariak izan ziren nolabait adierazgarriak. Gainerakoak honela banatu ziren: derrigortzeak (7 gertakari), sekretuak agerraraztea (3 gertakari) eta kontzientzia-askatasuna (2 gertakari).

Laburbilduz:

- Gorroto-gertakariei edo gorroto-delituei (izan daitezkeenei) buruzko datu orokorrek aditzera ematen dutenaren arabera, halako egonkortasun bat agertzen du 2016an (146 gertakari; horietatik 22 arau-hauste administratiboak) eta 2017an (143 gertakari; horietatik 14 arau-hauste administratiboak) Euskadiko gorroto-mapan erregistratutako errealitate kriminologikoak.
- Babestutako kolektiboei dagokienez, hiru zerrendako egitura ikusten da mapan: kolektibo etnikoa dago jasotako delitu-gertakarien % 70 ingururen jomugan; kolektibo sexuala da gutxi gorabehera % 25en xede; eta bada beste talde batzuek osatutako multzo heterogeneo bat (gaixotasuna, desgaitasuna /aniztasun funtzionala duen pertsona, adina, aporofobia, maila sozioekonomikoa eta familia-egoera), erregistro kopuru txiki-txikia duena. Zifrak ez dira oso adierazgarriak oraindik, baina badirudi arabiarrek, beltzak eta ijitoak agertzen direla gorroto-gertakari gehien jomugan.
- Delitu-gertakarien artean, agidanez lesioek dute multzo ugariena izateko joera (guztizkoaren % 18 eta % 30 artean 2016an eta 2017an, hurrenez hurren), eta atzetik datoz mehatxuak eta gorroto-diskurtsoa adiera hertsian (ZKren 510. artikulua). Hiru multzoak batuz gero, jasotako delitu-gertakari guztien % 60 baino zertxobait gehiago dira bai 2016an bai 2017an.
- Ekintza bidezko gorroto-delituen (*hate crime*) multzoa –lesioak, kalteak, indarkeriazko lapurretak– guztizkoaren % 35 izan zen 2016an eta 2017an. Hitz bidezko gorroto-gertakariak (*hate speech*: gorroto-diskurtsoa), adiera zabalenean (ZKren 510. artikulua, mehatxuak, derrigortzeak, irainak, tratu apalesgarria...), aldiz, % 60 inguru izan ziren.

4.2. Gomendioak

1. Gorroto-gertakariei buruzko txosten hau Euskadin egiten den halako lehenengoa da. Urtero egiteko konpromisoa finkatu beharko litzateke, denborarekin joerak identifikatu ahal izateko. Horretarako, aurrera egin behar da datuak biltzeko moduan, alderdi hauek hobetze aldera: datu kopuru handiagoa erasotzailearen eta biktimaren profilei buruz; arreta berezia polibiktimizazioko gertakariei; eta gertakarien larritasun-mailari buruzko datuak, batez ere lesio-delituen alorrean.

2. Polizia-kidegoaren prestakuntza areagotu behar da, zifra beltza murriztu dadin, bai etnikoaz edo sexualaz besteko talde babestuen aurkako gertakariei dagokienez, bai eta delitu-eremu jakin batzuei dagokienez ere: adibidez, diskriminazio-delitu delakoetan.

Prestakuntza-programen barruan, gomendagarria da berariaz jorratzea adierazpen-jokabideen ildoak (gorroto-diskurtsoa adiera zabalean: ZKren 510. artikulua, mehatxuak, irainak, ...), gertakari ugari agertu denez ildo horretan.

Azkenik, komenigarria izango litzateke azterlan espezifikoa eta zeharkakoa egitea ziberkriminalitate delakoaren barruan gertatutakoak hautemateari buruz.

3. Ez bazaio jarraipena ematen poliziaren lanari, abiarazitako zigor-prozeduraren trazabilitateari eta amaierako kondenari dagokienez, orduan, gorroto-mapa ez da izango tresna erabat baliagarria kriminalitate mota hori prebenitu eta jazartzeko. Hiru instantzien artean (polizia, fiskaltza eta epailetza) informazioa aldi berean behin eta etengabe trukatzeko talde bateratuak sortzea sustatu beharko litzateke, bakoitzak bere funtzioak eta autonomia gordetzen dituela begiratu betiere⁸⁹.

4. Arau-hauste administratibo guztiak kiroleko indarkeriaren/arrazakeriaren (adiera zabalean) esparruan jaso dira, eta testuinguru kriminologiko bereziki konplexua eratzen dute eremu konparatzailean; izan ere, urraketa arin, ertain edo astunenak har ditzakete barne –delituzko jokabide izateraino– eta are kriminalitate antolatuen barruan sartu. Halakoetan bereziki zaila da gorroto xenofobiko/arrazista eta/edo ideologikoaren osagaiaren mugak zehaztea. Beraz, etorkizunean arretaz aztertu behar da zer eboluzio duen gure komunitatean, arreta berezia jarritz egileen profilari eta, orobat, halakoak kolektibo etniko eta/edo ideologikoen aurkako gorroto-gertakari/-delitu gisa identifikatzeari.

⁸⁹ Arrazakeriaren eta Intolerantziaren aurkako Europako Batzordea (ECRI), *ECRIk Espainiari buruz emandako txostena (bosgarren ikuskaritza-zikloa)*, 2017ko abenduaren 5ean onartua, 2018ko otsailaren 27an argitaratua, CRI (2018) 2, 45. or.:

«ECRIren gomendioa da polizia-zerbitzuek eta gorroto-delituak auzipetzeko ardura duten fiskaltza espezializatuek esparruak ezarri, areagotu eta instituzionalizatzea toki-, eskualde- nahiz estatu-mailan, elkarriketa eta lankidetzaren erregular eta iraunkorrak sustatzeko, gorroto-diskurtsoen biktima diren talde kalteberekin eta haiekin lanean diharduten gizarte zibileko erakundeekin».

5. BIBLIOGRAFIA⁹⁰

- AGUILAR GARCÍA, Miguel Ángel (zuz.), «**Manual práctico para la investigación** y enjuiciamiento de delitos de odio y discriminación», *Centre d'Estudis Jurídics i Formació Especialitzada*, 2015, 397. or. Online sarbidea: http://cejfe.gencat.cat/web/.content/home/publicacions/manual_investigacion_delitos_odio.pdf
[Azken atzipena: 2018/03/02]
- ALTSCHILLER, Donald, *Hate crimes (3rd Ed.)*, ABC-CLIO, Santa Bárbara, 2015.
- ANDREU ARNALTE, Carmen, «**Conceptos generales**: definición de delitos de Odio. Conceptos generales: motivación. directivas» (txostena), Diskriminazioari eta gorroto-delituei buruzko I. Biltzar Nazionala, Córdoba, 2016. Online sarbidea: <http://federacionkamira.es/wp-content/uploads/2017/01/PONENCIA-CARMEN-ANDREU.pdf>
[Azken atzipena: 2018/03/02]
- BERNAL DEL CASTILLO, Jesús, «**Política criminal en España** y discriminación xenófoba: La centralidad de los delitos de provocación a la discriminación», *Política Criminal: Revista Electrónica Semestral de Políticas Públicas en Materias Penales*, 18. zki, 2014, 371-399. or.
- CHAKRABORTI, Neil; GARLAND, Jon, *Hate crime. Impact, causes & responses (2nd Ed.)*, SAGE, Londres, 2015.
- ECRI (ARRAZAKERIAREN ETA INTOLERANTZIAREN KONTRAKO EUROPAKO BATZORDEA), *Espainiari buruzko ECRIren txostena (bosgarren gainbegiratze-zikloa)*, 2017ko abenduaren 5ean emana, 2018ko otsailaren 27an argitaratua, CRI(2018)2 (gaztelaniazko bertsioa). Online sarbidea: <https://www.coe.int/t/dghl/monitoring/ecri/Country-by-country/Spain/ESP-CBC-V-2018-002-SPA.pdf>
[Azken atzipena: 2018/03/02]
- CORTINA ORTS, Adela, *Aporofobia, el rechazo al pobre. Un desafío para la democracia*, Paidós, Bartzelona, 2017.
- DADZIE, Stella, *Herramientas contra el racismo en las aulas*, Ediciones Morata eta Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioa, Madril, 2004.
- DÍAZ LÓPEZ, Juan Alberto, *El odio discriminatorio como agravante penal. Sentido y alcance del artículo 22.4^a CP*, Civitas, Madril, 2013.
- DÍAZ Y GARCÍA CONLLEDO, Miguel (zuz.), *Protección y expulsión de extranjeros en Derecho Penal*, LA LEY, Madril, 2007.
- GARNER, Steve, *Racisms. An introduction (2nd Ed.)*, SAGE, Londres, 2017.
- GITHENS-MAZER, Jonathan; LAMBERT MBE, Robert, “**Islamophobia and anti-muslim** hate crime: a London case study”, *European Muslim Research Centre (EMRC)*, 2010, 60. or. Online sarbidea: https://lemosandcrane.co.uk/resources/Islamophobia_and_Anti-Muslim_Hate_Crime.pdf
[Azken atzipena: 2018/03/02]
- GONZÁLEZ VIEJO, Miguel Ángel; COHÍ RIAMBAU, Oriol; SALINAS CASTRO, Felip, *Amputación de extremidad inferior y discapacidad. Prótesis y rehabilitación*, Masson, Bartzelona, 2005.

⁹⁰ Lanak egilearen arabera aipatzen dira, hitz giltzarriak letra lodian jarrita.

- GÜERRI FERRÁNDEZ, Cristina, «**La especialización de la fiscalía** en materia de delitos de odio y discriminación: aportaciones a la lucha contra los delitos de odio y el discurso del odio en España», *Indret: Revista para el Análisis del Derecho*, 1 zki 2015, 33. or.
- HERRING, Jonathan, «**Elder abuse**», en DORON, Israel; SODEN, Ann M. (ed.), *Beyond elder law. New directions in law and aging*, Heidelberg, 2012, 175-197. or.
- LANDA GOROSTIZA, Jon-Mirena, *Los delitos de odio*, Tirant lo Blanch, Valenzia, 2018.
- LANDA GOROSTIZA, Jon-Mirena; GARRO CARRERA, Enara (zuz.), *Delitos de odio: derecho comparado y regulación española*, Tirant lo Blanch, Valenzia, 2018.
- LANDA GOROSTIZA, Jon-Mirena, «**Incitación al odio**: evolución jurisprudencial (1995-2011) del art. 510 CP y propuesta de lege lata», *Revista de Derecho y Criminología*, 7. zki, 2012, 297-346. or.
- LANDA GOROSTIZA, Jon-Mirena, «**Racismo, xenofobia y estado democrático**», *Eguzkilore: Cuaderno del Instituto Vasco de Criminología*, 18. zki, 2004, 59-72. or.
- LANDA GOROSTIZA, Jon-Mirena, «**El modelo político-criminal antirracista** “sui generis” del Código Penal español de 1995: una aproximación crítica», *Revue Internationale de Droit Penal. International Review of Penal Law*, 73. lib., 2002, 167-213. or.
- LANDA GOROSTIZA, Jon-Mirena, *Zuzenbide penala arrazakeria eta xenofobiaren aurrean (estatu espainiarraren politika kriminalari buruzko hausnarketa kritikoa)*, Deustuko Unibertsitatea, Bilbo, 2002.
- LANDA GOROSTIZA, Jon-Mirena, *La política criminal contra la xenofobia y las tendencias expansionistas del derecho penal*, Comares, Granada, 2001.
- LANDA GOROSTIZA, Jon-Mirena, *La intervención penal frente a la xenofobia. Problemática general con especial referencia al «delito de provocación» del artículo 510 del Código Penal*, UPV/EHU, Bilbo, 2000.
- LANDA GOROSTIZA, Jon-Mirena, «**La regulación penal alemana** sobre la discriminación racial y la xenofobia tras la nueva ley de lucha contra la criminalidad», *Anuario de Derecho Penal y Ciencias Penales*, 49. liburukia - 2. zki, 1996, 529-591. or.
- LAURENZO COPELLO, Patricia, «**La discriminación** en el Código Penal de 1995», *Estudios Penales y Criminológicos*, 19 zki, 1996, 219-288. or.
- LAW ENFORCEMENT SUPPORT SECTION (LESS); CRIME STATISTICS MANAGEMENT UNIT (CSMU), «**Hate crime data collection** guidelines and training manual», *FBI*, 2015, 67. or. Online sarbidea: <https://ucr.fbi.gov/hate-crime-data-collection-guidelines-and-training-manual.pdf>
[Azken atzipena: 2018/03/02]
- MINISTERIO DE EMPLEO Y SEGURIDAD SOCIAL, «**La persecución penal** de los delitos de odio [Guía Práctica]», *Enplegu eta Gizarte Segurantzza Ministerioa - Espainiako Gobernua*, 2016, 126. or. Online sarbidea: <http://www.empleo.gob.es/oberaxe/ficheros/documentos/PersecucionPenalDelitosOdio.pdf>
[Azken atzipena: 2018/03/02]

- MINISTERIO DEL INTERIOR, «**Informe sobre la evolución** de los incidentes relacionados con los delitos de odio en España 2016», *Barne Arazoetako Ministerioa- Espainiako Gobernua*, 2017, 68. or. Online sarbidea: <http://www.interior.gob.es/documents/642012/3479677/Informe+2016+delitos+de+odio+en+España/6746b021-9197-48a0-833b-12067eb89778>
[Azken atzipena: 2018/03/02]
- ODIHR/OSCE, «**Prosecuting hate crimes**. A practical guide», *Office for Democratic Institutions and Human Rights, Organization for Security and Co-operation in Europe*, 2014, 99. or. Online sarbidea: <http://www.osce.org/odihr/prosecutorsguide?download=true>
[Azken atzipena: 2018/03/02]
- ODIHR/OSCE, «**Hate crime laws**. A practical guide», *Office for Democratic Institutions and Human Rights, Organization for Security and Co-operation in Europe*, 2009, 67. or. Online sarbidea: <http://www.osce.org/odihr/36426?download=true>
[Azken atzipena: 2018/03/02]
- ODIHR/OSCE, «**Combating hate crimes** in the OSCE Region», *Office for Democratic Institutions and Human Rights, Organization for Security and Co-operation in Europe*, 2005, 158. or. Online sarbidea: <http://www.osce.org/odihr/16405?download=true>
[Azken atzipena: 2018/03/02]
- OME, «**Manual de recursos de la OMS** sobre salud mental, derechos humanos y legislación», *OME*, 2006 198. or. Online sarbidea: http://www.who.int/mental_health/policy/legislation/WHO_Resource_Book_MH_LEG_Spanish.pdf
[Azken atzipena: 2018/03/02]
- OSUNA CERREZO, María José, «**Los delitos de odio**. (Análisis del artículo 510 del Código Penal: unos tipos penales con imprecisas fronteras)», *Jueces Para la Democracia*, 86. zki, 2016, 60-79. or.
- PALACIOS, Agustina, *El modelo social de discapacidad: orígenes, caracterización y plasmación en la Convención Internacional sobre los Derechos de las Personas con Discapacidad*, Ediciones Cinca, Madril, 2008.
- ROIG TORRES, Margarita, «**Los delitos de racismo y discriminación** (arts. 510, 510 bis, 511 y 512)», in GONZÁLEZ CUSSAC, José Luis (zuz.), *Comentarios a la reforma del Código Penal de 2015*, Tirant lo Blanch, Valentzia, 2015, 1257-1279. or.
- TAMARIT SUMALLA, Josep María, «**Artículo 174**», in QUINTERO OLIVARES, Gonzalo (zuz.), *Comentarios al Código Penal Español. Tomo I (Artículos 1 a 233)*, Aranzadi, Iruñea, 2016, 1217-1222. or.
- TAPIA BALLESTEROS, Patricia, «**Identificación de las víctimas** de los delitos de odio: Aproximación a algunos de los problemas que plantea esta categoría delictiva», in DE HOYOS SANCHO, Montserrat (koord.), *La víctima del delito y las últimas reformas procesales penales*, Aranzadi, Iruñea, 355-372. or.

LABURDURAK

1/2015 LO	1/2015 Lege Organikoa, martxoaren 30ekoa, Zigor Kodearen azaroaren 23ko 10/1995 Lege Organikoa aldatzeko dena
13/2015 LO	13/2015 Lege Organikoa, urriaren 5ekoa, Prozedura Kriminalaren Legea aldatzen duena, prozesuko bermeak sendotzeko eta ikerketa teknologikorako neurriak arautzeko
15/2003 LO	15/2003 Lege Organikoa, azaroaren 25ekoa, Zigor Kodearen azaroaren 23ko 10/1995 Lege Organikoa aldatzeko dena
2008/913 EA	Kontseiluaren 2008/913/JAI Esparru Erabakia, 2008ko azaroaren 28koa, Zuzenbide Penalaren bidez arrazakeriaren eta xenofobiaren modu eta adierazpen jakin batzuen aurka borrokatzeari buruzkoa
ADA	Americans with Disability Act
adib.	Adibidez
AE	Aurretiazko eginbideak
AEB	Estatu Batuak
AN	Auzitegi Nazionala
Arg.	Argitaratzaileak
art.	Artikulua
BOE	Estatuko Aldizkari Ofiziala
CSMU	Crime Statistics Management Unit
EAE	Euskal Autonomia Erkidegoa
ECRI	Arrazakeriaren eta Intolerantziaren aurkako Europako Batzordea
Ed.	Edizioa
EHAA	Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria
EIN	Estatistikako Institutu Nazionala
EK	Espainiako Konstituzioa
ESLE	Europako Segurtasun eta Lankidetzako Erakundea
FB	Facebook
FBI	Federal Bureau of Investigation
HCSA	Hate Crime Statistics Act
LESS	Law Enforcement Support Section
LGTB(I)	Lesbianak, Gayak, Transexualak eta Bisexualak eta Intersexualak
Lib.	Liburukia
M	Milioi biztanle
n	Kasu kopurua
ODIHR	Erakunde Demokratiko eta Giza Eskubideen Bulegoa

OME	Osasunaren Mundu Erakundea
or.	Orrialdea
passim	Leku guztietan
PL	Prozedura laburtua
PLES	Poliziaren eta Larrialdietako Euskal Sindikatua
UPV/EHU	Euskal Herriko Unibertsitatea
ZK	1995eko Zigor Kodea
zk.	Zenbakia
zuz.	Zuzendaria

GERTAKARIEN KOKAGUNEAK

Gertakariak izan diren kokaguneei dagokienez, honako sailkapen hau erabili dugu:

- Futbol-zelaiak edo kirol-instalazioak: futbol-zelaia, kirol-klub baten instalazioak eta bestelako kirol-instalazioak.
- Erlijio- edo gurtza-zentroak: gurtza erlijiosorako lekua, ofizialki xede horretarako prestatua.
- Internet eta sare sozialak: interneten edo sare sozialen bidez mezuak edo edukiak zabaltzea.
- Hiri-bide publikoa eta beste komunikazio-bide batzuk: hiri-bide publikoa, hiriarteko komunikazio-bidea, autobideko zerbitzugunea, atseden-gunea, autobidea edo autobia, abelbidea/bidea/pista, beste komunikazio-bide batzuk eta trenbidea (bidea bera).
- Etxebizitzak: landetxea, pisua, familia batentzako txaleta/etxea/etxebizitza, txalet atxikia, beste etxebizitza bat, igogailua, eskailburua, garajea, orube bateko patioa edo ataria, trastelekua, lanabesentzako etxola eta etxebizitzen bestelako atxikiak/espazio komunak/bizitzeko espazioak.
- Ostalaritzako, aisialdiko eta bestelako lokalak: kasinoa, bingoa, apustu-etxea, diskoteka, joko-aretoa, taberna edo antzerakoa, aisialdiko establezimendua, ibilgailuen kontzesionarioa, ibilgailuen alokairu-enpresa, akademia, bidaiaria-agentzia, jatetxeak, armategia, bankua, elikagai-denda, saltokia, ostalaritzako bestelako establezimendua, farmazia, gasolindegia, bitxitegia, loteria-establezimendua edo antzekoa, bitxi-tailerra, mekanika-tailerra, estankoa, urrearen eta metal preziatuen salerosketa-gunea, bahitura-etxea, kioskoa, lokutorioa, higiezin-enpresa, edaritegia, drogeria/lurrindegia, paketeria-enpresa, txatartegia, autoak desgiteko tokiak eta bestelako lokal edo establezimendua.
- Alderdi politikoen edo sindikatuen egoitzak: ofizialki alderdi politiko baten edo sindikatu baten lan-, bilera- eta antolakuntza-leku bezala prestatutako gunea.
- Ibilgailu partikularrak: norbanako baten jabetzako edozein ibilgailu edo, bestela, erabilera pribatuko edozein ibilgailu.
- Ibilgailu publikoak: garraio publikorako erabiltzen den edozein ibilgailu, hala nola trenak, autobusak, metroa, etab.
- Bestelako leku edo establezimenduak: aurreko kategorietako batean sartzen ez den edozein kokagune.

IRUDIEN AURKIBIDEA

• 2016. urtea

1. irudia. Delituen banaketa kolektiboaren arabera (2016)	42
2. irudia. Delituen banaketa gertalekuaren arabera (2016).....	43
3. irudia. Delituen banaketa hilaren arabera (2016).	43
4. irudia. Delituen banaketa asteko egunaren arabera (2016).....	43
5. irudia. Arrazakeria- / xenofobia-delituen banaketa, gertatu diren lurralde-historikoaren arabera (2016)	44
6. irudia. Sexu-orientazioarekin/identitatearekin lotutako delituen banaketa, gertatu diren lurralde-historikoaren arabera (2016)	44
7. irudia. Arau-hauste administratiboak lurralde historikoaren arabera (2016).....	45
8. irudia. Arau-hauste administratiboak udalerriaren arabera (2016).....	45
9. irudia. Egotziak jatorriko eskualdearen arabera (2016).....	45
10. irudia. Egotziak jatorriko lurralde historikoaren arabera (2016)	46
11. irudia. Egotziak jatorriko udalerriaren arabera (2016)	46
12. irudia. Atxilotuen profil demografikoa (2016).....	47
13. irudia. Atxilotuak jatorriko eskualdearen edo tokiaren arabera (2016).....	47
14. irudia. Biktimak jatorriko eskualdearen arabera (2016).....	47
15. irudia. Biktimak jatorriko lurralde historikoaren arabera (2016)	48
16. irudia. Biktimak Euskadiko jatorriko udalerriaren arabera (2016).....	48
17. irudia. Biktimen adina (2016)	49
18. irudia: Delituen tipologia (2016).....	50

• 2017. urtea

19. irudia. Delituen banaketa kolektiboaren arabera (2017)	52
20. irudia. Delituen banaketa gertalekuaren arabera (2017).....	53
21. irudia. Delituen banaketa hilaren arabera (2017).	53
22. irudia. Delituen banaketa asteko egunaren arabera (2017).....	53
23. irudia. Arrazakeria- / xenofobia-delituen banaketa, gertatu diren lurralde-historikoaren arabera (2017)	54
24. irudia. Sexu-orientazioarekin/identitatearekin lotutako delituen banaketa, gertatu diren lurralde-historikoaren arabera (2017)	54
25. irudia. Arau-hauste administratiboak lurralde historikoaren arabera (2017).....	55
26. irudia. Arau-hauste administratiboak udalerriaren arabera (2017).....	55
27. irudia. Egotziak jatorriko eskualdearen arabera (2017).....	55
28. irudia. Egotziak jatorriko lurralde historikoaren arabera (2017)	56
29. irudia. Egotziak jatorriko udalerriaren arabera (2017)	56
30. irudia. Atxilotuen profil demografikoa (2017).....	57
31. irudia. Atxilotuak jatorriko eskualdearen edo tokiaren arabera (2017).....	57
32. irudia. Biktimak jatorriko eskualdearen arabera (2017).....	57
33. irudia. Biktimak jatorriko lurralde historikoaren arabera (2017)	58
34. irudia. Biktimak Euskadiko jatorriko udalerriaren arabera (2017).....	58
35. irudia. Biktimen adina (2017)	59
36. irudia. Delituen tipologia (2017)	60

I. ERANSKINA: PRENTSAN AGERTU DIREN KASU NABARMENAK (2016-2017)

I.1. Kasuen laburpena babestutako kategoriaren arabera

ARRAZAKERIA ETA XENOFOBIA

- «Los Pichis» ijito familiaren kasua.
- Komunitate musulmanaren edo etorkinen kontrako diskriminazioa, gorrotoa eta indarkeria bultzatzea interneten (bi kasuei buruzko informazioak jaso dira hala 2016an nola 2017an).

IDEOLOGIA / JOERA POLITIKOA

2016. urtean:

- Presoei ongietorria egiteko ekitaldiekin edo haien argazkiak erakustearekin lotutako kasuak, biktimen erakundeek (COVITE; Dignidad y Justicia) salatutakoak.
- Erasoak sarean toreatzailea izan nahi duen haur gaixo baten kontra (biktimizazio bikoitz bezala ere har liteke, gaixotasuna/desgaitasuna/dibertsitate funtzionala duen pertsonen eremuko kasua ere izan litekeelako).

2017. urtean:

- Betiseko hiru ultrak Bilboko gizon bat egindako eraso.
- Espainiako ereserkiari txistu egitea Athletic eta Bartzelonaren arteko partidan.
- ETB1eko «Euskaldun naiz, eta zu?» programa, espainiarren kontrako ustezko erasoengatik.
- Falange Vasconavarra taldearen eraso «La Huella» monumentuaren kontra.
- Alternatibaren Gasteizko egoitzaren kontrako eraso.

SINESMENAK / ERLIJIOA

2016. urtean:

- Gasteizko meskita egongo den lokalaren kontrako eraso.
- Islamaren kontrako pintaketak Barakaldon.

2017. urtean:

- Txosna baten dekorazioa Bilboko jaietan, Kristoren irudiari buruzko umore satirikoa egiten.

SEXU-ORIENTAZIOA / -IDENTITATEA

2016an

- Zenbait eraso lesbofobo Bilbon.
- Ikasle gazte bat etxetik bota zuen aitak homosexuala izateagatik.

2017an

- HAZTE OÍR taldearen autobusak sexu-aniztasunaren kontrako kanpaina bat egin zuen.
- Irakasleen jarrera homofoboak ikasgelan.

DESGAITASUNA/ANIZTASUN FUNTZIONALA DUTEN PERTSONAK

Ez da kasurik erregistratu egindako berrikuspenean.

APOROFOBIA

Ez da kasurik erregistratu egindako berrikuspenean.

Oharra: Dokumentu honetan aipatutako albiste guztien papereko kopiak eskuragarri daude kontsultatzeko.

I.2. Arrazakeria/xenofobia

- «Los Pichis» ijito familiaren kasua⁹¹.
- Komunitate musulmanaren edo etorkinen kontrako diskriminazioa, gorrotoa eta indarkeria bultzatzea interneten⁹² (bi kasuei buruzko informazioak jaso dira hala 2016an nola 2017an).

2016/05/02

DEIA: Bilboko Udaleko Poliziaren Euskal Sindikatuak bizilagunen patruilak salatu ditu

⁹¹ «Bilboko Udaleko Poliziaren Euskal Sindikatuak bizilagunen patruilak salatu ditu». DEIA, 2016ko maiatzak 2.
 «Ollerietako bizilagunek “Los Pichis” familiaren kontrako manifestazioa deitu dute ekainaren 14rako». DEIA, 2016ko ekainak 6.
 «“Los Pichis” familiak aztoratu egin ditu Gasteizko bizilagun berriak». EL CORREO, 2016ko urriak 5.
 «Abetxukoko okupak fiskalaren aurrean kexatu dira bizilagunen “jazarpena” dela eta». EL CORREO, 2016ko urriak 29.
 «Calparsoro “Los Pichis” familiak izututa dauzkan bizilagunekin bildu da Abetxukun». EL MUNDO, 2016ko azaroak 3.
 «SOS Arrazakeriak “Los Pichis” familia Gasteiztik bidaltzeko eskratxeak amaitzeko eskatu du». DEIA, 2016ko azaroak 8.
 «SOS Arrazakeriak “Los Pichis” familiaren kontrako arrazakeria salatu du, haien kontrako 1.600 sinadura bildu diren bitartean». EL CORREO, 2017ko abenduak 10.

⁹² «Atxilotu bat Bilbon Interneten gorrotoa eta indarkeria bultzatzeagatik». DEIA, 2016ko ekainak 23.
 «Aurrekariak dituen 42 urteko gizon bat atxilotu dute Sopelan». EL CORREO, 2017ko ekainak 23.

Bilboko Udaleko Poliziaren eta Larrialdietako Euskal Sindikatuak (PLES) salatu du «Udaltzaingoaren buruzagitza ez dela gauza» «Los Pichis» klanarekin dagoen gatazka kudeatzeko eta bizilagunen patruilak «toleratzen ari direla, western batean bageunde bezala».

Gatazka Ollerietta kalean, Santutxu auzoan, «Los Pichis» izeneko familia baten eta auzotarren artean. Ijitoen familiak lapurretak egiten ditu eta bizilagunei jazartzen zaie, eta auzotarrak gaueko patruilak antolatu dituzte egoera horri aurre egiteko.

2016/06/06

DEIA: Ollerietako bizilagunek «Los Pichis» familiaren kontrako manifestazioa deitu dute ekainaren 14rako.

Komunikatu baten bidez, Ollerietako bizilagunek «azkar jarduteko» eskatu diete erakundeei. Kexu dira, «gaizkileak behin eta berriz krimenak gauzatzen ari direlako eta tutelapeko haurrak eskolatu gabe daudelako: eguna kalean ematen duten eta oso etorkizun beltza dute aurrean».

Idatzian azaltzen dutenez, «egoera hau behin eta berriz ari da errepikatzen urte askotan (...) eta eskatzen dute “benetako koordinazioa” martxan jartzeko eta eteteko “Bilboko familia honek belaunaldiz belaunaldi ezagutu duen sorgin-gurpila: seme-alabak lehenago gurasoak eta aitona-amonak bezala jokatzeko ari dira».

2016/09/05

EL CORREO: «Los Pichis» familiak aztoratu egin ditu Gasteizko bizilagun berriak.

Abetxukuko bizilagunak kexatu egin dira, Bilbotik etorritako «Los Pichis» familiak beren auzoan etxebizitza bat okupatu dutelako.

Auzotarrak protestan ari dira, familia horretako hiru emakume gazte auzoko okindegi batean lapurtzen saiatu direlako, ustez. Bizilagun batzuek etxe hutsetako ate-leihoak hormaz itxi dituzte, klaneko kide gehiago etor ez daitezen.

2016/10/29

EL CORREO: Abetxukoko okupak fiskalaren aurrean kexatu dira bizilagunen «jazarpena» dela eta.

«Los Pichis» ijito familiako kide batzuk, Arabako SOS Arrazakeria taldeko Fede Garcíarekin batera, Euskal Autonomia Erkidegoko fiskalburuarekin bildu dira, eta Abetxukuko bizilagun «batzuek» jasotzen duten «jazarpenaren» eta «tratu txarren» berri eman diote. Gasteizko auzo horretako etxe bat okupatu zuten «Los Pichis» familiako kideek iragan abuztuan.

2016/11/03

EL MUNDO: «Calparsoro “Los Pichis” familiak izututa dauzkan bizilagunekin bildu da Abetxukun».

Auzoko bizilagun batzuek egunero egiten dituzte elkarretaratzeak eta manifestazioak etxearen okupazio salatzeke, eta Calparsorori esan diotenez «beldur» dira Abetxukun Bilboko Ollerieta kalean gertatutakoaren antzeko egoera bat izan daitekeelako. Bertan, Udalak dionez, segurtasun- eta bizikidetzaz- arazoak daude, familia horretako kideek eraginda.

«Los Pichis» familiaren ordezkariak manifestazio horien aurreko «babesa» eskatu diote Calparsorori, eta esan zioten izututa bizi direla eta egoera horren ondorioz osasuna galtzen ari direla ere.

2016/11/09

DEIA: SOS Arrazakeriak «Los Pichis» familia Gasteiztik bidaltzeko eskratxeak amaitzeko eskatu du.

Familia Gasteizera iritsi zenetik Abetxukoko bizilagun batzuek elkarretaratzeak eta manifestazioak egiten dituzte egunero etxearen okupazioa salatzeke.

SOS Arrazakeria, Kali Dor Kayiko, Ongi Etorri eta Vecindad Vasca Sin Fronteras elkarteek komunikatu bat zabaldu dute «gorrotoaren adierazpide» horiek salatuz eta esanez, haien iritziz, ekintza horien helburua dela «etxerik gabeko familia bat gizartetik eta beren espaziotik kanporatzea».

2017/12/10

EL CORREO: SOS Arrazakeriak «Los Pichis» familiaren kontrako arrazakeria salatu du, haien kontrako 1.600 sinadura bildu diren bitartean.

Alokabide Eusko Jaurlaritzaren alokairuko sozietate publikoak pisu bat esleitu zion familia horri Astegieta herrian, baina ezezagun batzuek etxebizitza horri eraso egin zioten abenduaren 3an eta kalte handiak eragin zituzten, sarrerako atea suntsituz.

Alokabidek gertakaria «zeharo tamalgarria» dela esan du, «ez bakarrik etxebizitzaren kontrako eraso eta suntsipena, baizik eta horren atzean zegoen asmoa, egileak zer-nolako pertsonak diren argi uzten duena». Arartekoak eraso gaitzetsi du eta familia hau bakean bizitzeko beharrezko ahaleginak egiteko eskaera luzatu du.

2016/06/23

DEIA: Atxilotu bat Bilbon Interneten gorrotoa eta indarkeria bultzatzeagatik.

Guardia Zibilak DEIA egunkariaren webgunean «Sincero» ezizena zuen erabiltzaile batek utzitako mezu batzuk aurkitu zituen, eta «komunitate musulmanaren eta etorkinen kontrako» gorrotoa, indarkeria eta diskriminazioa bultzatzearen delitua izan zitezkeela ikusi zuen.

2017/06/23

EL CORREO: Aurrekariak dituen 42 urteko gizon bat atxilotu dute Sopelan

Gorroto-delitua egotzi diote, elkarrekin borrokan zebiltzan txakur batzuen jabeen arteko eztabaidan esandako irain eta esaldi arrazistak direla eta.

I.3. Ideologia/joera politikoa

2016. urtean:

- Presoei ongietorria egiteko ekitaldiekin edo haien argazkiak erakustearekin lotutako kasuak, biktimen erakundeek (COVITE; Dignidad y Justicia) salatutakoak⁹³.
- Erasoak sarean toreatzailea izan nahi duen haur gaixo baten kontra (biktimizazio bikoitz bezala ere har liteke, gaixotasuna/desgaitasuna/dibertsitate funtzionala duen pertsonen eremuko kasua ere izan litekeelako)⁹⁴.

2017. urtean:

- Betiseko hiru ultrak Bilboko gizon bat egindako eraso⁹⁵.

⁹³ «Covitek Askasibar eta Cardañori ongietorria egiteko ekitaldiak salatu ditu». GARA, 2016ko otsailak 6.

«Arraizen “xake matea” adierazpen-askatasun hutsa zen». GARA, 2016ko ekainak 24.

«Konstituzio Auzitegiak “gorroto-delitua” hauteman du “Argala” gerra zikinaren biktima oroitzeko ekitaldian». GARA, 2016ko uztailak 28.

«PPK eta DyJk salaketak aurkeztu dituzte Txori Barrote, Askapena eta Kaskagorriren kontra presoen argazkiengatik». NAIZ, 2017ko abuztuak 23.

⁹⁴ «Pertsona bat atxilotu dute Donostian haur baten kontrako irainak idazteagatik». GARA, 2016ko abenduak 4.

«Onartu egin dute minbizia duen haur zezenzalearen heriotza desiratu zuen zezenketen kontrako aktibistari jarritako kereila». EL MUNDO, 2017ko urtarrilak 13.

«Toreatzaile izan nahi zuen haurraren heriotza desiratu zuen Eibarko bizilagunaren kontrako salaketa aurkeztu dute». DEIA, 2017ko urtarrilak 13.

«Justizia aztertzen ari da delitua ote den minbizia duen haur baten heriotza eskatzea». EL CORREO, 2016ko urriak 12.

«Toreatzaile izan nahi zuen haurraren heriotza desiratu zuen Eibarko emakumearen kontrako salaketa onartu dute». EL CORREO, 2017ko urtarrilak 13.

«Adrián minbizia duen eta toreatzailea izan nahi duen haurraren kontrako komentarioengatik bi pertsona atxilotu dituzte». EL CORREO, 2016ko abenduak 3.

⁹⁵ «Ertzaintzak Betiseko hiru ultrak inputatu ditu». DEIA, 2017ko apirilak 29.

«Ertzaintzak erabaki du ofizioz jardutea Betiseko hiru ultraren kontra». DEIA, 2017ko apirilak 28.

«Gorroto-delituagatik salaketa jarri dute Bilboko eraso faxista dela eta». GARA, 2017ko apirilak 29.

«Betiseko ultraren eraso epailearengana iritsi da ustezko gorroto-delitu bezala». EL CORREO, 2017ko apirilak 29.

- Espainiako ereserkiari txistu egitea Athletic eta Bartzelonaren arteko partidan⁹⁶.
- ETB1eko «Euskaldun naiz, eta zu?» programa, espainiarren kontrako irainengatik⁹⁷.
- Falange Vasconavarra taldearen eraso «La Huella» monumentuaren kontra⁹⁸.
- Alternatibaren Gasteizko egoitzaren kontrako eraso⁹⁹.

2016/02/02

GARA: Covitek Askasibar eta Cardañori ongietorria egiteko ekitaldiak salatu ditu.

COVITEk salatu egin ditu Askasibar eta Cardañori ongietorria egiteko ekitaldiak, kartzelan bost hilabetez egon ondoren.

2016/07/28

GARA: Konstituzio Auzitegiak «gorroto-delitua» hauteman du «Argala» gerra zikinaren biktima oroitzeko ekitaldian.

Konstituzio Auzitegiak uste du Argala oroitzeko ekitaldia «gorroto-delitua delakoaren adierazpen bat dela».

Konstituzio Auzitegiak urtebeteko espetxe-zigorra eta zazpi urteko inhabilitazioa ezarri dizkio Tasio Erkizari «terrorismoa goratzeagatik», Argala oroitzeko ekitaldi batean parte hartu zuelako.

Ekitaldian Erkiziak adierazi zuen beharrezkoa zela «hausnarketa bat egitea biderik egokiena hautatzeko, Estatuari min handiena egiten diona, alegia, herri hau agerleku demokratiko berri batera eramateko». Hitz horiek, epaileen iritziz, «nolabaiteko giro jakin bat sortzen dute, ekintza

«Epaile batek kanporatu egin du Bilbon gizon bati eraso egin zion Betiseko ultra». EL PAÍS, 2017ko maiatzak 3.

«Niri ere gerta zekidakeen» EL CORREO, 2017ko maiatzak 3.

«Betiseko ultrak 15 egunean behin aurkeztu beharko du Bilboko epaitegian». GARA, 2017ko maiatzak 4.

⁹⁶«Fiskaltzak delitu-zantzuak ikusten ditu Kopa finalean ereserkiari txistu egitean». EL PAÍS, 2016ko otsailak 4.

«Auzitegi Nazionalak epaiketa hasi du Athletic eta Bartzelonaren arteko partidan ereserkiari txistu egiteagatik». GARA, 2017ko abuztuak 7.

⁹⁷ «Ciudadanosek Fiskaltzari eskatuko dio espainiarrei irain egiten dien programa ikertzeko». EL CORREO, 2017ko martxoak 4.

«Fiskaltza espainiarrak iraintzen zituen EITBko programa ikertzen ari da». EL MUNDO, 2016ko maiatzak 9.

«Euskalduna naiz programaren kontrako kausa artxibatu dute» GARA, 2017ko irailak 13.

«Autoan, magistratuak esan du programan erabilitako adierazpen polemikoek ez dutela “gorrotoa, diskriminazioa edo indarkeria” bultzatzen». 2017ko irailak 13.

⁹⁸ «Udalari eskatu diote Falangeren kontrako salaketa jartzeko La Huellaren kontrako eraso dela eta». NAIZ, 2017ko abuztuak 25.

⁹⁹ «Kristalak hautsi, pintaketak egin eta Falangeren pegatinak ipini dituzte Alternatibaren Gasteizko egoitzan». EL DIARIO.ES, 2017ko abenduak 17.

terroristen aldeko atmosfera edo egoera bat sortzeko, eta egoera hori delituaren beraren aurrekaria da».

2016/12/04

GARA: Pertsona bat atxilotu dute Donostian haur baten kontrako irainak idazteagatik

Guardia Zibilak gazte bat atxilotu Donostian, sare sozialetan toreatzailea izan nahi duen eta minbizia duen zortzi urteko haur baten kontrako irainak idazteagatik. Haurrak omenaldi bat jaso zuen Valentziako zezenketazaleen jaialdi batean, eta bertan bere gaixotasuna tratatzeko funtsak bildu ziren. 2017/01/13.

2016/01/13

DEIA: Toretzaile izan nahi zuen hauraren heriotza desiratu zuen Eibarko bizilagunaren kontrako salaketa aurkeztu dute.

Mezu hau idatzi zuen FBko bere orrialdean: «Hil dadila, hil dadila orain. Sendatu nahi duena ume gaixo bat, zertarako eta bizi nahi duten belarjale errugabe eta osasuntsuak hiltzeko... bai zera! Adrián, hil egingo zara».

2017/01/13

EL MUNDO: Onartu egin dute minbizia duen haur zezenzalearen heriotza desiratu zuen zezenketen kontrako aktibistari jarritako salaketa.

Guardia Zibilak bi pertsona atxilotu ditu sareetan Adrián, minbizia duen adingabe zezenzalea, iraintzeagatik. Alzirako lehen auzialdiko epaitegiak (Valentzia) onartu egin du zezenketen kontrako aktibistari Toro de Lidia Fundazioak jarri zion salaketa. Fundazio hori hauraren familiaren ordezkaria da.

2017/04/29

DEIA: Ertzaintzak Betiseko hiru ultrak inputatu ditu

Betiseko hiru zaletuk eraso egin zioten Bilboko Plaza Barriko kafetegi bateko terrazan zegoen gizon bati, eta gero erasoaren bideoa sare sozialetara igo zuten. Grabaketan ikusten denez, gazte bat terrazan eserita dagoen gizon batengana hurbiltzen da, «Gabilondo» deitzen dio, «ETAren aldekoa» den galdetzen dio eta zaplazteko bat ematen dio edalontzi bat burutik behera husten dion bitartean, erasotako gizonak ihes egin baino lehen. Bideoan entzuten da, gainera, norbaitek Espainiaren aldeko oihuak egiten dituela.

Bi abokatuk modu partikularrean aurkeztu zuten «gorroto-delituagatiko» salaketa bake-epaitegian Plaza Barriko erasotzailearen kontra.

2017/05/03

EL PAÍS: Epaile batek kanporatu egin du Bilbon gizon bati eraso egin zion Betiseko ultra.

Epaileak aske utzi du behin-behinean, kautela-neurriekin. Sevillara ez hurbiltzeko kautela-neurria lehendik ere bazuenez (instrukzioko 2. epaitegiak ezarri zion neurri hori beste prozedura batean), Andaluziako hiriburutik alde egiteko agindu zaio.

2016/02/04

EL PAÍS: Fiskaltzak delitu-zantzuak ikusten ditu Kopa finalean ereserkiari txistu egitean.

Fiskaltzak uste du Espainiari maiatzaren 30ean Camp Nou Athleticcek eta Bartzelonak jokatu zuten kopa-finalean Espainiako ereserkiari txistu egin izana Koroaren kontrako irainen eta konstituzio-ikurren aurkako laidoaren delitua izan daitekeela.

2017/08/07

GARA: Auzitegi Nazionalak epaiketa hasi du Athletic eta Bartzelonaren arteko partidaren ereserkiari txistu egiteagatik.

Euskal taldeak eta talde katalanak jokatu zuten futboleko Kopako finaletako txistuak Auzitegi Nazionalak epaituko ditu. VOX alderdiak (eskuin muturra) salaketa bat aurkeztu zuen Santiago Espot Catalunya Acció taldeko presidentearen eta 2015eko maiatzaren 30ean Barçak eta Athleticcek Camp Nou jokatu zuten partidaren hasierako txistuak sustatu zituzten erakundeen kontra.

Voxen salaketaren oinarria ustezko delitu hauek ziren: Espainiari laido egitea, ordena publikoaren aurkako delitua, jatorri nazionalaren araberrako gorrotoa bultzatzea, Koroaren kontrako irainak eta eskubide eta askatasunei buruzko delituak, adibidez, zilegi ez den elkartea.

2017/05/09

EL MUNDO: Espainiarrak iraintzen zituen EITBko programa ikertzen ari da Fiskaltza.

Gipuzkoako Fiskaltzaren behin-behineko idazkian adierazten denez, posible da «delitu bat egin izana Konstituzioak bermatutako oinarritzko eskubideak eta askatasun publikoak gauzatzera».

EITB «barkamena» eskatu behar izan zien «irainduak sentitu diren kolektiboek».

2017/09/13

EL CORREO: Epaileak artxibatu egin du EITBren kontrako salaketa

«Euskalduna naiz, eta zu?» umore-programaren harira sortutako sei hilabeteko polemikaren ondoren, Iruñeko 5. epaitegiak kausa artxibatu du, salatutako adierazpenek ez dutelako «talde edo pertsona baten kontrako gorrotoa, diskriminazioa edo indarkeria sustatzen».

ETB1en iragan martxoan emandako programak kritika biziak jaso zituen, ustez espainiarren kontra bete-betean egiten zuelako, esaten zenean, adibidez, lau espainiar mota baino ez daudela: «fatxak, paletoak, txoniak edo progreak».

Jasotako kritika-jasaren ondorioz, EITBko zuzendaritzak komunikatu bat atera zuen eta, bertan esaten zenez, «umore-programa batez ari gara, norberaren eta besteen topikoak aipatzean eta puztean oinarritzen dena».

UPNk eta Poliziaren Sindikatu Bateratuak programaren kontrako salaketa bat aurkeztu zuten, «Espainiaren kontrako gorrotoa sustatzeagatik eta haren ikurrei irain egiteagatik».

2017/08/25

GARA: Udalari eskatu diote Falangeren kontrako salaketa jartzeko La Huellaren kontrako eraso delata eta

Frankismoaren Krimenen kontrako Euskal Plataformak Udalari galdegin dio Falange Vasconavarraren kontra egiteko Bizkaiko Epaitegian kereila bat jarrita, eta bertan eskatzea «taldea zigortzeko eta desegiteko, gorroto-delituagatik eta heriotza-mehatxuengatik», Artxandan frankismoaren biktimak omentzeko eraikitako La Huella monumentuaren kontrako eraso delata eta.

2017/12/17

WWW.ELDIARIO.ES: Kristalak hautsi, pintaketak egin eta Falangeren pegatinak ipini dituzte Alternatibaren Gasteizko egoitzan

Pintaketetan «V́ctor Laínez, presente» idatzi dute. Zaragozan jasotako jipoi baten ondorioz hil zen gizona da Laínez, ustez Espainiako banderaren kolorea zuten tirante batzuk zeramatzalako.

Oskar Matute koalizioaren bozeramailearen hitzetan, «eraso faxista» bat da hau, eta esan duenez, «ez da kasualitatea Falange Vasconavarrak sare sozialetan guri “bisita bat egiteko” mehatxua egin eta egun batzuetara gertatu izana».

I.4. Sinesmenak / erlijioa

2016. urtean:

- Gasteizko meskita egongo den lokalaren kontrako eraso¹⁰⁰.
- Islamaren kontrako pintaketak Barakaldon¹⁰¹.

2017. urtean:

- Txosna baten dekorazioa Bilboko jaietan, Kristoren irudiari buruzko umore satirikoa egiten¹⁰².

2016/03/18

GARA: Gasteizko kolektibo musulmanak eskerrak eman dizkie Zabalganako bizilagunei, erakutsitako babesagatik

Al Mohsinin elkartearen eta meskita baten egoitza izatekoa zen lokala txerri-odolarekin eta -hondakinekin zikindu dute, eta svastikak margotu dituzte.

Gasteizko musulmanen kolektiboak idatzi bat plazaratu du. Bertan, eraso deitoratu dute eta eskerrak eman dizkiete Zabalgana Batuz elkarteari eta laguntza eman dieten beste erakunde guztiei. Salaketa bat ipini dute Ertzaintzaren aurrean.

2016/03/22

EL MUNDO: Gorka Urtaranen ustez, Javier Marotok musulmanen kontrako aurreiritziak «hauspotu eta sustatu» zituen.

Gasteizko alkateak iritzi hori eman du Al Mohsinin Elkarte Arabiarrek meskita bat irekitzeko asmoa zuen lokalari txerri-odolarekin eta -zatiekin egindako erasoari buruz hitz egitean.

2016/03/23

GARA: Pintaketa islamofoboak agertu dira Barakaldon.

¹⁰⁰ «Gasteizko kolektibo musulmanak eskerrak eman dizkie Zabalganako bizilagunei, erakutsitako babesagatik». GARA, 2016ko martxoak 18.
«Gorka Urtaranen ustez, Javier Marotok musulmanen kontrako aurreiritziak “hauspotu eta sustatu” zituen». EL MUNDO, 2016ko martxoak 22.

¹⁰¹ «Pintaketa islamofoboak agertu dira Barakaldon». GARA, 2016ko martxoak 23.

¹⁰² «Hontzak-ek txosna aldatu du, apezpikutzaren salaketaren eta Ertzaintzaren jarduketaren ondoren». GARA, 2017ko abuztuak 22.
«Erkoreka: “Gobernu bezala, epaileak esandakoa onartzen dugu”». NAIZ, 2017ko abuztuak 21 «”Prozesioa” Hontzak-ek Aste Nagusiak pairatutako zentsuraren kontra». NAIZ, 2017ko abuztuak 23.

Islamaren kontrako pintaketa hauek agertu dira Gurutzetan: «Stop Islam Ez». Udalak ohartarazi du gertakari hauek zigortutako delitua direla, erlijioa edo sinesmenak direla-eta «gorrotoa» eta «diskriminazioa» sustatzen dituztelako.

2017/08/22

GARA: Hontzak-ek txosna aldatu du, apezpikutzaren salaketaren eta Ertzaintzaren jarduketaren ondoren

Konpartsak azaldu duenez, «Vatikanoko harategiak» izeneko dekorazioa erretiratu egin behar izan dute, epailearen aginduz. Kristoren irudi bat ageri zen bertan, bere gorputzeko hainbat atal seinalatuz, eta azpian harategi bat zegoen, non haragi-zati horiek saltzen baitziren.

I.5. Sexu-orientazioa/-identitatea

2016an

- Ikasle gazte bat etxetik bota zuen aitak homosexuala izateagatik¹⁰³
- Zenbait eraso lesbofobo Bilbon¹⁰⁴

2017an

- HAZTE OÍR taldearen autobusak sexu-aniztasunaren kontrako kanpaina bat egin zuen¹⁰⁵
- Irakasleen jarrera homofoboak ikasgelan¹⁰⁶

2016/03/17

EL CORREO: Etxetik kanporatua homosexuala izateagatik

Gizarte-eragileek 21 urteko ikasle gasteiztar gazte batek jasandako homofobia-kasua salatu dute. Elkarteek ohartarazi dute ez dela kasu isolatu bat.

2016/09/27

EL CORREO: Bilboko Udalak Iturribideko eraso lesbofoboa gaitzetsi eta laguntza eskaini du.

¹⁰³ «Etxetik kanporatua homosexuala izateagatik». EL CORREO, 2016ko martxoak 17.

¹⁰⁴ «Bilboko Udalak Iturribideko eraso lesbofoboa gaitzetsi eta laguntza eskaini du». EL CORREO, 2016ko irailak 27.

¹⁰⁵ «Autobus transfoboak gaitzespen zabala jaso du, Euskal Herrian eta bertatik kanpo» GARA, 2017ko martxoak 1.
«Fiskaltzan haur transexualen kontrako autobusak gorrotoa sustatzen duen ikertuko du». EL CORREO, 2017ko martxoak 1.
«Fiskaltzak Hazte Oír taldearen autobusa geldiarazteko eskatu du, delitua ez errepikatzeke». EL CORREO, 2017ko martxoak 1.

¹⁰⁶ «Irakasle baten homofobia-kasu posible bat ikertzen ari dira». DEIA, 2017ko maiatzak 30.

Gizon batek bi emakumeri eraso egin zien, Iturribide kalean musu bat ematen ari zirenean. Musukatzen ari zirela eta Bilboko taberna batetik kanporatu zituzten bi emakumeen diskriminazioa salatzeke protesta baten ondoren gertatu zen.

2017/03/01

GARA: Autobus transfoboak gaitzespen zabala jaso du, Euskal Herrian eta bertatik kanpo

Salaketak aurkeztu dira, «gorrotoa sustatzen» ari direla iritzita.

2017/03/01

EL CORREO: Fiskaltzan haur transexualen kontrako autobusak gorrotoa sustatzen duen ikertuko du

EL CORREO: Fiskaltzak Hazte Oír taldearen autobusa geldiarazteko eskatu du, delitua ez errepikatzeke

Gorka Urtaran Gasteizko alkateak esan du autobusak ez duela lekurik «sexu-aukera guztiekiko errespetua erakusten duen hiri anitz eta moderno» batean, eta jakinarazi du legez hirian zehar ibiltzea galaraztea posible den ikertzen ari direla. Eusko Jaurlaritzak adingabe zein heldu transexualak errespetatzeko eskatu du.

2017/05/30

DEIA: Irakasle baten homofobia-kasu posible bat ikertzen ari dira

Hezkuntza Saila irakasle bat ikertzen ari da, Hizkuntza Eskola Ofizialeko hainbat ikaslek erreklamazio bat aurkeztu ondoren. Antza denez, irakasleak kritikatu egin zuen LGTB-fobiaren aurkako Munduko Egunaren harira antolatu zen sexu-aniztasunaren aldeko kanpaina bat.

Ikasle baten hitzetan, irakaslearen kanpainaren kontrako parrastadak 20 edo 25 minutu iraun zuen, eta LGTBI kolektiboaren kontrako indarkeria-ekintzak maiz gertatzea «justifikatzer» iritsi zen.

II. ERANSKINA: EAE-KO FISKALBURUAREN MEMORIEN LABURPENA (2016-2017)

Hemen jaso ditugu Euskadin gorroto-delituekin lotuta eman diren epaietako eta abiarazi diren eginbide judizialtako batzuk, 2015. eta 2016. urteetakoak. Zerrenda honetako kasuak EAEko Fiskalburuaren 2016ko eta 2017ko Memoretatik atera dira.

2015ean emandako kondena-epaiak

1) **128/2015 epaia, apirilaren 7koa, Barakaldoko zigor-arloko 1. epaitegiarena.** Sexu-orientazioagatik jazarpen jarraituko kasu bat, hiru langilek bi lankideri egindakoa eta zazpi urte inguruko iraupena izan zuena. ZKren 173.1 artikuluko bi delituen epaia eman zen (tratu apalesgarria), ZKren 147. artikuluko delituarekin pilatuta (oinarrizko lesio-delitua), kaltea konpontzeko aringarri oso kualifikatuarekin. Errudun bakoitzak 10 hilabete eta 15 eguneko kartzelaldia jaso zuen, zigor erantsi hauekin: sufragio pasiboko eskubiderako inhabilitazio berezia eta 12.000 euroko kalte-ordaina, biktima bakoitzarentzako erantzukizun zibil moduan.

2) **80087/15 epaia, abenduaren 14koa, Bilboko instrukzioko 5. epaitegiarena (Delitu arinen 2618/15 epaiketa).** Musu ematen ari ziren bi gizonen kontra sexu-orientazioagatik egindako eraso-kasu bat. ZKren 147.2 artikuluko lesio-delituagatik ematen da kondena, ZKren 22.4 artikuluko inguruabar astungarriarekin. Benetan ezarritako zigorra ez da ezagutzen, baina zigor abstraktua 2 eta 3 hilabete arteko isuna litzateke (ZKren 66.3 artikulua).

2015ean irekitako eginbideak

1) **Gipuzkoa (organoa ez da ezagutzen):** Ikasle batzuek ikaskide magrebatar baten kontra zuten jarrera diskriminatzaile edo iraingarriengatik irekitako prozedura laburtua.

2) **Donostiako instrukzioko 4. epaitegia:** Preso baten salaketa espetxeko psikologoaren eta zuzendariaren kontra, arrazagatik diskriminazioa alegatuta. Kasua largetsi egin zen.

3) **Gasteizko instrukzioko 1. epaitegia, 1396/15 AE, gerora Madrilgo instrukzioko epaitegira inhibituta:** Martxoaren 3ko Biktimen Erakundeak 13TVko aurkezle Carlos Cuestaren kontra jarritako salaketa, 1976ko martxoaren 3an eraildako pertsonak «terroristak» zirela esatean ustez ZKren 510.2 artikuluan araututako delitua egiteagatik.

4) **Gasteizko instrukzioko 3. epaitegia, 447/15 autoa, irailaren 15ekoa:** Ernaik Guardia Zibilaren aurrean «Ospa!», «pikol[oja] bazara, ospa Espainiara» eta antzeko leloekin

antolatutako protesta-ekimenaren ondoren Guardia Zibilak salaketa aurkeztu zuen, eta hainbat eginbideren ondoren salaketa largetsi zen.

5) Balmasedako instrukzioko 2. epaitegia, 149/2015 AE: Behin-behineko largespena. Langile ginear batek bere ugazabak arrazagatik diskriminatzen zuela alegatzen zuen, obra-kontratua zuen bakarra zelako. Bere lankideek, aldiz, lan-kontratu mugagabea zeukaten, baita lanean bera baino beranduago hasi zirenek ere.

6) Barakaldoko instrukzioko 2. epaitegia, 2006/14 AE: Errumaniako nazionalitatea duten sei pertsonak Sestaoko alkatearen kontra aurkeztutako salaketa, salatzaileak ez erroldatzeagatik, ulertzen baitzuten hori etorkinak zirelako hartutako erabaki arbitrarioa zela. Adierazten zuten erroldatzeari uko egitearen helburua udalerritik joanaraztea zela, eta horrela zenbait zerbitzu baliatzeko aukera ukatu zitzaizela, hala nola beraiekin bizi ziren adingabeak matrikulatzea. Bizkaiko Probintzia Auzitegiak, apirilaren 29ko 90157/2015 autoaren bidez, largestea berretsi zuen, egitateek ez baitute izaera penalik.

7) Bilboko instrukzioko 7. epaitegia, 3696/2015 AE: Ikastetxe erlijioso bateko emakumezko langile batek aurkeztutako kereila. Alegazioen arabera, eskolara zuzendari berria iritsi zenetik, etengabe deskalifikatzen eta iraintzen zuen, eta modu sistematiko eta jarraituan jazartzen zitzaion. Era berean tratatu txar psikologikoak aipatu zituen, jazartzeko eta beldurtzeko jokabideekin eta lanetik kaleratzeko mehatxuekin. Ez dakigu ikerketa judizialak zer emaitza izan zuen.

2016an emandako kondena-epaia

248/16 epaia, maiatzaren 31koa, Barakaldoko zigor-arloko 1. epaitegikoa (153/13 PL): Ijito familia baten kontrako bizitokiko jazarpena, etxebizitzarako sarbidea ukatzeko helburuarekin. Ekintzen buru izan zen auzo-elkarteko presidenteari 4 hilabete eta 15 eguneko isuneko zigorra ezarri zitzaion, ZKren 172.1 artikuluko 3. lerrokadako delituagatik (etxebizitzaren legezko erabilera oztopatzeko derrigortze-delitua).

2016an irekitako eginbideak

1) Bilboko instrukzioko 6. epaitegia, 385/16 PL: Nigerian jaiotako pertsona baten kontrako irainen delitua. Supermerkatu baten atean eskean zebilenean, auzipetua hurbildu zitzaion eta, astindu eta bultzatzen zuen bitartean, honelako esaldiak zuzendu zizkion: «Joan zure herrira», «Zu ez zara hemengoa, alde hemendik, ospa, joan zure herrira», «Nik esaten dut eta alde egingo duzu». Ez dakigu ikerketa judizialak zer emaitza izan zuen. Ez dakigu ikerketa judizialak zer emaitza izan zuen.

2) Bilboko instrukzioko 4. epaitegia, 241/16 AE: Twitterren emakumeen eta ezkerreko ideologia duten zenbait alderdi politikoren kide eta jarraitzaileen kontrako indarkeria sustatzen zuen mezu batzuen kasua. 700 jarraitzaile inguruko kontu batean argitaratzen ziren. Gisa honetako esaldiak argitaratu ziren: «Urte honetan 56 puta gutxiago ditugu. Eta promes egiten dugu 2016a odolez betetako urtea izango dela. Aurrera haien kontra» (ez da antzeko beste kasu batekin nahasi behar, Auzitegi Nazionalak urtarrilaren 26ko 2/2017 epaiarekin ebatzi zuenarekin, hain zuzen. Horretan, 510. artikuluaengatik eta terrorismoa goratzeko delituagatik eman zen epaia). Ez dakigu ikerketa judizialak zer emaitza izan zuen.

3) Donostiako instrukzioko 2. epaitegia, 780/16 AE: Sare sozialetan zabaldutako komentario xenofobo batzuen kasua. Ez dakigu ikerketa judizialak zer emaitza izan zuen.

4) Arabako Probintzia Fiskaltza, 108/2016 ikerketa-eginbideak: Gasteizko gaztetxeko okupen kontrako salaketa, *Palestina Askatu Israeli Boikota* zioen pankarta bat zintzilikatzeagatik. Eginbideak artxibatu egin ziren.

5) Ez zen ikerketa-eginbiderik abiarazi ere Gasteizko Zabalgana auzoko meskitaren irekieraren kontra banatutako eskuorriengatik. Txerri-buruen erasoja jaso zuen meskita bera da.

III. ERANSKINA: GORROTO- ETA DISKRIMINAZIO-KASUEN ZIGOR- ETA ADMINISTRAZIO-ARAUBIDEA

III.1. Gorroto-delituak

Gorroto-delituak *stricto sensu*

- **ZKren 22.4 artikulua**

Delitu egitea arrazakeria nahiz zio antisemitengatik edo bereizkeriako beste mota batengatik, baldin eta hori biktimaren ideologia, erlijio edo sinesmen, etnia, arraza, nazio, sexu, sexu-orientazio zein sexu-identitate, genero, gaixotasun edo desgaitasunari buruzkoa bada.

- **ZKren 170.1 artikulua**

Delitua den kaltearekin mehatxatzen bada, mehatxu horiek bideratuta badaude herri baten biztanleak, talde etnikoa edo kultura-, erlijio-, gizarte- nahiz lanbide-taldea edo beste edozein pertsona-talde beldurtzera, eta mehatxu horiek beldurra sortarazteko behar besteko larritasuna badute, orduan, kasuan-kasuan, aurreko artikuluan ezarritako zigorrak baino gradu bat gehiagokoak ezarriko dira.

- **ZKren 174. artikulua**

1. Agintari edo funtzionario publikoak tortura egiten du, bere karguaz abusatuz, pertsona baten aitortza edo informazioa lortzeko helburuarekin edo pertsona horrek gauzatu duen edo gauzatu duela susmatzen den egitatearengatik, edo edozein arrazoi dela eta, era bateko edo besteko bereizkerian oinarrituta, zigortzeko helburuarekin, pertsonari baldintzak edo prozedurak ezartzen dizkionean, beren izaera, iraupena edo bestelako inguruabarren ondorioz, gorputzeko edo buruko sufrimenduak eragiten dizkietenak, ezagutu, bereizi edo erabakitzeke ahalmenak ezabatu edo gutxitzen dizkietenak, edo beste edozein modutan pertsonaren osotasun moralaren aurka atentatu egiten dutenak. Torturaren errudunari bi urtetik sei arteko espetxealdi-zigorra ezarriko zaio atentatua larria bada; bestela, urtebetetik hiru artekoa. Edozein kasutan, adierazitako zigorrez gain, erabateko desgaitasun-zigorra ezarriko zaio, zortzi urtetik hamabi artekoa.

2. Zigor berberak ezarriko zaizkio, hurrenez hurren, espetxeetako edo adingabeen babes-etxe nahiz zentzategietako agintari edo funtzionarioari, aurreko paragrafoan azaldutako egitateak gauzatzen baditu atxilotu, barneko adingabeekin edo presoekin.

- **ZKren 510. artikulua**

1. Honako hauei urtebetetik lau urte arteko espetxe-zigorra ezarriko zaie, bai eta sei hilabetetik hamabi hilabete arteko isuna ere:

a) Jendaurrean gorrotoa, etsaigoa, bereizkeria edo indarkeria sustatu, bultzatu edo zirikatzen dutenei talde baten, talde bateko zati baten edo, talde horretako kide izategatik, pertsona baten aurka, zuzenean edo zeharka, arrazakeriarengatik nahiz zio antisemitengatik, edota talde nahiz pertsona horien ideologia, erlijio nahiz sinesmen, familia-egoera, etnia, arraza edo nazio, nazio-jatorri, sexu, sexu-joera, sexu-identitate, genero, gaixotasun edo desgaitasunarengatik egiten dutenean.

b) Banatzeko, hirugarren batzuei lortzen laguntzeko, hedatzeko edo saltzeko asmoz, idazkiak edo beste edozein motatako material edo euskarri ekoizten, egiten edo edukitzen dutenei, baldin eta idazki, material edo euskarri horiek aproposak badira jendaurrean gorrotoa, etsaigoa, bereizkeria edo indarkeria sustatu, bultzatu edo zirikatze talde baten, talde bateko zati baten edo, talde horretako kide izategatik, pertsona baten aurka, zuzenean edo zeharka, arrazakeriarengatik nahiz zio antisemitengatik, edota talde nahiz pertsona horien ideologia, erlijio nahiz sinesmen, familia-egoera, etnia, arraza edo nazio, nazio-jatorri, sexu, sexu-joera, sexu-identitate, genero, gaixotasun edo desgaitasunarengatik.

c) Genozidio delituak, gizateriaren aurkako delituak edo gatazka armatuaren kasuan babesturiko ondasun eta pertsonen aurkako delituak jendaurrean ukatzen, modu larrian arinki hartzen edo goستن dituztenei, edo delituen egileak goستن dituztenei, baldin eta talde baten, talde bateko zati baten edo, talde horretako kide izategatik, pertsona baten aurka egiten badira, arrazakeriarengatik nahiz zio antisemitengatik, edota talde nahiz pertsona horien ideologia, erlijio nahiz sinesmen, familia-egoera, etnia, arraza edo nazio, nazio-jatorri, sexu, sexu-joera, sexu-identitate, genero, gaixotasun edo desgaitasunarengatik, eta, horrela, talde edo pertsona horien aurkako indarkeria-, etsaigo-, gorroto- edo bereizkeria-giroa sustatu edo sortzen laguntzen bada.

2. Honako hauei sei hilabetetik bi urte arteko espetxe-zigorra ezarriko zaie, bai eta sei hilabetetik hamabi hilabete arteko isuna ere:

a) Aurreko zenbakian zehaztutako taldeen edo talde horien zati baten edo, talde horietako kide izategatik, edozein pertsonaren umiliazioa, mespretxua eta izena galtzea dakarten ekintzen bidez, pertsonen duintasuna kaltetzen dutenei, arrazakeriarengatik nahiz zio antisemitengatik, edota talde nahiz pertsona horien ideologia, erlijio nahiz sinesmen, familia-egoera, etnia, arraza edo nazio, nazio-jatorri, sexu, sexu-joera, sexu-identitate, genero, gaixotasun edo

desgaitasunarengatik; eta, banatzeko, hirugarren batzuei lortzen laguntzeko, hedatzeko edo saltzeko asmoz, idazkiak edo beste edozein motatako material edo euskarriak ekoizten, egiten edo edukitzen dutenei, baldin eta idazki, material edo euskarri horiek aproposak badira pertsonen duintasuna kaltetzeko, aipatutako talderen bati, talde horien zati bati edo, talde horietako kide izateagatik, edozein pertsonari umiliazio larria, mespretxua edo izena galtzea eragiten diotelako.

b) Talde baten, talde bateko zati baten edo, talde horretako kide izateagatik, pertsona baten aurka egin diren delituak adierazpen publikoak egiteko edozein baliabide edo hedabideren bitartez goresten edo justifikatzen dituztenei, delitu horiek pertsona edo talde horien aurka egin direnean arrazakeriarengatik nahiz zio antisemitengatik, edota talde nahiz pertsona horien ideologia, erlijio nahiz sinesmen, familia-egoera, etnia, arraza edo nazio, nazio-jatorri, sexu, sexu-joera, sexu-identitate, genero, gaixotasun edo desgaitasunarengatik; eta, halaber, delituak egiten parte hartu dutenei.

Egitate horiengatik urtebetetik lau urte arteko espetxe zigorra ezarriko da, bai eta sei hilabetetik hamabi hilabete arteko isuna ere, egitateen bidez, aipatutako taldeen aurkako indarkeria-, etsaigo-, gorroto- edo bereizkeria-giroa sustatu edo laguntzen denean.

3. Aurreko zenbakietan ezarritako zigorrak goiko erdian ezarriko dira, egitateak gizarte-hedabideen, Interneten edo informazioaren teknologien bitartez egin badira, eta informazioa pertsona askoren eskura jarri bada.

4. Inguruabarrak kontuan hartuta, egitateak egokiak badira bake publikoa nahasteko edo taldeko kideei segurtasunik ezaren edo beldurraren sentimendu bizia sortzeko, orduan, zigorra goiko erdian ezarriko da, eta gradu bat gehiagokoa ere izan daiteke.

5. Kasu guztietan, gainera, hezkuntza, kirol eta aisiaren arloko lanbide edo ogibiderako desgaitasun bereziko zigorra ezarriko da, eta haren iraupena epaian ezarri den askatasunaz gabetzeko zigorraren iraupena baino hiru urtetik hamar urte arte handiagoa izango da; hori zehazteko orduan, proportzionalki kontuan hartuko dira delituaren astuntasuna, egindako delituen kopurua eta delitugilearen inguruabarrak.

6. Epaille edo auzitegiak erabakiko du liburuak, fitxategiak, dokumentuak, artikuluak eta edozein euskarri suntsitzea, ezabatzea edo erabilezin bihurtzea, baldin eta aurreko zenbakietan ezarritako delituak egiteko erabili badira, edo delituok egiteko bitartekoak izan badira. Delitua informazioaren eta komunikazioaren teknologien bidez egin bada, edukiak kentzeko aginduko da.

Aurreko zenbakian aipatutako edukiak era eskusiboan edo nagusiki Interneteko atari baten edo informazio-gizartearen zerbitzu baten bidez hedatzen direnean, agindua emango da zerbitzu

edo atari horretan sartzeko bidea blokeatzeko, edo atariaren edo zerbitzuaren funtzionamendua eteteko.

- **ZKren 510 bis artikulua.**

Baldin eta, 31 bis artikuluan ezarritakoaren arabera, pertsona juridiko bat bada aurreko bi artikuluetan bildutako delituen erantzulea, orduan, bi urtetik bost urte arteko isun zigorra ezarriko zaio. 66 bis artikuluan ezarritako erregelaren arabera, epaile eta auzitegiek 33. artikuluko 7. zenbakiaren b) eta g) letren artean bildutako zigorrak ere ezarri ahal izango dituzte.

Kasu horretan, aplikatzekoa izango da Zigor Kodearen 510. artikuluko 3. zenbakian ezarritakoa ere.

- **ZKren 515.4 artikulua**

Pertsona, talde edo elkarteen aurka, zuzenean edo zeharka, gorrotoa, etsaigoa, bereizkeria edo indarkeria sustatzen, bultzatzen edo zirikatzen dutenak, haien ideologia, erlijio, sinesmenen zioz, edo horietako kideen edo horietako baten etnia, arraza edo nazio, sexu, sexu-joera, familia-egoera, gaixotasun edo desgaitasunaren zioz.

1.2. Manu osagarriak edo funtzionalak

- **ZKren 160.3 artikulua**

Zigor bera ezarriko da, gizaki berdinak egiten badira klonazioaren bidez edo arraza aukeratzeko bideratuta dauden bestelako prozeduren kasuan.

- **ZKren 173.1 artikulua**

Norbaitek beste pertsona bati, beraren osotasun moralari kalte larria eginez, tratu apalesgarria ematen badio, sei hilabetetik bi urte arteko espetxealdi-zigorra ezarriko zaio.

Zigor bera ezarriko zaie, laneko edo funtzionariotzako edozein harremanen esparruan, eta goragoko maila dutela baliatuta, modu jarraituan besteen kontrako etsaitasun-ekintzak edo ekintza umiliagarriak egiten dituztenei, baldin eta, tratu apalesgarria izaterainokoak izan gabe ere, biktimaren kontrako jazarpen larria badira.

Zigor bera ezarriko zaio ere modu jarraituan etsaitasun-ekintzak edo ekintza umiliagarriak egiten dituztenei baldin eta, tratu apalesgarria izaterainokoak izan gabe ere, etxebizitzaren erabilera legitimoa oztopatzeko helburua badute.

- **ZKren 197.5 artikulua**

Era berean, aurreko zenbakietan azaldutako egitateek izaera pertsonaleko datuak ukitzen badituzte, eta ideologia, erlijioa, sinesmenak, osasuna, arraza-jatorria edo sexu-bizimodua ezagutarazten badituzte, edo biktima adingabea edo babes berezia behar duen desgaitua bada, zigor horiek goiko erdian ezarriko dira.

- **ZKren 522. artikulua**

Lau hilabetetik hamar arteko isuna ezarriko zaie:

1. Erlijio baten kide bati edo batzuei euren sinesmenei dagozkien egintzak gauzatzea edo egintza horietara azaltzea eragozten dietenei, horretarako indarkeria, larderia, indarra edo bidezkoak ez diren derrigortzeetatik beste edozein erabiltzen badute.

2. Bide berberak erabiliz, beste bat edo beste batzuk behartzen dituztenei kultu edo errito egintzak gauzatzera, horietan parte hartzera, erlijio batekoa izatea edo ez izatea agertarazten duten egintzak gauzatzera, edo erlijioa aldatzera.

- **ZKren 523. artikulua**

Norbaitek erlijioen egintzak, eginkizunak, zeremoniak edo kale-agerraldiak, indarkeria, mehatxu, nahasmendu edo egitezko jardunbidez eragotzi, geldiarazi edo nahasten baditu, betiere erlijio horiek inskribatuta daudenean Justizia eta Barne Arazoetako Ministerioaren erregistro publiko egokian, orduan, pertsona horri sei hilabetetik sei urte arteko espetxealdi-zigorra ezarriko zaio, egitatea kultu-leku batean gauzatu bada, eta lau hilabetetik hamar arteko isuna, egitatea beste edozein lekutan gauzatu bada.

- **ZKren 524. artikulua**

Norbaitek tenpluan, kultu-lekuan edo zeremonia erlijiosoetan, legez babesturiko sentimendu erlijiosoak ofenditzen dituzten donauste-egintzak gauzatzen baditu, orduan, horri sei hilabetetik urtebeterako espetxealdi-zigorra edo 12 hilabetetik 24 arteko isuna ezarriko zaio.

- **ZKren 525. artikulua**

1. Zortzi hilabetetik hamabi arteko isuna ezarriko zaie erlijio baten kideen sentimenduak ofenditzearren, haren dogma, sinesmen, errito edo zeremoniei jendaurrean eskarnio egiten dietenei, hitzez, idatziz nahiz edozein agiriren bidez, edota, jendaurrean, iseka egiten dutenei aurreko dogma zein sinesmen horiek dituztenekiko edo errito nahiz zeremonia horiek egiten dituztenekiko.

2. Zigor berbera ezarriko zaie erlijio edo sinesmenik ez dutenekiko, hitzez edo idatziz, jendaurrean eskarnio egiten dutenei.

- **ZKren 526. artikulua**

Norbaitek, hildakoen oroimenari zor zaion begirunea urratuz, hobiak nahiz hilobiak bortxatzen, edo gorpu bat nahiz beraren errautsak donausten baditu edota, idoi egiteko asmoz, errauts-kutxatilik, panteoiak, hilarriak zein horma-hilobiak, suntsitu, aldarazi edo horiei kalte egiten badie, orduan, horri hiru hilabetetik bostera arteko espetxealdi-zigorra ezarriko zaio, edo sei hilabetetik hamarrera arteko isuna.

- **ZKren 607. artikulua**

1. Norbaitzuek, nazio, etnia, arraza edo erlijio talde bat edota kideen desgaitasunagatik zehaztutako talde bat oso-osorik edo zati batean suntsitzeko asmoz egintza hauetako bat gauzatzen badute, honako zigor hauek jasoko dituzte:

1. Espetxealdi iraunkor berrikusgarria, taldekide bat hiltzen badute.

2. Espetxealdi iraunkor berrikusgarria, taldekide baten aurkako sexu-erasorik egiten badute edo 149. artikuluan ezarritako lesioetako bat eragiten badute.

3. Zortzi urtetik hamabost urte arteko espetxe zigorra, bizitza arriskuan jartzen duten edo osasuna modu larrian nahasten duten bizi-baldintzen mende jartzen badute taldea edo taldeko edozein gizabanako, edota 150. artikuluan ezarritako lesioetako batzuk eragiten badizkiete.

4. Zigor berbera, taldea edo taldekideak derrigorrez lekualdatzen badituzte, haien bizimodua nahiz ugalketa eragoztera jotzen duten neurrietatik edozein hartzen badute edota gizabanakoak talde batetik bestera indarrez eramaten badituzte.

5. Lau urtetik zortzi urte arteko espetxe zigorra, zenbaki honen 2. eta 3. puntuetan adierazitakoez bestelako edozein lesio eragiten badute.

2. Kasu guztietan, gainera, hezkuntza, kirol eta aisiaren arloko lanbide edo ogibiderako desgaitasuna bereziko zigorra ezarriko da, eta haren iraupena epaian ezarri den askatasunaz gabetzeko zigorraren iraupena baino hiru urte eta bost urte arte handiagoa izango da; iraupen hori zehazteko, proportzionalki kontuan hartuko dira delituaren astuntasuna eta delitugilearen inguruabarrak.

- **ZKren 607 bis artikulua.**

1. Gizateriaren aurkako errudunak dira hurrengo zenbakian jasotako egintzak gauzatzen dituztenak, populazio zibilaren edo horren zati baten aurkako eraso orokor edo sistematiko baten parte gisa.

Edonola ere, gizateriaren kontrako delitutzat joko da egintza horiek gauzatzea:

1. Biktima arrazoi politikoak, arraza, nazioa, etnia, kultura, erlijio, generoa, desgaitasuna edo nazioarteko zuzenbidean modu unibertsean onartezintzat jotzen diren beste zio batzuk direla eta jazarria den talde edo kolektibo bateko kide izateagatik.

2. Arraza-talde batek beste arraza-talde baten edo batzuen gaineko jazarpen- eta menderakuntzako erregimen instituzionalizatu batean, eta erregimen horri eusteko asmoz.

2. Gizateriaren kontrako delituen errudunek honako zigorrak jasoko dituzte:

1. Espetxealdi iraunkor berrikusgarria, pertsonaren baten heriotza eragiten badute.

2. 12 urtetik 15 urte arteko espetxealdia bortxaketa bat egiten badute, eta lau eta sei urte arteko espetxealdia egitatea beste edozein sexu-eraso bada.

3. 12 urtetik 15 urte arteko espetxealdia. 149. artikuluko edozein lesio eragiten bada, eta zortzi eta 12 urte artekoa, bizitza arriskuan jartzen duten edo osasuna modu larrian nahasten duten bizi-baldintzen mende jartzen badituzte pertsonak edo 150. artikuluan aurreikusitako lesioetakoren bat eragiten denean. Lau urtetik zortzi urte arteko espetxealdia, 147. artikuluko lesioren bat eragiten bada.

4. Zortzi urtetik 12 urte arteko espetxealdia, pertsona bat edo gehiago deportatzen edo indarrez lekualdatzen badituzte, nazioarteko zuzenbideak onartutako arrazoirik gabe, beste Estatu edo leku batera, kanporatzen baten bidez edo derrigortzeko bestelako ekintzen bidez.

5. Sei urtetik zortzi urte arteko espetxealdia, populazioaren osaera etnikoa aldatzeko xedez emakumeren baten haurdunaldia indarrez eragiten badute, kasuan-kasuan beste delitu batzuegatik dagozkiekeen zigorrak kalterik gabe.

6. Hamabi urtetik hamabost urte arteko espetxealdia, pertsonak desagerraraztean. Desagerraraztea hauxe dela joko da: Estatuak agenteek edo Estatuak baimenduta, lagunduta edo jakinda jarduten duten pertsonak edo taldeek norbait atzematea, atxilotzea, bahitzea edo edozein modutan askatasunaz gabetzea, eta, segidan, ez onartzea desagertu den pertsona hori askatasunaz

gabetu duela, edo ez esatea nola eta non dagoen, eta, horrela, desagertutako pertsona legearen babesetik kanpo uztea.

7. Zortzi urtetik 12 urte arteko espetxealdia, norbait atxilotzen badute, askatasuna kenduz, atxilotzeari buruzko nazioarteko arauak bete gabe.

Gradu bat gutxiagoko zigorra ezarriko da atxiloketaren iraupena hamabost egunetik beherakoa bada.

8. Lau urtetik zortzi urte arteko espetxealdia, beren zaintza edo kontrolpean dauden pertsonen tortura larriak eginez gero, eta bi urtetik sei urte arteko espetxealdia horren larriak ez badira.

Artikulu honen ondoretarako, torturatzat joko da pertsona bati sufrimendu fisiko edo psikikoak eragitea.

Zenbaki honetan aurreikusitako zigorrak biktimaren beste eskubideen kontrako atentatuengatik, dagokionean, egoki diren zigorren kalterik gabe ezarriko dira.

9. Lau urtetik zortzi urte arteko espetxealdia 187.1 artikuluan jasota dauden prostituzioarekin lotutako ekintzen bat egiten badute, eta sei urtetik zortzi urte artekoa 188.1 artikuluan jasotako kasuetan.

Sei urtetik zortzi urte arteko zigorra ezarriko zaie indarkeria, larderia edo engainua erabiliz, edota nagusitasun-egoeraz zein biktimaren beharrezanahiz ahuleziaz abusatuz, zuzenean edo zeharka, pertsonak sexu ustiapenerako asmoarekin leku batetik bestera eramaten dituztenei.

Aurreko lerrokadan eta 188.1 artikuluan ezarritako jokabideak adingabeekin edo babes berezia behar duen desgaituekin egiten direnean, zigor horiek goiko erdian ezarriko dira.

10. Lau urtetik zortzi urte arteko espetxealdia, pertsona bat esklabotzan sartzen badute edo egoera horretan mantentzen badute. Zigor hau pertsonen beste eskubideen kontrako atentatuengatik, dagokionean, egoki diren zigorren kalterik gabe ezarriko da.

Esklabotza dagoela joko da pertsona batek beste baten gainean gauzatzen dituztenean, izatez bada ere, jabetza-zuzenbidearen atributu guztiak edo batzuk, hala nola erostea, saltzea, lagatzea edo trukitzea.

3. Aurreko zenbakian zehaztutako kasuetan, gainera, hezkuntza, kirol eta aisiaren arloko lanbide edo ogibiderako desgaitasun bereziko zigorra ezarriko da, eta haren iraupena epaian ezarri den askatasunaz gabetzeko zigorraren iraupena baino hiru urte eta bost urte arte handiagoa

izango da; iraupen hori zehazteko, proportzionalki kontuan hartuko dira delituaren astuntasuna eta delitugilearen inguruabarrak.»

- **ZKren 611.6 artikulua**

Hamar urtetik hamabost arteko espetxealdi-zigorra ezarriko zaio, eragindako ondoreei dagokien zigorrari kalterik egin gabe, gatazka armatua dela eta, hurrengo egiten duenari:

Babespeko edozein pertsonari dagokionez, beraren aurkako arrazazko bereizketa edota, pertsonaren duintasunaren kontrako idoa dakarten beste bereizkeria batzuetan oinarritzen direla, gizabidezkoak ez diren gainerako jokaerak eta jokaera apalesgarriak egiten, egiteko agintzen edo horiei eusten dienari.

III.2. Bereizkeria-delituak

- **ZKren 314. artikulua**

Norbaitzuek, enplegu publiko nahiz pribatuan, pertsona baten aurka bereizkeria larria sorrarazi eta, administrazioaren aginduen edo zehapenaren ondoren, legearen aurreko berdintasun-egoera berrezartzen ez badute, horrek ondorioztatu dituen kalte ekonomikoak konponduz, hain zuzen, bereizkeriaren arrazoi direla pertsonaren ideologia, erlijioa nahiz sinesmenak; edo etnia, arraza nahiz nazio batekoa izatea; edo sexua, sexu-joera, familia-egoera nahiz gaixotasun edo desgaitasunen bat izatea; edo langileen lege- ordezkaria zein ordezkari sindikala izatea; edo enpresaren beste langile batzuekin senidetasuna izatea edo Espainiako estatuaren hizkuntza ofizialen bat erabiltzea, orduan, horiei sei hilabetetik bi urte arteko espetxealdi-zigorra edo 12 eta 24 hilabete arteko isuna ezarriko zaie.

- **ZKren 511. artikulua**

1. Sei hilabetetik bi urte arteko espetxe-zigorra ezarriko zaio, bai eta hamabi hilabetetik hogeita lau hilabete arteko isuna eta enplegu edo kargu publikorako desgaitasuna berezia ere, urtebetetik hiru urte artekoa, zerbitzu publiko batez arduratzen den partikularrari, baldin eta pertsona bati, bere ideologia, erlijio, sinesmen, etnia, arraza, nazio-jatorri, sexu, sexu-joera, familia-egoera, genero, gaixotasun edo desgaitasuna dela eta, prestazio bat ukatzen badio, pertsona horrek prestazio horretarako eskubidea izanik.

2. Zigor berberak ezarriko dira, baldin eta egitateak elkarte, fundazio, sozietate edo korporazio baten aurka edo horietako kideen aurka gauzatzen badira, kideen ideologia, erlijio edo

sinesmenengatik, kideen edo horietako baten etnia edo arrazarengatik, edo euren nazio-jatorri, sexu, sexu-joera, familia-egoera, genero, gaixotasun edo desgaitasunarengatik.

3. Funtzionario publikoek artikulua honetan ezarritako egitateetako bat gauzatzen badute, zigor berberak ezarriko zaizkie, goiko erdian, bai eta enplegu edo kargu publikorako desgaitasun berezia ere, bi urtetik lau urte artekoa.

4. Kasu guztietan, gainera, hezkuntza, kirol eta aisiaren arloko lanbide edo ogibiderako desgaitasun bereziko zigorra ezarriko da, eta, iraupena, hala denean, epaian ezarri den askatasunaz gabetzeko zigorraren iraupena baino hiru urtetik bost urte arte handiagoa izango da; horren proportzioa erabakitzeke, kontuan hartuko dira delituaren astuntasuna eta delitugilearen inguruabarrak.

- **ZKren 512. artikulua**

Norbaitzuek, lanbide- edo enpresa-jarduerak gauzatzean, pertsona bati prestazio bat emateari uko egiten badiote, pertsona horren ideologia, erlijio, sinesmen, etnia, arraza edo nazio, sexu, sexu-joera, familia-egoera, genero, gaixotasun edo desgaitasunaren zioz, eta pertsona horrek prestazio horretarako eskubidea badu, orduan, halakoei lanbidean, ogibidean, industrian edo merkataritzan aritzeko desgaitasun bereziko zigorra ezarriko zaie, bai eta irakaskuntzaren, kirolaren eta aisialdiaren arloetako hezkuntza-lanbide nahiz -ogibiderako desgaitasun bereziko zigorra ere, urtebetetik lau urte artekoa.

III.3. Gorroto eta bereizkeriako arau-hauste administratiboak

19/2007 Legea, uztailaren 11koa, kirol-ikuskizunetan egon daitezkeen indarkeria, arrazakeria, xenofobia eta intolerantziaren aurkakoa [166. BOE, 2007ko uztailaren 12koa, 29946. eta 29964. arteko or. (19 or.)].

10/2015 Legea, abenduaren 23koa, Jendaurreko Ikuskizunen eta Jolas Jarduerena [2016ko urtarrilaren 7ko EHAA, 3. zk.].
